




# 26 Ziega Zenbakia

Israelgo galdeketa zentroetan palestinar presoen aurka  
darabilten torturaren inguruko azterketa



# Aurkibidea

## **I. kapitulua: Hitzaurrea teorikoa: tortura sistema kolonialen tresna bat da**

Tortura kontzeptualizatzen

Europarren kolonizazioa eta tortura

1.Tunisia eta Aljeria, urratsekin paraleloan

2.Kenya eta India

## **II. kapitulua: Tortura nazioarteko legedian**

Tortura estatu praktiketan vs nazioarteko epaitegien araudia

Tortura-krimenak nazioarteko zigor auzitegian

## **III. kapitulua: tortura israelen 1948-2020**

Tortura Israelgo ordenamendu juridikoan

1999 aurreko tortura kontakizun izugarriak

1970-1989 antzeko tortura kasuak

1990-1999

Tortura politikak bizitza palestinarrak daramatza aurretik

1999 ostean: Oinarrian, jokamolde israeldarrak berdina izaten darrai

## **IV: kapitulua: atxilotuei eragindako tortura fisiko eta psikologikoa (espetxe israeldarretako galdeketa metodoak)**

Jipoiak zein jipoi larriak

Estresa eragiten duten zenbait tortura posizional

Loa galaraztea

Giza-beharren ukazioa

Atxilotuak: garrasien bidezko umiliazioa, biraoak, tu egitea

Atxilotuak beste pertsona batzuen aurkako galdeketak ikusi edo entzutera behartzea

Trikimailu eta engainuak

Inguruarekiko erabateko isolamendua eta torturaren eragin psikologikoa

## **V. kapitulua: Israelgo sistema judiziala torturaren egituraren parte da**

Abokatuarekin biltzeko debekua

Galdeketaekin jarraitzea helburua duen atxiloaldiaren luzapena: tortura krimenak estaltzeko beste konplizitate judizial mota bat

Epaitegietako transkribapenen ofizialen hainbat atalen ezabaketa

## **VI. kapitulua: mediku israeldarrak tortura sistemaren parte dira**

Atxilotuak galdekatzeko hauen uneoroko gaitasunaren ziurtagiria

Tortura zantzuei ezikusiarrena egin eta horiek dokumentatzea alboratzea

Sistema judizial eta medikuaren arteko bateratzea irudikatzen duen S.A.-ren kasua

Mediku-ikerketa: tortura-krimenen ardatza

Mediku-konplizitatea politika zahar bat da

## **VII kapitulua: Zigor kolektiboak**

Sarekada ugari atxilotuen herrietan

N.A.-ren sendia: zigor kolektiboen politikaren eredu argia

Sendia, atxilotuez baliatzeko fitxak bailiran, trukerako txanpon gisa erabilia

Estatua haurren aurka: Israelek palestinar bat atxilotzen du haur bat entrega dadin presionatzeko

Etxebizitzen eraiste politika atxilotu palestinarrei zuzendua dago

Ondorioak

Erreferentziak

Israelgo galdeketa-zentroetan preso palestinarren aurkako torturaren erabilerari buruzko azterlana

Al-Moscobiyehko galdeketa zentroan, "26. gelaxka" ez da pasaeran aipatzen den zenbaki soil bat. Dozenaka atxilotu palestinar bortizki torturatu dituzte, eta hantxe pilatua da betiko bertan bizitako mina handik igarotzen diren guztientzat. Azterlan honetan torturaren biktimen testigantzak irakurtzen dituzunean, ez hartu haien oinazea haien familiek pairatzen dutenetik aparte. Utz iezaiozu burua torturatik haratago joaten, atxilotu palestinarren seme-alabak, amak, emazteak eta maite dituenak ere gogoratzeko. Imajinatu haien beldurra eta oinazea, eta ikusiko duzu espetxeetako ziega guztiek gaintitzen duten minaren benetako sakontasuna eta torturazaileek erakutsitako basakeria. Gordineria da hori guztia deskribatzeko.

## HITZAURREA

Azterlan zabal honetan, Addameer, Presoen Babeserako eta Giza Eskubideen Aldeko Elkarteak, Palestina okupatuan dagoen torturaren kontzeptua eta praktika aztertu nahi ditu, 2019 eta 2020 bitartean dokumentatutako tortura-praktika partikularrak aztertuz. Azterlan honen arabera, tortura sistema kolonialen milaka urteko tresna da, herri indigenen gaineko kontrolerako erabiltzen dena eta edozein disidentzia mota erreprimitzen duena. Tortura kontzeptu generikoa da, eta, beraz, azterketa aldeanitz honek zenbait dimentsio aztertzen ditu, legezko diskurtsotik harago eta ikerketa honen oinarri diren eskubideetan oinarrituta.

Azterlan honek 1960aren aurretik Afrikako eta Asiako herrialdeetan izandako Europarren kolonia-jardunbideak nabarmentzen ditu batez ere -tortura eta hertsatzeko zigor kolektiboak oro har -, jarraian horiek Israelgo atxilotu palestinarren aurkako okupazio-politikekin alderatzeko. Ikerketak paralelismoak ezartzen ditu bi sistema kolonialen artean, eta ondorioztatu du Israelgo okupazioaren praktikak ez direla funtsean hogeiko, hogeita hamarreko eta berrogeiko hamarkadetako Europako kolonia-jardueretatik bereizten; bi sistemek atxilotuen aurkako tortura, zigor kolektibo eta isunen erabilera dute oinarritzat, baita okupatutako biztanleria menderatzeko funtsak eta jabetzak besterentzea ere.

Azterketa honek hainbat ikerketa-metodologia darabiltza, besteak beste, torturari buruzko nazioarteko auzitegien epaien eta akordioen azterketa juridikoak, Israelgo auzitegien epaien azterketa kritikoa eta 2018az geroztik egiten ari den Addameerren tortura-artxibotik datozen tortura-biktimekin edukiriko elkarrizketa sakonak. Elkarrizketek Israelgo okupazio-praktikak (1960 eta 1999 artean) eta Israelgo okupazio-indarrek une horretan egindako tortura-motak aztertuko ditu. Gainera, azterlanaren laginaren datu kuantitatiboan analisia ere baliatzen du azterketak. Berau 2019ko urtarrilaren 1etik 2020ko ekainaren 30era bitartean elkarrizketatutako 205 atxilotuk osatzen dute, eta Addameerrek legezko jarraipena egin zien. Analisiak 25 faktore baino gehiago aztertzen ditu, besteak beste, galdeketa-zentroaren kokapena, generoa, galdeketaren iraupena, galdeketarako atxiloteta-epealdiaren luzapenen kopurua, abokatuei ezarritako debekuak eta atxilotuen izenean Addameerrek aurkeztutako errekurtsio eta eragozpenak.

Analisi kuantitatiboaz gain, Addameer kasu-espediente askoren legezko analisisan oinarritu da, espediente bakoitzari dagozkion prozedura legalak eta judizialak aztertuz. Azkenik, Addameerrek espetxeetara egindako bisita guztiak eta 2019ko urtarriletik 2020ko ekainera bitartean egindako landa-ikerketen ohar dokumentalak berrikusi ditu.

Azterketa hiru zati nagusitan banatzen da. Lehenik eta behin, Europako kolonizazioa eta indigenen populazioa kontrolatzeko eta hura azpiratzeko baliaturiko torturaren erabilera aztertzen ditu. Horretarako, herrialde askotan, besteak beste, Tunisian, Aljerian eta Kenyan erabilitako praktika kolonialen adibideak aurkezten ditu. Bigarren atalen zuzenbideko eta nazioarteko auzitegietak tortura kasuen azterketa egiten da, eta nazioarteko auzitegiek torturari buruz ematen dituzten epaiak eta akordioak aztertzen ditu, torturaren ondorio diren praktiken izaera, eta "tratu ez-gizatiartzat" hartzen dena landuz.

Ikerketaren hirugarren atalean, mardulenean, tortura israeldarren okupazioaren testuinguruan kokaturik aztertzen da, eta Israelgo tortura-praktiken historiari hasten da, 1960tik gaur egun arte; izan ere, ikerketaren esparru historikoak 1967tik 2020ra bitartean hartzen ditu, arreta berezia jarritz 2019an eta 2020ko lehen seihilekoan Addameerrek egindako kasuetan. Hirugarren atal honetan, gainera, garai hartako tortura-teknika bortitzenen mende dauden presoen testigantzak irakur daitezke. Israelgo sistema judizial eta medikoen konplizitatea ere aztertzen du, baita israeldarren okupazioaren krimenak ezkutatzeko duten ardura ere.

## **I. KAPITULUA**

**Hitzaurrea Teorikoa: Tortura Sistema Kolonialen Tresna bat da**

“Espetxea ez dira lau paretak bakarrik, ezta borreroa edo tortura ere. Batez ere, pertsona baten beldurra eta izua dira, maiz kartzelan sartu aurretik barneraino txertatuak ditugunak, horixe nahi baitu borreroak eta horrexek bihurtzen baitu pertsona betiko preso.”

Abdel Rahman Munif Nobelista eta pentsalari arabiarra

1948an hasi zen Palestinaren kolonizazio israeldar goiztiarrak etengabe eboluzionatzen joan den zapalkuntza-sistemaren oinarriak ezarri zituen. Garapen hori Palestinarrek euren lurraldearen okupazioaren eta horretarako baliaturiko praktiken arbuioaren erantzunaren garapenarekiko paraleloa izan da. Palestinarrek askapen nazionalako mugimenduan aurrera egin ahala, palestinar askatasunaren aldeko ehunka borrokalarien kartzelaratzeari areagotu egin zen erantzun gisa. Palestinarrak Britainia Handiko espetxe kolonial zaharretan edo 1967tik aurrera sortutako espetxeetan giltzaperatu zituzten, Israelgo politika eta praktiken aurkako erresistentzia-ekintza ororen aurka zigor- eta disuasio-neurri gisa. Tortura fisiko eta psikologikorako teknika ugari erabili dira atxilotu palestinarren aurka, haien gorputzak konkistatzeko eta izpiritua hausteko; okupazioaren pean zuten errealitate berria onartzera bultzatzeko.

Espetxeek testuinguru kolonialean duten eginkizuna ez dator inondik inora bat erreformatu eta birgizarteratzeko helburu esplizitua duten kartzelekin. Espetxe kolonialak erresistentzia nazional indibidual eta kolektiboaren bidez kolonizazioa arbuizatzen zuten populazio indigenak kontrolatzeko sortu ziren. Jeremy Sarkin-ek dioenez, Afrikako testuinguruan, "potentzia kolonialak Europara iritsi zirenean ere, kartzelaratzeari erabili zuten, ez delitu komunak zigortzeko baliabide gisa, baizik eta matxinatzen diren tokiko populazioak kontrolatu eta lurra ustiatzeko". Beraz, espetxe formalak zituzten Afrikako lehen esperientziek ez zuten helburu izan gaizkileak birgaitu edo birgizarteratzea, herri indigenen zapalkuntza ekonomikoa, politikoa eta soziala baizik".<sup>1</sup>

Era berean, israeldarren okupazio-espetxeak palestinarrek zigortzeko sortu ziren. Desberdintasun geografikoak alde batera utzita, potentzia okupatzaile baten zigor- eta tortura-neurriak ez dira desberdinak, boterea mantendu eta kontrola handitzeko okupatutako herria baitute jomuga. Neurri horien bitartez modu sistematikoan saiatu dira palestinarren kontzientzia epe luzera birmoldatu eta kontrolatzen, okupatuaren gorputzari eta arimari eraso eginez, eta horrek antzekotasun nabarmenak ekarri ditu espetxe horietako zigor- eta tortura-neurrien izaeran. Lurralde okupatuetako espetxe batzuen eta besteen artean bada alderik, kolono-natibo dinamikak nabarmen markatzen dituelarik okupatzailearen tortura-praktikak. Sakrin-ek dioenez, "Europako espetxeek XIX. mendean amaieran tortura pixkanaka ezabatu zuten arren, espetxe kolonialek gero eta gehiago erabili zuten praktika hori herri indigenak erreprimitzeko eta dogma arrazista indartzeko. Tortura eta heriotza-zigorra zilegi ziren europarren artean, afrikarrak zibilizatu gabeak, infantilak eta basatiak zirelako".<sup>2</sup>

Era berean, Marini Lazreg-ek arrazismoa aipatzen du frantziar kolonizatzaileek eskala handiko tortura erabiltzeko faktore nagusi gisa, zeren eta, ez bairik gabe, "eginkizun garrantzitsua izan baitzuen armada eta polizia Aljeriako natiboei eman zieten tratu basatian. Aljeriarrak torturatu egin zituzten, arrazan eta okupatzailearen sinesmen politikoetan oinarrituta." Ideologia horrek arrazen arteko desberdintasunak sendotzen zituen eta aljeriarren artean "kontrol kolonialaren mende zegoen herri garaitua" izatearen nozioa barneratzen saiatzen zen. Ondorioz, tortura "egoera kolonialaren ordena naturalaren elementu" gisa sortu zen.<sup>3</sup>

Lazreg-ek gaineratu du Frantziako erregimen kolonialak arraza kontzeptu horretan hezi zituela soldaduak, tortura, errepresaliak, exekuzio sumarioak eta bortxaketak egin zituzten errepublika inperial bateko elkartasun militarren forma gisa, eta honako hau adierazi du: "batzuetan, patriotismoa aipatzen da tropek egindako gehiegikerien arrazoi gisa". Garai hartan gerran aritu zen soldadu frantses batek honela esan zuen: "Frantzia Frantzia zen inperio koloniala zuelako". Ikuspegi horri oinarritzat hartuz, soldadu frantsesak torturatzeko eta zigortzeko modu guztiak praktikatzera bultzatu zituen.

Erregimen kolonial baten izaera eta nahiak ulertzeak aukera ematen digu jatorrizko herrien jazarpenean oinarrituriko bere zapalkuntza eta indarkeria sistema ulertzeko. Jean-Paul Sartre-k nozio hori Frantz Fanon-en *The Wretched of the Earth* liburuaren hitzaurrean berretsi zuen: "Biolentzia kolonialaren helburua ez da gizon esklabo horiek gutxieneko distantzia batean mantentzea soilik, haiek gizatasuna galtzea ere bilatzen du".<sup>5</sup> Sartre-ren arabera, gizatasuna galtzea, azken batean, kolonizatuak erregimen kolonialaren aurrean duen porrota da; erregimen kolonizatuak haustura-punturaino darama lehena. Kolonizatuak erresistitzeko eta baztertze



gaitasunik gabe geratzen da, eta hori ez da lortzen tradizioak deuseztatuz edo hizkuntzak ordezkatuz, baizik eta kolonizatuaren borondatea eta kementa erabat agortuz baizik. Horretarako kolonizatuaren bihotzetan beldurra zabaltzen dute indarkeria-mota guztien bidez.

Natura koloniala eta horrek dituen helburuak herri palestinarren kontra daude gaur egun. Hasiera batetik, Israelgo kolonizazioaren helburua ez zen soilik jatorrizko herritarrak azpiratzea, baizik eta Palestinak zuen bizitza ezabatzea, sarraskien, nahitaezko lekualdatzeen eta eraitsitako etxe palestinarren hondarren gainean asentamenduak eraikiz, arrazan oinarritutako beste praktika kolonial batzuen artean. Gatazka horren baitan, 1967tik aurrera eraikitako espetxe kolonialak eta antzinako espetxe britainiarrak indarkeria mota guztien lekuko bihurtu ziren, torturatik hasi eta kasu batzuetan hilketaraino. Espetxe horiek indarkeria eta neurri zigortzaileak erabiltzen jarraitzen dute etengabe eboluzionatzen duen sistema zapaltzaile sistematiko baten barruan, preso palestinarren aurkako zapalkuntza-taktika berriak egokituz. Atxiloketak, tratu txarrak eta tortura okupazioa baztertzeko eta hari aurre egiten diotenek aurka egiten diren tresna zapaltzaileak dira.

## **TORTURA KONTZEPTUALIZATZEN**

"Jipioa ez duzu sentitzen jasotzean libre zarenean; jasotzerakoan askatasunik ez baduzu, ahul eta itzultzeko gai ez bazara bakarrik sentitzen duzu. Orduan izaten duzu jipoitua izanaren benetako sentimendua, haren mina: ez kolpearen tokiko mina, baizik eta mespretxuaren mina."

- Mamdouh Adwan, *The Animalization of Man*

Hitz horiek Israelgo espetxe kolonialetako torturaren errealitatea biltzen dute, tortura-mota guztiak praktikatzeko galdeketa-zentroak jarri baitituzte, eta atxilotu palestinarren gorputzak suntsitzen dituzte, batzuetan atxilotuen gorputzek jasan ezinik horiek heriotzaraino daramatzaten tortura-taktika bortitzak baliatuz. Atxilotu palestinarra kalabozoetan torturatzen dute, eta haren garrasiak atsekaberiko gorputzen barrenean egiten dute oihartzun, soilik inortxok ere entzuna izan dadin. Kolpe bakoitzaren ostean beste bat dator, harik eta gorputzak ez dion aurre egiten eta ezin du zutik iraun.

Adwan-ek honela definitu zuen tortura: pertsona batek beste baten kontra egindako kalteak zigortzeko bidea; disuasiorako, zapaltzeko edo diziplinatzeko nahiz ekintza bat egitera behartzeko edo galdeketa egiten den bitartean informazioa ateratzeko tresna. Gainera, mina eragitea entrenamendu-ariketa baten parte izan daiteke edo arrazoi ekonomikoek bultzatua izan liteke; zeremonia erlijiosoen parte ere izan daiteke.<sup>7</sup> Foucault-en definizioa Jaucourt-enean oinarritzen da, eta honela definitzen du tortura: "maila mingarri ezberdinetan ezartzen gorputz-zigorra". Bestalde, Foucault-ek dioenez, "tortura batez ere minaren arte kuantitatibo batean oinarritzen da", eta gorputzean dituen efektu mota eta minaren kalitate, intentsitate eta iraupena neurtzen ditu. Hala, Foucault-ek minaren izaera eta intentsitatea hartzen ditu zigorra tortura gisa definitzeko faktore bakartzat.

## **EUOPARREN KOLONIZAZIOA ETA TORTURA**

Azken mendeetan zehar, batez ere I. eta II. Mundu Gerren ondoren, Europako Estatu asko saiatu ziren beren hegemonia zabaltzen eta kontrola ezartzen herrialde askotan, besteak beste, Tunisian, Aljerian eta Kenyan. Erregimen kolonialek hainbat praktika erabili zituzten herrialde horietako biztanleak torturatzeko. Aurreko mendeetako praktika kolonialen eta Israelgo gaur egungo praktiken artean antzekotasunak egon daitezkeen arren, kapitulu honetan Tunisia, Aljeria, India eta Kenyan ezarritako Europako erregimen kolonialak aztertuko ditugu.

### **1. Tunisia eta Aljeria, Palestinarekin paraleloan**

Frantziako erregimen kolonialak zigor-sistema zehatza ezarri zuen Tunisian; batez ere nazionalista tunisiarren aurka erabiltzen ziren hainbat zigor motatan oinarritzen zen. Mugimendu nazionalistei aurre egiteko, tunisiarren aurkako muturreko indarkeria erabili zuen; horretarako, hainbat zapalketa-, indarkeria- eta murrizketa-metodo erabili zituen, askapen-mugimendu guztiak deuseztatzeko. Gainera, edozein ekintza abertzale zapuztu nahi izan zuen sistemak, beren gizatasuna iraindus askatasunaren aldeko borrokalarien lanaren eragina gutxietsi nahian. Frantziarrek tunisiarren aurka erabilitako zigorrak era askotakoak ziren, eta horien artean isun bortitzak, exekuzioak eta kartzelaratzeari zeuden.

Agintari frantsesek, zigortzeko era tradizional horiez gain, Tunisiako ondasunak ere konfiskatu zituzten, bai higigarriak baita higiezinak ere. Gainera, tunisiarrak erbesteratu eta beren herrialdetik ateratzera behartu zituzten, eta horietako batzuk zelatatzen jarraitu zuten, baita atzerrian ere.

Indigenak azpiratzeko tortura mota eta gradu guztietako errepresioa erabiltzera jo zuten, beste sistema kolonial batzuek bezala. Tunisian, frantziar kolonizazioak, tortura fisiko eta psikologikoa erabili zuen atxilotutako nazionalista tunisiarren aurka, besteak beste, degradazioa, hitzeko mehatxu eta iraintzea, izutzea, gizatasunik gabeko azpiratzea, itxura fisikoari loturiko irainak, loa galaraztea, atxiloturiko pertsonen senitartekoen egoera dohakabea, zaplaztekoak, ukabilkadak, kolpeak, itoketa, erredurak, gurutziltzatzea.<sup>10</sup> Metodo horietako gehienak israeldarren okupazioak erabiltzen ditu palestinarren aurka; izan ere, zaila da iraindu eta umiliatu izana salatzen ez duen, izututa ez dagoen, presio psikologikorik jasan ez duen edo bere familiaren eta beste pertsona batzuen sufrimenduaren inguruan aritu ez zaizkion atxilotutako palestinarrak aurkitzea.

Frantziako sistema kolonialak tortura erabili zuen hainbat lekutan, hala nola atxilotu-eremuetan, polizia-etxeetan eta erbestean. Polizia-etxeetan bizi izan ziren, bereziki, tortura bortitzenen taktikak;

esate baterako, objektu zorrotzak eztairik sarraraztea<sup>11</sup>, uretako hodiak atxilotuen eztairitan barna pasaraztea, eta urdaila urez betetzea hori zanpatu baino lehen; zigarroak elektrokutatu eta itzali gorputzeko gune sentikorretan; eta biluzik utzi ziegetan sartu behar zituzten, argirik eta aireztapenik gabe, gelako lurzorua potasioarekin nahastutako urez bustita zegoen bitartean.<sup>12</sup> Gainera, atxilotutako hainbat kide beste pertsonak nola torturatzen zituzten ikustera behartzen zituzten, baita torturatze ari ziren pertsonaren gurasoak tortura gelara eraman ere atxilotua ere gehiago presionatzeko. Gainera, gauean zehar ogi eta ur kopuru eskasak ematen zitzaizkien atxilotuei. Mediku-arreta ukatzen zitzairen, lehen sorospenak ukatuz eta/edo arreta medikua eta gutxieneko botikak ematea ukatuz. Horrez gain, atxilotuei janaria kentzen zitzairen eta gosea pasarazten zieten, alkohola gatzarekin nahastuta edatera behartzen zituzten eta beste hainbat praktika krudel egiten zitzaizkien.<sup>13</sup>

Israelgo okupazioak Palestinaren askatasunaren aldeko borrokalarien aurka taktika horietako batzuk erabiltzen ditu. Atxilotu palestinarrei lotutako torturen historia dokumentatzeko ahaleginean, Addameerrek hainbat metodo zerrendatu zituen, hala nola, atxilotuen gorputzean zigarroak itzaltzea, otorduen arteko denbora luzatzea, batzuetan 24 orduz, gosea pasarazteko. Hori gutxi ez balitz, Israelgo galdekatzaileek, normalean, atxilotuei loa galarazten diete, beste atxilotu baten tortura entzun edo ikustera behartzen dute, edo senideen atxilotu edo atxilotu- mehatxua presio gisa darabilte. Atxilotuek ere ez dute osasun arreta egokia jasotzen, edo atzerapen handiak izaten dituzte behar duten osasun laguntza jasotzeko.

Frantziaren Aljeriako kolonizazio teknikak aztertuz, Tunisian erabilitakoen oso antzekoak izan zirela ondoriozta liteke. Frantziako agintariak Aljeriako gizartea desegituratzea eta zatitzea bilatzen zuten, ekonomia-setio bat ezarri eta baliabide naturalen erabateko kontrola lortzeki, lurrarena zein egiturena, indigenak kolono europarren bidez ordeztzeko saiakeraraino. Azken hori lortzeko, Frantziako agintariak Aljeriara eraman zituzten klase apaleko europar herritarrak, eta joera ezberdintzaile bat ezarri aljeriarren eta kolono berrien tratuan.<sup>14</sup> Frantziako sistema koloniala diskriminatzailea zen jatorri nazionalaren arabera; aljeriar batek eta kolono europar batek delitu bera egiten bazuten, erregimen koloniala barkabera agertzen zen kolonoekin, aljeriarrei zigor gogorra ezartzen zien bitartean.

Era berean, israeldarren okupazioak eta erregimen kolonialak palestinarren aurkako bereizkeria-politikak aldarrikatzen dituzte. Jatorri nazionalen oinarritutako bereizkeria kolonial frantsesa delitu beragatik zigor desberdinak aplikatzean agertzen da. Israelgo okupazioak palestinarren aurka aurkeztutako karguak gehiegizko akusazioekin eraikitzeko antzeko praktikak jarraitzen ditu. Bien bitartean, Israelgo fiskaltza militarra etengabe saiatzen da palestinarren "terroristatza" aurkezten, eta haien ekintzen aurrean, txikiak izanik ere, ezingo litzateke ezikusiarrena egin. Israelgo sistema judizialaren aurretik, "terrorista" izendapenaren helburua epaileei sententzia altuagoak eta zigor gogorragoak emanaraztea zen. Bestalde, Israelek okupatutako lurraldeetan diharduten bi sistema judizial bereiz ditzakegu. Lehenak palestinarren aurkako ahalik eta zigor altuenak aldarrikatzen ditu; besteak, berriz, oso bihozbera agertzen dira palestinarren aurkako krimen beldurgarriak egiten dituzten israeldar kolonoekin.

Frantziar sistema koloniala etengabe saiatu zen Aljeriaren askapenerako edozein saiakera zapuzten, espetxeak erabiliz hegemonia eta kolonien kontrola zabaltzeko. Frantziako indarrek erregimen kolonialaren aurka matxinatzen saiatu zen edonor kartzelaratzeko zuten, espetxeak errepresio eremu modura berregituratuz, ezjakintasuna zabalduz, eta espetxeetan tortura-krimenik lazgarrienak eginez kontrol koloniala zabaltze aldera.<sup>15</sup> Aljeriako atxilotuen aurka erabilitako tortura-teknika frantsesen artean, hauek zeuden: zaplaztekoak, ukabildakak sabelean, aliketen erabilera eta elektrokuzioak.<sup>16</sup> Beste metodo batzuen artean, atxilotuaren urdailean ura ponpatzea inbutu baten bidez edo ahoan indarrez sartutako hodi baten bidez, atxilotuaren burua denbora luzez behin eta berriz urpean sartzea.

Atxilotuen familiak ez zeuden politika kolonial bortitzetatik salbuetsita; izan ere, Frantziako indarrek atxilotuaren emaztea, alaba, ahizpa edo emaztearen senidea eramaten zuten maiz, eta,

aitortzeari uko eginez gero, hura bortxatzeko mehatxua egiten zuten. Batzuetan, atxilotuak biluzik dantzazera behartzen zituzten bere senitartekoen presentziak bere borondatea hautsi torturatzailen eskaerei men egin ziezaieten.

Paralelismo horrek are gehiago frogatzen du Frantziako sistema kolonialaren eta Israelgo okupazioaren arteko antzekotasuna: Aljeriako etxeetan gauz egiten ziren eraso frantziarrak, etxeak erregistratuz eta etxejabeak izutzeko helburuz. Era berean, israeldarren okupazio-indarrek Palestinako hiri eta herrietan ere sarraskiak egiten dituzte, Palestinako etxeetan sartzen dira gaueko ordu txikietan eta haien ondasunak suntsitzen dituzte. Hori guztia Palestinako familien bihotzetan beldurra sorrarazteko xedearekin.

## 2. Kenya eta India

Britainiar politika kolonialek Frantziakoen antza dute. Britainia Handiak Kenyako lurren gaineko kontrola ezarri zuen, eta bizkortu egin zituen britainiarrak eta atzerritarrak bertan finkatzeko ahaleginak. Atzerritarrek bertakoek ez bezalako tratua jaso zuten, azken hauek zapalduak, gutxietsiak eta umiliatuak izaten baitziren. Gainera, bertako herritarrek tortura mota desberdinak jasan zituzten, bortxaketa barne, britainiarrek erabilitako kartzeletan.<sup>18</sup>

Beste potentzia kolonial batzuk bezala, Britainia Handia edozein askapen-saiakera erreprimitzen saiatu zen, erregimen kolonialaren aurkako askapen-mugimendu eta matxinada modu guztiak bortizkeriaz eta zapalkuntzaz erantzun baitziren. Historia tortura-teknika basatien lekuko izan da 1950eko hamarkadan, batez ere Mau Mau altxamenduan, Britainia Handiak jipoi fisikoekin, bortxaketekin eta matxinatuen zikiratzearekin erantzun baitzuen.<sup>19</sup> 20.000 kenyar baino gehiago hil zituzten, eta 150.000 inguru espetxeratu. Kenyako Lurraren eta Askatasunaren Armadan (Mau Mau Armadan) parte hartu zuten kenyarrak izan ziren atxiloteta-kanpainaren lehen jomuga. Hala ere, altxamenduan parte hartu ez zuten pertsonak ere atxilotu zituzten.<sup>20</sup>

Britainia Handiko indar kolonialek torturaturiko zenbait kenyarrek talde-salaketa bat aurkeztu zuten erreparazio eske 2012an.<sup>21</sup> Epaiketako audientzietan, jasandako torturen testigantza zehatzak partekatu zituzten, Wambugu Wa Nyingiren kasuan adibidez, 1952an atxilotu zuteneko xehetasunak gogoratu zituen. Bost urtetik gora egon zen kartzelan, eta horietan muturreko jipoi fisikoak jasan zituen. Beste lekuko batek bere irentzearen xehetasunak gogoratu zituen, eskuak eta oinak kateatu zizkioten atxilotze-eremu batean, kolono zuri bat kurrika handi batzuekin hurbiltzen zitzaion bitartean, ostean organo genitalak erauzi zizkioten.<sup>22</sup>

Gizonak ez ziren izan Kenyan britainiar koloniak buruturiko sarraskien biktima bakarrak. Jane Muthoni Mara demandatzaileak epaimahaiaren aurrean deklaratu zuen 15 urte zituela atxilotu zutela, Mau Mau-en jarraitzaile izan zitekeelakoan. Marak atxilotze eremura iristean jasan zuen indarkeria zehaztu zuen, baita freskagarri-botila bat baginan nola sartu zioten ere.<sup>23</sup> Botila urez bete zenean izan zuen min izugarria kontatu zuen.<sup>24</sup> Azkenik, gobernu britainiarrak onartu zuen kenyarrak torturatu zituela eta tratu txarrak jasanarazi zizkiela; horren ostean, torturatu zituzten 5.000 kenyarri baino gehiagori 30 milioi dolar ordaindu zitzaizkien kalte-ordain gisa.

Tortura-taktika bortitz horiek eta palestinarren aurkako Israelgo jarduerak desberdinak diren arren, torturaren funtsezko erabileran oinarritutako paralelismoak ezartzen dira. Britainiar kolonizazioak indarkeria sexuala nahita erabiltzea, Kenyako biztanleen zikiratzea, bortxaketa eta eraso sexuala barne, ez dago oso urrun Palestinako errealitatetik. 1960ko eta 1970eko hamarkadetan, Israelgo okupazioak antzeko taktikak erabili zituen: atxilotuak beirazko botilen gainean jartzera behartu zituen, genitaletan urradurak eraginez, eta makilekin bortxatu zituzten.<sup>26</sup>

Britainia Handiak Indian izaniko kolonia-jardunbideak ez ziren funtsean Kenyakoetatik bereizten. Britainia Handiak baliabide naturalak eta Indiako lurak suntsitu zituen, eta jatorriko biztanleak ustiatu zituen, batez ere atxilotuak eta presoak, baliabide naturalak baldintza oso krudeletan erauzteko lan behartuen bidez.<sup>27</sup>

Bizirik atera zen indiar batek 1940ko hamarkadan bizitako kartzelaratzeko baldintzak azaldu zituen, eta esan zuen indar britainiarrek eskuak sareekin lotu ohi zizkiotela eta 80 preso ingurura arte superpopulatutako barrakoietan jartzen zituztela. Ofizial britainiarren krudeltasuna deskribatzen jarraitu zuen, tratu txarrak ematen baitzizkioten eta tortura modu desberdinak erabiltzen, hala nola, azazkalak kendu eta izotz-plaken gainean etzatera behartzea.<sup>28</sup> Beste batzuek torturaren eta gosearen izugarrikerien berri eman zuten. Presoei harrez betetako txanoak zerbitzatzen zizkioten bazkaltzeko ohiko jatekoaren ordean, eta horietako batzuk gose-greban zeudela adierazi zutenean, indar britainiarrek errepresaliak hartu zituzten bortxaz elikatuz.<sup>29</sup>

Israelgo okupazioarekin paralelismoak ikus ditzakegu praktika horietako askotan. Israelgo okupazioaren historia antzeko ereduek markatzen dute, besteak beste, dozenaka preso palestinar kartzelaratzeari oso txikiak diren kartzela espazioetan, gutxi prestatutako jakiak emanez edo atxilotu eta presoek jaki kopuru desegokiak emanez. Hori dela eta, Israelgo espetxeko jangela da presoek elikagai osagarriak lortzeko duten modu bakarra.<sup>30</sup>

Gainera, Israelgo okupazio-agintariak sistema kolonial britainiarraren antzeko bortxazko elikadura praktikak darabiltzate. Urtetan, gose-greban zeuden preso palestinar bortxaz elikatu zituzten, eta horrek, besteak beste, Abdel Qader Abu Al-Fahem, Rasim-Halawa, Ali Al-Ja'fari eta Ishaq Maragha presioen heriotza eragin zuen, elikadura behartuaren ondoriozko osasun-arazoak tarteko. Israelgo estatuak gaur arte ezarri ditu bortxaketa horien oinarri juridikoak. 2015. urtean, Israelgo Knessetak elikadura behartuari buruzko lege-proiektu bat onartu zuen. Horri esker, Israelgo agintariak indarrez elika ditzakete gose-greban dauden preso palestinarrek, medikuek “beren bizitzak arriskuan daudela” argudiatzen badute.<sup>31</sup>

## **II. Kapitula**

### **Tortura Nazioarteko Legedian**

Gizateriaren historia gudaz eta giza eskubideen urraketaz josita dago. Horrek guztiak kezka berezia sorrarazi du torturaren inguruan, tortura eta bestelako tratu anker eta ez gizatiarren debeku esplizitua hitzartzeraz bultzatuz nazioarteko hitzarmen guztietan. Debekua erabatekoa da, nazioarteko zuzenbidearen baitan izan litekeen irmoena, eta horrek esan nahi du ezein alderdik ezin duela salbuespenik, justifikaziorik, tolerantziarik edo torturaren onarpenik argudiatu. Ikuspuntu horretatik, torturaren debekua nazioarteko legediaren ohiko parte izatera pasatu da, eta horrek esan nahi du estatuak behartuta daudela hori betetzera, nazioarteko hitzarmenak onartu edo berresten badituzte, nahiz ez.<sup>32</sup> Gainera, tortura gizateriaren aurkako mehatxutzat dakusa legediak, eta gerra-krimentzat hartua da modu zabaldu edo sistematikoan erabiltzen bada.<sup>33</sup> Torturaren aurkako nazioarteko hitzarmenik garrantzitsuenetakoa Torturaren edo bestelako Tratu edo Zigor Krudel, Gizagabe edo Iraingarrien aurkako Konbentzioa (CAT) da. 1. artikuluan tortura "pertsona batengan nahita eragindako edozein min nahiz sufrimendu fisiko edo mental latz" moduan deskribatzen du.<sup>34</sup> 2. artikulua "ez dago inolako gertaera ezohikorik, izan guda egoera edo guda mehatxua, barne mailako ezegonkortasun politikoa edo bestelako edozein larrialdi publiko, tortura justifikatzeraz eraman dezakeenik."<sup>35</sup>

Orokorrean, CAT da nazioarteko konbentzio bakarretako, tortura-egintzengatik erantzukizun penalak ezartzen dituena izan norbanakoari zein Estatuari. Horrez gain, estatuei tortura abolitzeko eta alderdi erantzule guztiak jazartzeko mandatua egotzen dio. Konbentzioak torturari buruzko nazioarteko definizio "onargarri" bat ematea lortu bazuen ere, definizioa zertxobait zabala da oraindik.<sup>36</sup> 1991ko urriaren 3an, Israelek berretsi egin zuen Torturaren eta bestelako Tratu edo Zigor Krudel, Gizagabe edo Iraingarrien aurkako Konbentzioa, Israeli berariazko betebeharrak ezartzen dizkiona estatu berresle gisa.<sup>37</sup>

Gainera, nazioarteko beste hitzarmen batzuek torturaren debekua berresten dute, hala nola, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak (UDHR), hau ezartzen baitu: "Ez da inor torturatuko, ezta zigor edo tratu krudel, gizagabe edo iraingarriren pean ezarriko",<sup>38</sup> Bestelako hainbat hitzarmenek ere gai bera jorratzen dute, besteak beste, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunak (ICCPR),<sup>39</sup> Nelson Mandela Arauek,<sup>40</sup> Lege Beteazlearen Jokabide Araudia,<sup>41</sup> Edozein Atxilotze edo Espetxeratze Egoeran Dagoen Pertsona Ororen Babeserako Printzipio Multzoa<sup>42</sup> eta Tortura edo Bestelako Edozein Tratu Krudel, Gizagabe edo Iraingarri eta Zigorzaitetik Pertsona Oro Babesteko Adierazpena.

## **TORTURA ESTATU PRAKTIKETAN VS NAZIOARTEKO EPAITEGIEN ARAUDIA**

Torturaren eta Beste Tratu edo Zigor Krudel, Gizagabe edo Iraingarrien aurkako Hitzarmenean jasota dagoen torturaren definizio orokorrak atea zabalik uzten du nazioarteko auzitegiek torturaren eta tratu ez-gizatiarren ondorio diren praktiken izaera azal dezaten, auzitegi askok aintzat hartu baitituzte atxilotuen aurka erabilitako praktiken izaera, larritasuna eta iraupena, besteak beste. Interpretazio eta jurisprudentzia desberdinen ondorioz desberdintasunak egon arren, zenbait praktika torturatutzat hartzeko adostasuna dago; besteak beste, jipoi larriak, hatz, hortz eta azazkalak erazte, elektrokuzioa, itotzea, loaldia luzaroan kentzea, isolamendu osoa, sexu-erasoa, bortxaketa edo bestelako sexu-indarkeria mota, eta argiarekiko, zaratarekiko, beroarekiko edo hotzarekiko gehiegizko esposizioa.<sup>43</sup>

Arlo horretako nazioarteko interpretazio judizialek bi norabide izan dituzte: lehena, tortura definitzen saiatzen da; bestea, berriz, tortura zer den zehazten saiatzen da. Lehen norabidearen adibide bat Jugoslavia ohirako Nazioarteko Auzitegi Penalak da (TPIY), eta honela definitu zuen tortura: "min handia edo sufrimendu fisiko edo mentala eragiten duen ekintza edo omisio; ekintza edo omisioa berariaz egina da; eta ekintzaren edo omisioaren helburua informazioa edo aitormena lortzea, biktima edo hirugarren bat zigortzea, beldurtzea edo hertsatzea da; edo biktima edo hirugarren pertsona edozein eremutan diskriminatzea".<sup>44</sup>



Bigarren norabidearen kasuan adibide ugari daude. Horietako bat Giza Eskubideen Europako Auzitegiak Shishkin V. Errusia kasuari buruz egindako ebaluazioa da. Kasu horretan, polizia atxilotuari tratu txarrak eman zizkion. Epaimahaiak bere ebaluazioetan ondorioztatu zuenez, atxilotuak jasan zituen tratu txarrak, besteak beste, ukabilkadak, ostikoak, borrarekin orpoetan emandako kolpeak eta deskarga elektrikoak, tortura moduan izendatu zituen horiek helburu zehatz bat zutelako eta baita iraupen eta intentsitate zehatz bat zutelako ere. Gainera, epaimahaiak adierazi zuen tratu txarrek "sufimendu mental eta fisiko larriak" eragin zituztela, ezbairik gabe, "nahiz eta gorputz-lesio errealak bereziki larriak izan ez", eta gaineratu zuen "indarraren erabileraren helburua atxilotua degradatzea izan zela, men egitera eraman eta egin ez zuen delitu bat aitor zezan". Horren emaitza izan zen epaitegira eramaniko kasua tortura moduan aitortua izatea.<sup>45</sup>

Gainera, Giza Eskubideen eta Herrien Batzorde Afrikarraren iritziz, kolpeak eta horiek ematen diren testuingurua, hala nola, makilekin eta latigoekin emandako kolpeak, untxiaren jauzia egitera behartzea, gorputzeko atal guztietan ur-mahukekin emaniko jipoiak, heriotza-mehatxuak, oinekin beste bizkarra emanez belaunikatzera behartzea jarraian oinak kolpatu eta segituan jauzi egitera behartzea eta trauma fisiko naiz psikologiko larriak eragin ditzaketen beste hainbat praktiken "izaera hain da krudel eta larria ezen tortura gisa izendatzeko larritasun langa gainditzen duten".<sup>46</sup>

Torturaren aurkako Konbentzioaren torturaren definizioak utzitako anbiguotasunak bidea ireki zien gobernuei eta nazioarteko auzitegiei zenbait definizio euren egiteko. Gobernu eta auzitegi batzuk torturaren definizioa zabaltzen saiatu ziren, ahalik eta praktika gehien sartu ahal izateko; beste batzuk, berriz, ahalik eta gehien murrizten saiatu ziren, zenbait aitzakiarekin, batez ere terrorismoaren aurkako borroka baliatuz. Azken horren adibiderik nabarmenena da Amerikako Estatu Batuek "Galdeketa-teknika hobetuak" garatu zituztela 2001eko irailaren 11z geroztik. Teknika horiek hainbat atxilotze-eremutan erabili ziren, bereziki Guantanamon, tortura-delituak justifikatzeko terrorismoaren aurkako borrokaren aitzakiapean.

2014. urtean, Amerikako Estatu Batuetako Senatuko Inteligentzia Batzorde Hautatuak txosten bat aurkeztu zuen Inteligentzia Agentzia Zentraleko (CIA) galdeketa teknika hobetuen eraginkortasunari buruz. Txostenaren arabera, CIAk galdeketa teknika hobetuak erabiltzea ez zen informazioa lortzeko bitarteko eraginkorra, eta horrek informazioa eskuratzeko torturak duen eraginkortasunik eza berretsi zuen. Txostenak 2001ean eta 2002an argitaratutako bi dokumentu aipatzen zituen. Horietan, israeldarren okupazio-indarraren taktikak aipatzen ziren, galdeketa sendotuko teknikak berehalako kaltea saihesteko erabil daitezkeela baieztatzeko argudio gisa, "kaltea saihesteko beste baliabiderik ez dagoenean".<sup>48</sup>

CIAk teknika horien aldeko jarrera argia izan arren, AEBko sistema judiziala argudio horren aurka egiten hasi zen. 2019an, Amerikako Estatu Batuetako Bederatzigarren Zirkuituko Apelazioen Auzitegiak, Husayn v. Mitchell kasuan, erabaki zuen galdeketa teknika hobetuak torturaren parekoak direla.<sup>49</sup> Auzitegiak ebatzi zuen teknika horiek erabiltzea ez dagoela Estatuaren sekretuaren pribilegioaren mende, eta gaineratu zuen antzeko tortura kasuak ebatzteke dituen edozein epaile nagusik bereizi egin behar duela informazio klasifikatu edo estatu sekreturik bada tarteko, informazio ez pribilegiatua informazio pribilegiatutik edozein kasu baztertu aurretik.<sup>50</sup> Kasua errekurritu egin zuten Amerikako Estatu Batuetako Gorte Gorenen aurrean, ahozko argudiaketa 2021eko urrian hasi zen eta oraindik ebatzteke dago.

Beste kasu batean, Salim v. Mitchell, Washingtongo Ekialdeko Barrutirako Estatu Batuetako Barrutiko Auzitegiak, ebatzi zuen Hobetutako Galdeketa Tekniken Programa diseinatzen eta aplikatzen lagundu zuten psikologoek ez zutela immunitate subirano eratorria izateko eskubiderik, eta, beraz, prozesatu zitezkeela. Era berean, Europako Giza Eskubideen Auzitegiak (ECHR) ebatzi zuen edozein estatu bere lurraldean eta bere jurisdikzio pean den atxilotuari ematen zaion tratuaren erantzule zuzena dela. Husayn (Abu Zubaydah) v Polonia kasuan ebatzi zuen Abu Zubaydah Poloniararen eraman zutela denboraldi baterako eta tarte horretan torturatu egin zutela. Epaimahaiaren iritziz, Abu Zubaydah-i emaniko tratu txarren erantzule zela Polonia, estatu kide horrek Europako Giza Eskubideen Hitzarmenean (ECHR) zehazturiko betebeharrei muzin egin zuelako.

Estatuek torturari buruz egiten dituzten interpretazioen anbiguotasuna gainditzeko nazioarteko ahaleginen artean, Manfred Nowak Torturari buruzko Nazio Batuen Kontalari Bereziak lau irizpide esanguratsu ezarri zituen tortura definitzeko eta berau tratu edo zigor krudel, gizagabe edo iraingarrietatik bereizteko.

Irizpide horien artean daude: (1) min edo sufrimendu fisiko eta/edo mental larriak eragitea, (2) Estatua jokabidea horren erantzule izatea, (3), eta tortura erabiltzeko asmo edo helburu jakinak agertzea, besteak beste, kondenatzeko, beldurtzeko, diskriminatzeko edo zigor-epaia lortzeko aitortza erdiestea. Azkenik, Nowak-ek laugarren irizpide bat ezarri zuen, Torturaren aurkako Hitzarmenean ez dagoena: (4) biktimaren inpotentzia eta defentsa-gabezia.

Nazioarteko eta estatu mailako zenbait esparru juridikoetako torturari buruzko bibliografia zabala berrikustean, agerian geratzen da tortura erabat debekatuta dagoela nazioarteko hainbat hitzarmenetan, eta horrek nazioarteko auzitegien epai eta aurrekari ugaritara garamatza. Beraz, esan liteke palestinarren aurkako israeldarren praktiken artean, hainbat tortura direla. Praktika horiek torturaren ez diren kasuetan ere, torturaren debekuarekin batera, Nazioarteko Zuzenbideak debekatzen dituen gizatasunik gabeko tratu ekintzak dira.

## **TORTURA KRIMENAK NAZIOARTEKO ZIGOR AUZITEGIAN**

Nazioarteko Zigor Gorteak (ICC) lau krimen-kategoria nagusi epaitzeko eskumena duela ezarri da: (1) genozidio-krimenak, (2) gizateriaren aurkako krimenak, (3) eraso-krimenak eta (4) gerra-krimenak, Genevako Konbentzioaren arau-hauste larriak barne. Ondorengo hiru kasuetan has lezake balizko krimen baten inguruko ikerketa gorteak: estatu kide batek bere herrialdean jazotako gertaera bat salatzen badu, Nazio Batuetako Segurtasun Kontseiluak (UNSC) Nazio Batuetako Kartaren 7. Atalari dagokion egoera bat mahai-gaineratzen badu edo fiskalak ofizioz estatu kide baten aurkako ikerketa abiarazten badu.<sup>55</sup>

Erromako Estatutuak gizateriaren aurkako gerra-krimen eta gizateriaren aurkako krimen gisa tipifikatzen du tortura, betiere, eraso orokor edo sistematiko baten baitan egiten bada.<sup>56</sup> Estatutuan honela definitzen da tortura: "Akusatuaren zaintzapean edo kontrolpean dagoen pertsona bati min edo sufrimendu fisiko nahiz mental larriak nahita eragitea."<sup>57</sup> Azterlan honen irismena ez da hedatzen ICCren jurisdikzioaren azterketa sakona egitera, ezta tortura-krimenen egileak epaitzeko lanaren analisisira. Hala ere, adierazgarria da ICCren mandatua ez dela auzitegi nazionalak ordezkatzeko, baizik eta nazioarteko justizia penaleko sistema global bat ezartzea, Estatu batek prozedurak ezin dituen gauzatu edo gauzatu nahi ez dituen esku hartzeko.

Israelgo sistema judizialak Israelgo Segurtasun Agentziarekin (ISA) duen konplizitate ikusita ("Shabak" deitzen zaio), batetik, eta palestinarren aurka oro har eta, bereziki, atxilotuen aurka egindako tortura-delituak ezkutatzeko behin eta berriz egin dituzten saiakerak kontuan hartuz, bestetik, argi dago ahalegin estatalak bateratzearen garrantzia, tortura penaleko nazioarteko delituen egile israeldarrek euren ardurei aurre egin diezaieten errazteko.

### **III: Kapitulua**

#### **Tortura Israelen 1948-2020**

"Jipoa ez duzu sentitzen jasotzean libre zarenean; jasotzerakoan askatasunik ez baduzu, ahul eta itzultzeko gai ez bazara bakarrik sentitzen duzu. Orduan izaten duzu jipoitua izanaren benetako sentimendua, haren mina: ez kolpearen tokiko mina, baizik eta mespretxuaren mina."

Mamdouh Adwan, eleberrigile eta pentsalari arabiarra

Urteetan zehar, Israelek lan handia egin du nazioarteko komunitatearen aurrean Ekialde Ertaineko demokrazia bakar gisa aurkezteko. Irudi horri eusteko, Israelek nazioarteko hitzarmen ugari atxiki eta berretsi ditu, hala nola Torturaren eta Beste Tratu edo Zigor Krudel, Gizagabe edo Iraingarrien aurkako Konbentzioa (CTA),<sup>58</sup> Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna (ICESCR),<sup>59</sup> Bereizkeria Mota guztiak Ezabatzeari buruzko Nazioarteko Konbentzioa,<sup>60</sup> Nazioarteko Eskubide Zibil eta Politikoen Ituna (ICCPR),<sup>61</sup> baita Emakumeen Aurkako Edozein Diskriminazio Forma Ezabatzeiko Konbentzioa (CEDAW).<sup>62</sup>

Ahalegin horiek agerian uzten dute Israel estatu demokratiko gisa aurkezten dela nazioarteko komunitatearen aurrean, palestinarren aurkako krimen izugarriak egiten dituen bitartean, gerra-krimenak eta gizateriaren aurkako krimenak barne. Akordioetako batek ere ez du lortu Israelek palestinarren aurkako tortura-krimenak amai ditzan. Hala ere, Israelek berretsi egin zituen nazioarteko akordio horiek, Israelgo Auzitegi Gorenak 1999an, salbuespenezko egoeretan izan ezik, gehiegizko tortura-metodoak erabiltzea debekatzeko erabakia hartu aurretik. Auzitegi Gorenaren epaia mugarrria da Israelgo torturaren historian, eta, ondorioz, hurrengo atalean aztertuko da xehetasunez.

## **TORTURA ISRAELGO ORDENAMENDU JURIDIKOAN**

Israelek ez zuen aintzat hartu torturaren auzia, 1980ko hamarkadaren bukaera arte, Landau Batzordea<sup>63</sup> eratu zenera arte hain zuzen. Orduko hartan Israelgo soldadu zirkasari batek Israelgo Segurtasun Agentziaren (ISA) esku zen galdeketa torturatu egin zutela eta aitortzera behartu zutela salatu zuen arte. Salaketen ondorioz, 1987ko maiatzaren 31n, Israelgo gobernuak batzorde bat eratu zuen, orduan Auzitegi Goreneko presidente zen Moshe Landau buru zuela, Israelgo Segurtasun Agentziak egindako galdeketa-metodoak ikertzeko.

Aipatu behar da gertaera hori ikertzeko batzordea sortzeko erabakia Israelgo Segurtasun Agentziako galdegileek auzitegien aurrean behin eta berriz gezurrezko testigantzak eman ondoren hartu zela, eta horrek justifikatu zuen batzorde bat eratu beharra kasu hori sakonago ikertzeko.<sup>65</sup>

1987ko urriaren 30ean, Landau Batzordeak bere txostena aurkeztu zuen, eta haren ondorioek tortura noizbehinka erabiltzea onartu zuten, baldin eta irizpide espezifikoek arabera egiten bada. Batzordeak onartu egin zuen aitortpenak lortzeko atxilotuen aurkako "presio fisiko ertaina" erabiltzea galdeketa-torturaren. Hala ere, metodo horiek erabili ahal izateko, itaungileek galdeketa-teknika baimendu eta debekatuak zehazten dituzten jarraibide sekretu batzuk bete behar dituzte. Atxilotuen aurkako metodo guzti-guztien erabilaren berri ematera ere behartuta daude.<sup>66</sup> Gainera, Landau Batzordeak hiru hilabete behin metodo horiek erabiltzeko baimena eman behar zela erabaki zuen.

Landau Batzordeak ez zien eragotzi Israelgo Segurtasun Agentziaren ("ISA" edo Shabak) galdekatzaileei palestinarren aurkako tortura-delituak egitea.<sup>67</sup> Batzordeak 4/7 artikuluan adierazi zuenez, "presio-moduak batez ere presio psikologikoan kontzentratu behar dira, indarkeria fisikoan baino gehiago, trikimailu eta nahasmen teknikak baliatuz". Hala ere, artikulua berean, batzordeak presio fisiko neurritsua zehatu zuen aurreko metodoak huts egiten zuenerako.<sup>68</sup> Horrek atea zabalik uzten zuen Shabak-en galdeketa praktikei legezko estaldura emateko.<sup>69</sup> Itauntzaileek presio psikologiko eta fisiko neurritsuaren erabilera baliatu zuten atxilotu palestinarren aurkako tortura- eta tratu-mota guztiak egiteko, batez ere Landau Batzordearen txostenak ez zituelako zehaztu presio fisiko neurritsuaren parametroak, ezta zigortzeko inguruabarrak ere.<sup>70</sup> Gainera, Landau Batzordeak hertsia bidez egindako adierazpenak onartzeko aukera eman zuen. Nazioarteko komunitateak, oro har, legez kanpokotzat jotzen ditu torturapean egindako adierazpenak, baina Israelek legezkotzat eta epaitegien aurrean onargarritzat jotzen ditu, eta hori ez dator bat estatu demokratiko baten oinarriekin.

Israelek palestinarren aurka egindako tortura-krimenak dokumentatzeko eta frogak aurkezteko Israelgo epaitegietan ahalik eta tortura-kasu gehien aurkeztu nahi izan zituzten arren, Israelgo sistema judizialak zeregin erabakigarria izan zuen salaketa horiek oztopatzeko. 1994-1999 bitartean, Israelgo giza eskubideen aldeko erakunde talde batek hainbat eskaera aurkeztu zituen Israelgo Auzitegi Gorenean, ISAk atxilotu palestinarren aurka egindako tortura-jarduerei buruz. Eskaerak aztertu beharrean, Auzitegi Gorenak epaia atzeratu egin zuen eta, aldi berean, Israelgo gobernuari eskatu zion ISArek lana arautuko zuen legeria onar zezala, bere lanean interferentziak sor zitzakeen epairik eman ez zezan.

Israelgo Auzitegi Gorenak eskaerei buruzko iritzia eman zuen 1999ko ekainaren 6an, eta "bitarteko fisikoak" terminoa erabili zuen, "tortura" ordez. Auzitegiak bere epaian onartu zuen ISAko kideek atxilotu palestinarren aurka tortura zerabiltela, eta tortura metodo batzuk legez kontrakoak zirela. Epaimahaiak berriaz aztertu zituen astinduak, tortura posizionala ("shabah"n itxaronaldiak eta "igel-kokoriko" estres posizioa), eskuburdinen gehiegizko estutzea, baita loaren galarazpena.<sup>71</sup> Horiek guztiak erabiltzea debekatu zuen, musika bolumen oso altuan jartzea barne. Gainera, epaimahaiak argitu zuen metodo horiek debekatuta zeudela baldin eta atxilotuak presionatzeko galdeketa helburu bihurtzen baziren, baina baimenduak leudeke oraindik, baldin eta itaunketaren izaerak berak hala agintzen badu.<sup>72</sup>

Azken esaldiak maniobra-tartea uzten die israeldarrei debekuari iskin eginez metodo horiek erabiltzen jarraitzeko. Esate baterako, orain, itaungileei aukera ematen zaie atxilotu eskuburdinez aulkira edozein modutan lotu eta posizio horretan ordu luzez izatera, zenbaitetan baita 20 ordu luzez irauten duten galdeketa aldi osoan, "galdekatzailearen segurtasuna bermatu" eta beren aurkako edozein erasoaldi saiheste aldera.<sup>73</sup>

Auzitegiak torturaren existentzia onartu bazuen ere, ezin da salbuetsi, bazterrera utzi banandu epai berak argi berdea ematen diola "presio fisiko neurtuaren" erabilerari 1977ko Kode Penaleko 34-K artikuluan ageri den defentsa beharrak bermatzeko aitzakiapean. Horrek egoera juridiko bat sortu zuen, "operazio militarrei" buruzko informazioa zuten atxilotuen aurka galdeketa mota hori erabiltzeko aukera ematen duena. Azken batean, epaitegiaren erabakiak legeztatu egin zituen Israelgo segurtasun-praktikak, hau da, legezko estaldura eman zion Palestinako atxilotuen aurkako torturaren eta tratu ez-gizatiarraren metodoen erabilera jarraituari, operazio militarren inguruko informazioa eskuratzeko aitzakiapean. Hala ere, atxiloaldiaren ostean, maiz, argi geratzen da tortura eta tratu ez-gizatiarren mende dauden palestinarrek jarduera politikoengatik atxilotzen dituztela eta ez euren ekintza militarrengatik.

Israelek informazioa ateratzeko atxilotuen aurkako galdeketa-metodo ezohikoak erabiltzea justifikatzen duen beharraren alde egindako alegazioak tortura debekatzen duen nazioarteko zuzenbidearen izpirituen arbuio nabarmena besterik ez da. Nazioarteko hitzarmenek torturaren erabateko debekua ezartzen dute, egoera edozein delarik ere, guda-egoera barne. Hala ere, Israelek bere burua eta bere segurtasun eta behar irizpideak giza eskubideen nazioarteko babesaren gainetik jartzen ditu.

Praktika sistematiko horiek arestian aipatutako kontraesana berresten dute, izan ere, Israelek estatu demokratiko gisa aurkeztu jarraitzen du bere burua, eta, aldi berean, nazioarteko zuzenbideak argi eta garbi debekatutako krimenak egiteko justifikazioak aurkitzen ditu.<sup>75</sup> Dikotomia are gehiago zabaltzen da, Aharon Barak,<sup>76</sup> Israelgo Auzitegi Goreneko presidente ohiaren adierazpenek erakusten dutenez. Barak-ek adierazi zuen terrorismoaren aurkako gerrak terroristei galdeketa egitea eskatzen duela berez, eta hori indar fisikoa edo tortura erabiltzea debekatzen duten galdeketa-arau arrunten arabera egin behar dela.<sup>77</sup> Horri jarraiki esan zuen demokrazia batek, batzuetan, terrorismoaren aurka "esku bat bizkarrean lotua duela" borroka egin behar duen arren, lege-arauak onartu eta norbanakoen eskubide eta askatasunak aitortzeko abantaila dituela.<sup>78</sup>

Auzitegi Gorenaren 1999ko epaiaren ondorioz, eta nazioarteko komunitateak jokabide horiei buruz zuen pertzepzioak Israelgo agintariei eragiten zien kezkaren erdian, Israel torturari buruzko politikan aldaketak egiten hasi zen, tortura fisiko nabariaren erabilera murriztuz eta tortura estalia

egiteko metodoen erabilera areagotuz. Horrez gain “kanarioen” erabilera areagotu zuen aitorenak lortzeko galdeketa teknika gisa, arabieraz Asafeer (txoria) gela<sup>80</sup> moduan ezagutzen ziren geletan, zeinak beranduago berariazko sekzio izatera igaro ziren hainbat espetxe eta galdeketa zentrotan. Atxilotuak abokatu batekin biltzeko debekua nabarmen areagotu zela ikusi zen, galdekatua bakarrik utziz Israelgo autoritatearen eta Shabaken aurrean; hori sakon aztertuko da aurrerago azterlan honetan. Epe luzera argitaratzeko debekuen erabilera ere handitu egin zen. Epe-luzeko argitalpenen debekua ere nabari ugaritu zen garai berean.

### **1999 aurreko tortura kontakizun izugarriak**

2018az geroztik, 1967tik Israelgo hainbat galdeketa-zentrotan torturatu zituzten Palestinako presoek lekukotasunen artxibo batean biltzen aritu da lanean Addameer. Aske geratu zen presoetako batek, N.E. , hoguei urte besterik ez zituen 1967ko azaroaren 11n atxilotu zutenean. Sarafandeko atxiloteta militarreko zentroan itaundu zuten, eta tortura oso bortitzak jasan zituen, behin baino gehiagotan hil zela pentsatzeraino iritsi zelarik. Galdeketa, N.E.-k tentsio-posizioak hartu behar izan zituen denbora luzez, eta jipoi bortitzak eman zizkioten eta horietako batean sudurra ere hautsi zioten. Horrez gain, senideei sexu-erasoak egiteko mehatxuak egin zizkioten. Hori gutxi ez eta titiburu bat erauzi zioten aliketekin eta zigarroak itzali zizkioten gorputzean, beste hainbat praktika basatiren tartean.

H.N., 1967an atxilotua bera ere, du antzeko praktikak bizi izanaz gogoratzen da, itaunketan zehar gogor kolpatu baitzuten gorputz osoan zehar borrokan aritzeko makilekin, eskuekin eta botekin. Adierazi zuenez, itauntzaileek ozenki oihukatzen zioten denbora luzez, eta nahita ukatzen zioten loa, lo edo atsedean hartzeko ingurune desegokian jarriz, baita beste atxilotu batzuen aurkako tortura-saioak entzun araziz ere. Askotan, itauntzaileek atxilotuaren ama edo ahizpa bortxatzeko mehatxua egiten zioten, besteak beste. Gainera, behin eta berriro gogor jo zuten H.N belarrietan, batez ere eskuinekoan, eta horrek entzumena galaraztea eragin zion.<sup>82</sup>

### **1970-1989 Antzeko tortura kasuak**

60 eta 70eko hamarkadetan ez zen aurreko hamarkadetik alde handirik nabaritu. Hala ere, ageriko indarkeria fisikoa ezkutuko indarkeriara eraldatzea ekarri zuen<sup>83</sup>, Israelek atxilotu palestinarren aurkako tortura-metodo berak erabiltzen zituen bitartean. N.E.-k gogoan du 70eko hamarkadan atxilotu zutela, Israelgo galdekatzaileek eskuz eta ostikadez gogor astindu zuten gorputz osoan, eta halako batean aulki batekin jo zuten. Ordu luzez tentsiozko jarrerak hartzera behartu zuten, eta burua poltsa batez estali zioten, bularretik zintzilik zuten bitartean, denbora luzez arnasa oztopatuz. Itauntzaileek burua hormaren kontra jotzen zioten, urez ziprirtintzen zuten, oihu egiten zioten eta "armairuan" sartzen zuten; kutxa txiki horretan, atxilotua hainbat denboraz edukitzen zuten, eta ezin zen altxatu edo eseri, espazioaren mugapenengatik. E.N.-k adierazi zuen metodo horiek atxilotuen gaineko kontrol fisiko eta psikologikoa egiteko erabiltzen zirela batez ere, atxilotze-baldintza oso krudeletan ez baitituzte betetzen bizitzarako oinarritzko arauak.

H.M. preso ohiak, 1979an atxilotua, bere galdeketa gogorarazten du. Galdeketa hartan, kolpatu egin zuten eta bortxatu edo biluzteko mehatxua egin zioten. Oroitzen du senide batzuk atxilotu zituztenean, beste galdeketa-areto batean entzunarazi ziotela atxilo harturiko hainbat senideren ahotsa; geroago jakin zuen familiako kideei bidaiatzeko debekua ezarri ziotela. H.M.-k adierazi du etengabe galdekatu zutela, batzuetan 12 orduz jarraian, eta, bitartean, praktika bortitzak eta ez-gizatiarrak pairatu zituela, ez baitzioten uzten ez mugitzen, ezta ibiltzen ere. H.M.-ren arabera, atxilotuen espiritua haustea helburu zuen israeldar praktiketako bat, hainbat astez galdekatu ostean atxilotuak bere gorputzean zituen kolpe eta markak ikus zitzaizkien baten aurrean jartzea zen, honela bere gogo eta nahia birrintzeko.

Beste emakume preso ohi bat, N.K., aldi berean atxilotu zuten, eta antzeko tratua gogorarazten du. N.K.-ri tortura posizionala pairarazi zioten; izan ere, zutik egon behar izan zuten hanka baten gainean, eta poltsa bat jarri zioten ordu luzez buruan. Israelgo galdekatzaileek nahita behartu zuten



beste atxilotu batzuen min-garrasiak entzutera, beren galdeketak iraun bitartean. Behin eta berriz eskatu arren, ez zioten utzi hileroko konpresarik eskuratzen; 25 egunez baino gehiagoz ezin izan zuen dutxatu, eta begiak mintzen zizkion argi distiratsuko gela batean eduki zuten. Gainera, presio psikologikoa jasan zuen, galdekatzaileek bere familia bizitzen ari zen egoera hari leporatzen baitzioten uneoro.<sup>86</sup>

1970eko eta 1980ko hamarkadetan torturaren auziaren inguruan mundu mailako mugimendua garatu zen arren, batez ere CAT onartu zenean eta Israelgo okupazioak eragindako tortura-kasu ugari azaleratu zirenean, Israelek ez zuen amore eman eta atxilotu palestinarrek torturatzen jarraitu zuen 1980ko hamarkada amaiera arte. Are gehiago, esan daiteke Lehen Intifada funtsezko arrazoia izan zela Israelgo tortura-praktikek jarraitu zezaten palestinarrek zapaldu eta altxamenduaren txinparta itzaltzeko.<sup>87</sup> H.A. preso ohiak jasan zituen galdeketa-metodoak kontatzen ditu, hala nola, galdekatzaileek poltsa bat denbora luzez buruan jartzen ziotenean, ordu luzez tentsio-jarrerak hartzera behartzen zutenean, irainak oihukatzen zizkieten, eta bortxatu edo sexualki erasotzeko mehatxua egiten ziotenean.<sup>88</sup> Horrek erakusten du israeldar okupazioaren ankerkeria eta galdeketa zehar oinarritzko giza-beharren inguruko uneoroko axolagabekeria, atxilotu palestinarrei euren eskubideak ukatuz; baita emakume presoen beharrak arbuizatzeko jarrera ere, H.A.-ren kasuan konpresen sarrera ukatzeak erakusten duen moduan.

E.S. emakume preso ohia atxilotu palestinarren familien aurkako zigor masiboen kanpaina batean atxilotu zuten, A.S. senarra atxilo hartu ostean. Atxiloaldian, E.S. tentsio-jarrera ugari izatera behartu zuten denbora luzez, Israelgo armada presio egiten saiatzen zen bitartean beren seme-alabeak bi gurasoak espetxean izango zituztela gogoraraziz. E.S.-k halaber, kolpatu eta bortxatzeko edo sexualki erasotzeko mehatxuak egin zizkiotela aipatzen du.

## 1990-1999

1990eko hamarkada atxilotu palestinarren tortura bortitz ugariaren lekuko izan zen, A.A.-ren kasua barne. Addameerrek jasotako testigantzetan deskribatu zituen bere galdeketa jasan zituen tortura motak. A.A.-k zenbait tentsio-jarrera hartu behar izan zituen, hala nola, zutik egon behar izan zuen hainbat orduz indarge erori zen arte, besoak atzeraka kateatuta zizkieten mahai bati, behetik gora, gorputza baino gorago jarritako mahai batean, eta "armairuan" sartu behar izan zuten zenbait orduz.

A.A.-k adierazi du hainbatetan 24 orduz luzatzen ziren galdeketa saioetan mehatxu ugari jasotzen zituela; besteak beste, inoiz ez askatzea eta egoera horretan mantenduz gero betiereko gaixotasunak pairatuko zituela mehatxatzea, hala nola gerriko hernia diskala, paralisia edo eromena. Esan beharra dago A.A. izan zela astinaldiaren metodoaren mendeko presoetako bat. Teknika arriskutsu hori Israelgo Auzitegi Gorenaren 1999ko erabakiak debekatu zuen, atxilotu baten bat-bateko heriotza eragin zezakeelako garuneko kommozioa jasatean. Astinaldiaren teknikan, atxilotu bat-batean heldu behar da lepotik eta sorbaldatik eta bortizki astindu segundo batzuetan.<sup>90</sup>

A.A.-k dio Israelgo galdekatzaileek teknika hori aurrera eta atzera astinduz erabili zutela bere aurka. Praktika horren bidez, eskuak bata bestearen gainean jarri behar zituen bizkarraren atzean, metalezko eskuburdinak hezuraren gainean zuzenean jarri. Eskuburdinak, gainera, hain ziren estu, hezurak hausten zitzaizkiola sentitzen zuela. Ondoren hasi ziren astinaldiarekin, eta atxilotuak odol-fluxua blokeatuko zitzaizkiola sentitu zuen.<sup>91</sup>

1990eko hamarkadan atxilotu zuten W.R. preso ohiak, A.A.-ren antzeko esperientzia bizi izan zuen. W.R.-k gogoratzen du galdeketa egitean, tentsio-jarrerak hartu behar izan zituela galdeketa-aulkian ordu luzez, eta horrek bizkarrean, lepoan eta atzeko aldean mina eragin ziola, aulkia tamaina teta altuera txikia zela medio. W.R. lo egin gabe egon zen denbora luzez, batzuetan egun batzuez luzatu zen egoera hori. Kontatu duenez, lehenengo 28 egunak galdera-gelaren barruan igaro zituen, eta ez zioten atsedetik hartzen uzten; jan ere gela horretan egiten zuen. Hala ere, aste batzuk geroago, itauntzaileek esan zioten juduen jaiak zirela une horretan eta horiek iraun bitartean ez zutela galdetuko.

Jai judua hasi baino lau egun lehenago, galdetzaileek airea sartu eta arnasa har zezan zulo txiki batzuk zituen 1 m x 80 cm-ko armairu txiki batean sartu zuten W.R.. Bi egun bazkaldu gabe utzi zuten, eta lau egun geroago atera zuten handik, gela batean sartzeko. Gela hori, funtsean, bainu-gela bat zen.<sup>92</sup> W.R.-k urdaileko osasun-arazoren bat zuen, eta egoera zail horietan larriagotu egin zitzaion. Horrek urdaileko urradurak eragin zizkion, eta benetako esku-hartze medikoa eskatzen zuen egoerara eraman zuen. Garai hartako "erregimen faxista israeldarraren basakeria" gogoratzen du, espetxeetako funtzionarioek ez baitzituzten aintzat hartu haren min-garrasi etengabeak. Berehala ospitale batera eraman beharrean, funtzionarioek mediku bat ekarri zuten analgesiko-injekzio bat emateko; horrek denbora labur batez bakarrik arindu zuen mina. Minez garrasi egin zuenean bakarrik konturatu ziren funtzionarioak bere egoera medikoa berehalako esku-hartze medikoa justifikatzeko bezain kritikoa zela.

W.R. ospitalera eraman zuten, eta han ebakuntza-gelara eraman zuten berehala. Eskuburdinak jarrita eta mugitzerik ez zuen egoera batean izan arren, soldadu israeldar armatu bat egon zen ebakuntzak irauten zuen denbora osoan operazio-gelan. Oraindik ere gogoan du Israelgo soldadu armatuaren irudia, uniforme medikoarekin, zutik aretoaren erdian eta arma nylon-medikoaz inguratua zuela. Hori ez zen izan, ezta gutxiago ere, Israelgo krudelkeriaren amaiera; izan ere, W.R. esposatuta eraman zuten ospitaleko gela batera, eta ezin zen mugitu, baina Israelgo soldadu bat alboan izaten jarraitzen zuen; bainatzea ere debekatu zioten. Baldintza horietan, medikuak emaniko aginduak zuzenean urratzen ziren, eta, ondorioz, pazienteak ezin izan zuten komunontzia erabili anestesikoak kanporatzeko. Soldaduak bere erabakia justifikatu zuen esanez atxilotuak mugitzeko eta ospitaleko gelaren barruan zen komuna erabiltzeko baimenik ez zuela jaso.<sup>93</sup>

Addameerrek 1990eko hamarkadan torturatutako beste preso palestinar batzuen testigantzak dokumentatu zituen, besteak beste M.Q. preso ohiarena. 1999ko otsailaren 15ean atxilotu zuten eta Al-Jalameheko galdeketa-zentroan torturak jasan zituela salatu zuen. M.Q. galdeketa-zentrorira iritsi zenean tortura posizionala jasan zuela kontatzen du. Estres-egoeran jarri zuten, eskuak bizkarrean edo aurrean lotuta, hankak lotuta eta poltsa batez burua estalia zuelarik egunean bost orduz, batez beste. Behin, estres egoeran utzi zuten igandetik ostegunera, atsedetik gabe.

M.Q.-k dio oso musika altua jartzen zutela tortura posizionalean zen bitartean. Galdeketak gau osoan eta eguneko lehen orduetan izaten ziren, azken batean, loaldi erregular bat izateko aukera ukatuz. Itauntzaileek birao mordoa esaten zizkieten, eta iraupen luzeko atxiloketa administratibo batekin mehatxatzen zuten. Taktika horiez gain, bainu-gela erabiltzea edo arropa aldatzea ere debekatu zioten; Behin bakarrik dutxatu zen, ura eta xaboirik gabe gainera, 37 eguneko galdeketa. Horrez gain, M.Q.-ri bere anaia eta lagunetako bat (emakumea) atxilotu zituztela jakinarazi zioten, Megiddoko kartzelan anaia ikusi aurretik.<sup>94</sup>

### **Tortura politikak bizitza palestinarrak daramatza aurretik**

Lehenago argitu den bezala, Israelek hainbat tortura-metodo erabili ditu preso eta atxilotu palestinarren aurka urteetan zehar. Besteak beste, gorputz osoan zehar eta atxilotuen genitaletan emandako kolpe fisikoak, tortura posizional luzea tentsio-jarrerara ugaritan, ur hotza isurtzea, jazarpen fisikoa, sexuala eta hitzezko jazarpena, astinaldi bortitzak, ordu asko irauten zuten galdeketa-saio luzeak, loa ukatzea, sexu-organoetan objektu zorrotzak sartzeko, gorputzean zigarroak itzaltzea, eta atxilotuak izutzeko beste atxilotuen tortura saioak entzutera edo grabaturiko tortura saioen diskoak entzutera behartzea. Gainera, atxilotuak elektrokutatu egiten zituzten, musika oso bolumen altuan entzutera behartzen zituzten zenbait egunez jarraian, komunera joan edo arropa aldatzea ukatzen zitzaientzen, kalitate txarreko janari-anoa txikiak ematen zitzaizkien denbora luzez, eta, ondorioz, gose izugarri mantentzen zituzten.<sup>95</sup> Hori gutxi ez eta 30 egunez abokatu batekin elkartzeko debekatuta zuten, baita analisi honetan aztertu gabeko beste hainbat tortura metodo ere.

Urteetan zehar, Israelgo metodoek 79 palestinarren heriotza eragin dute, galdeketa-zentroetan jasan zituzten torturen ondorioz hil ziren guztiak. Kasu bat Arafat Jaradat martiriarena da, 30 urte

inguruko Hebron alboko Sairreko palestinarra. 2013ko otsailaren 18an atxilotu eta sei egun geroago hil zen. Jaradat Al-Jalameheko galdeketa-zentroan itaundu zuten, Megiddoko espetxera eraman aurretik; bertan hil zen.

Jaradat-en heriotzaren inguruko egoerari buruzko ikerketa bat abiatu zuten. 2014ko apirilaren 2an, nazioarteko auzitegi-mediku aditua den Dr. Sebnem Korur Fincanci-k<sup>97</sup> bere ikuspuntu profesionala aurkeztu zuen Petah Tikva magistratuaren lehen auzialdiko epaitegian. Haren arabera, Jaradat "oso jarraiki kolpatuta izan zen atxiloaldian zehar eta horrek Arnasteko Zailtasun-Sindrome Larria eragin zion, 2013ko otsailaren 23an Israelgo espetxe batean heriotzara eramango zuena." Fincanci-ren ondorioak autopsiaren datuetan eta Israelgo auzitegiko agintariak emandako auzitegiko analisisetan oinarritu ziren, baita polizia palestinarrak hileta baino lehen hartu zituen Jaradat-en hilotzaren argazkietan ere.

Saber Aloul patologo palestinarrak jakinarazi zuen Jaradat-en gorpuak kontusio larriak zituela bizkarraren goiko eskuineko aldean, eskuineko bularraren azpian kontusio zirkularrak eta eremu torazikoan aurreko aldean eta ezkerreko ukondoan eta eskuineko hezuraren erdiko aldean bestelako hainbat kolpe-marka. Aloul-ek, halaber, 4 x 9 cm-ko tamainako hematoma ikusi zituen ezkerreko sorbaldaren gainean, muskulu paraespinalaren barneko hematoma lepoaren azpiko aldean eta bertako ehunen barruan, 4x10 cm-ko larruazalpeko kontusioa eskuineko alde torazikoan, bigarren eta hirugarren saihetseko hausturak aurreko alde torazikoaren inguruan, eta hematoma bitalak hausturen inguruan. Aloul-ek jakinarazi zuen hematoma guztiak oso berriak zirela, jasaniko tortura basati eta zuzenaren bortitzen emaitza.<sup>98</sup>

Fincanci-ren txostenaren arabera, berehalako heriotzaren arrazoia Arnasteko Zailtasun-Sindrome Larriak eragindako biriketako edema bat izan zen. Bi datuak "oso koherenteak dira-euren artean-aldez aurreko lesioak gertatu ziren unean, hil baino 1-3 egun lehenago, kokatu beharko lirakeelako".<sup>99</sup> Beraz, Fincanci-ren ondorioek Israelen eta bertako auzitegiko medikuen argudiaketa kontraesaten dute. Horien iritziz Jaradat-en heriotza arrazoi naturalak tarteko izan zen, forentse palestinarrak, kontrara, torturen ondorio izan zela argudiatzen duen bitartean.

Jaradat torturak eragindako lesioengatik hil ziren dozenetarikoa bat besterik ez da. Israel heriotza hori etengabe ezkututzen saiatu da, estatuko hainbat erakunderen eta gobernuaren estamentu ezberdinen laguntzarekin. Palestinako zein atzerriko auzitegiko mediku adituek ondorioztatu zuten Jaradat-en heriotza torturaren ondorio izan zela. Hala ere, Israelgo auzitegiko mediku txostenak ez zituen aipatu ere egiten gorputz osoa estaltzen zioten hematoma eta kausa naturalengatik hil zela ondorioztatu zuten.

Atxilotu palestinarrak heriotzeraino torturatzea ez da israeldarren nazioarteko konbentzio eta ohituren bortxaketa bakarra. 1984an, Palestinako herria "Autobus 300" deituriko erasoaren lekuko izan zen. ISAKo (Shabak) kideek gerra-krimen bortitza egin zuten bi atxilotu palestinarrak odol hotzez erailez. Atxilotuak eskuburdinez lotuak zeuden, Shabakeko indarrek harriekin, borrekin, errifleekin eta pistolen kulatekin garezurra suntsitu arte kolpatzen zituzten bitartean. Erail zituzten arte ez ziren gelditu, euren basakeria lotsagabea agerian utziz.<sup>102</sup>

1984ko apirilaren 12an, Gazako Zerrendako Palestina Askatzeko Fronte Popularreko (FPLP) lau kidek Tel Avivera zihoan autobus israeldar bat bahitu zuten, presoan askapena negoziatzeko truke-txanpon gisa. Israelgo okupazioarekin izandako negoziazioek 14 ordu baino gehiago iraun zuten, Israelgo indar berezietako unitate bat autobusean sartu zen arte; Jamal Qabalan, Abasan herriko 18 urteko gaztea eta Mohammad Abu Barakah, Bani Suheila herriko 18 urteko gaztea, hil zituen. Subhi eta Majdi Abu Jumma, Bani Suheilako 18 urteko gazteak biak ala biak, atxilotu eta, ondoren, odol hotzez hil zituzten.

Hurrengo egunean, Israelek bahitu guztien askatasuna, emakume israeldar baten heriotza, hainbat zauritutako bidaiari eta lau bahitzaile palestinarren heriotzaren iragarpena egin zuen autobusean indarrez sartu osteko balantze gisa. Iragarpenaren ondoren, Hadashot egunkariak memoria txartela galtzerdian ezkutatu zuen argazkilari baten argazki bat argitaratu zuen. Bertan, Subhi eta Majdi Abu

Jumma bizirik eta eskuburdinez lotuak direla ageri dira. Argazkiak Israelgo indarrek bi kideak lekuan bertan exekutatu zituztela frogatzeko balio izan zuen.<sup>103</sup>

Gertakari horretatik hamar egunera, Zoreako Ikerketa Batzordea sortu zen Subhi eta Majdi Abu Jummaren hilketa ikertzeko. Hegoaldeko barrutiko Shabakeko Arabiar Gaietako Departamentuko buruak batzordearen aurrean adierazi zuenez, "Ehud Yatom buruak agindu zigun odol-jarioan ziren bi gizonak ohatilarik gabeko ibilgailu batean sar genitzan. Ibilgailuko zorura bota genituen eskuburdinez loturiko gorpu gisa. Askalango kartzelarantz abiatu ginen, barrez lehertzen gindoazen bitartean. Lurra odolez estalita zegoen, eta ospitalera joatea erabaki genuen; une horretan, hilda zeudela pentsatu genuen. Medikuak bi gizonek buruan zituzten zauriak eta ibilgailuko odol-putzua ikusi zituenean esan zuen ezin zela ezer egin haiek salbatzeko."<sup>104</sup>

Esan beharra dago orduko fiskal nagusi Yitzhak Zamir-ek gertaerari buruzko ikerketa penal osoa irekitzeko eskatu zuela. Hala ere, Israelgo gobernuak gertatutakoaren egia ezkututzen saiatu zen. 1984ko ekainaren 1ean, Zamir bere kargua uztera behartu zuten. Hilabete bat geroago, Israelgo presidentek indultu orokor bat eman zien palestinarren hilketan parte hartu izanaren susmopean ziren 4 pertsoneri.

Israelgo gobernuak delitua ezkutatzeko egin zituen ahaleginen artean, galdekatzaileek polizia buruei eta epaileei lekukotza faltsuak ematea izan zen.<sup>105</sup> Presidentziaren indultua bertan behera uzteko eskaera bat aurkeztu zen arren, Israelgo Auzitegi Gorenak atzera bota zuen eskaera, esanez presidentek bere ahalmenen barruan jarduten zuela delitugileei barkamena eskainiz. Zamir ez zen bere kargua utzi behar izan zuen pertsona bakarra izan; une hartan Gobernuaren bertsioaren aurka zegoen edonor edo hilketa horiek sakonago aztertzeke presioa egiten zuen edonor kaleratu zuten.

Gertaera hartatik hogeitaz urtera, Yedioth Ahronoth egunkariak "300 autobusa" izendaturiko gertakariari buruzko Shabaken krimenak aztertzeke mintegi baten xehetasunak argitaratu zituen. Gertakarian parte hartu zuten guztiak joan ziren mintegira, Avraham Shalom, palestinarren atxiloketa agindu zuen Shabakeko buru ohia barne. Shalomek adierazi zuen garai hartako lehen ministroak, Yitzhak Shamir-ek, hilketa-agindua onartu zuela. Bestalde, Rafi Malka, Peleg Radai eta Reuven Hazak Shabakeko goi-kargudun ohiek Israelgo sistema judizial eta politikoaren babespean zerbitzuan egindako hilketa operazio ugari aipatu zituzten.<sup>107</sup>

Mintegiaren une gogoangarri bat Dorit Beinisch epailearen hitzartzea izan zen: "egiaren aurkako gerra dago. Presiopean gintuzten, zelata eta jazarpenaren biktima izateraino". Azpimarratu zuen gezurren eta estalketen politikak gaur egun arte jarraitzen duela; izan ere, Shabak-ek praktika berak aplikatu zituen Intifadan. Epealdi horretan hainbat pertsona hil zituzten galdeketak egiten zituzten kalabozoetan. Gertaera horien egia ez zen inoiz argitu, Israelgo komunikabideek egia ezkutatzeko duten politikagatik, besteak beste.<sup>108</sup>

### **1999 ostein: oinarrian, jokamolde israeldarrak berdina izaten darrai**

Israelgo torturaren statu quoak urteetan jarraitu zuen, Firas Tbeish eta Asad Abu Ghosh kasuak argitara atera ziren arte. Abu Ghosh, 2007an atxilotua, torturatu egin zuten eta tratu krudelak eman zizkioten Shabakeko galdekatzaileen eskutik. Kalte fisiko eta psikologiko larriak eragin zizkioten, eta jipoitu, hormaren kontra kolpatu, hatzak tolestu, loa galarazi, tortura posizionala pairarazi estres-jarrera ugaritan egotera behartuz eta mehatxatu egin zuten.

Israelgo Torturaren aurkako Batzorde Publikoak eskaera bat aurkeztu zion Israelgo Auzitegi Nagusiari 2012an. Bertan fiskal nagusiari ikerketa penala irekitzeko eta Abu Ghosh torturatu zuten israeldar galdekatzaileak prozesatzeko eskatu zuen. Fiskaltzak baieztatu egin zuen itauntzaileek "presio-bitartekoak" erabili zituztela Abu Ghosh-en aurka, baina fiskal nagusiak adierazi zuen kasuak ez zuela galdetzaileen aurkako ekintza penalak abiarazteko nahikoa indar.<sup>109</sup>

2015ean, Abu Ghosh-en espedientea ikerketarik gabe ixteko arrazoiak azaltzeko eskatu zion Auzitegi Nagusiari fiskal nagusiari. Erantzun gisa, fiskal nagusiak txosten bat aurkeztu zuen, eta

bertan adierazi zuen galdeketa egiteko baliabide bereziak erabiltzea, 1977ko Israelgo Zigor Kodearen 34. artikuluan inskribatutako "defentsa beharren" baitan kokatzen zela. Arrazoiketak aztertu ondoren, Auzitegi Nagusiak epaia eman zuen 2017ko abenduaren 12an. Bertan epaileek adierazi zuten Abu Ghosh-en aurka egindako "presio-bitartekoak" ez zirela tortura-modutat hartzeko modukoak, eta, kasu horretan, defentsa beharrek justifikatua zela, egoera segurtasun publikoaren eta informazio militar arriskutsuaren baitakoa baitzen.<sup>110</sup>

Abu Ghosh-en ondoren, Firas Tbeish-en kasua atera zen argitara, 2012an atxilotu eta Shkimako (Askalan) galdeketa-zentroan galdeketa egin ostean. Shabakeko itauntzaileek torturatu egin zuten eta tratu krudelak jasanarazi zizkioten. Itauntzaileek ukabilkadak eta zaplaztekoak eman zizkioten Tbeish-i aurpegian, tentsio-jarrerak hartzera behartu zuten eta loa galarazi zioten. Tbeish-ek salaketa bat aurkeztu zuen Israelgo Torturaren aurkako Batzorde Publikoko abokatuen laguntzaz. Hala ere, salaketa artxibatu egin zen, itaungileen immunitate legala zela-eta. Batzordea saiatu zen Justizia Auzitegi Nagusiari bigarren eskaera bat aurkezten Tbeish-en espedientea irekitzeko, baina auzitegiak atzera bota zuen eskaera 2018ko azaroaren 26an.

Asad Abu Ghosh eta Firas Tbeish kasuak arretaz aztertu ondoren, hainbat galdera sortzen dira. Tbeish-en kasua ez zen izan atxilotuen aurkako torturaren erabilera justifikatzeko maiz erabiltzen den "erloju-bonbaren" agertoki klasikoaren adibide bat. "Erlorju-bonbaren" agertoki batek informazioa behar du, berehalako erasoan edo eskualdeko segurtasunaren aurkako mehatxuen berri emateko; Tbeish-en aurkako kargu nagusiak, ordea, armak edukitzea eta "erakunde debekatu" bateko kide izatea ziren. Tbeish-en kasuan, epaileek beharrezkotzat jo zuten erlorju-bonbaren agertokiari buruz ezarritako definizioak zabaltzea eta ohiz kanpoko galdeketa-teknikak erabiltzea justifikatzen duten defentsa beharra arrazoitzea, nahiz eta kasu horretan ez zegoen "berehalakotasunaren" elementua, hau da, berehalako operazio edo atentatuak gertatzeko justifikazioa. Epaileek esan zuten Tbeish-en kasuak berehalako mehatxu larri baten ziurtasuna adierazten zuela, eta horrek ez zuela metodo alternatiborik uzten gaia tratatzeko.<sup>111</sup>

Bestalde, Abu Ghosh-en kasua aztertuz, Israelek aipatu justifikazioa palestinar gehiagorengan erabili ahal izateko definizioa bera egokitzeko taktika ez ote darabilen pentsatzera eraman lezake irakurlea. Israelgo sistema judizialak definizioei eta kontzeptuei heltzen die, eta zabaldu edo murriztu egiten ditu, kasu zehatz bakoitzera egokitzeko. Hori dela eta, oso zaila da Shabakeko galdekatzaileak krimen horiez prozesatzea, are, ezinezkoa ez bada. Gehienetan, defentsa beharra aipatzen da, eta horrek tortura-praktiken arduradunek euren erantzukizunei aurre egitea oztopatzen du. Zehazki, 1992an, Israelgo gobernuak sistema berezi bat sortu zuen Shabaken aurka aurkeztutako tortura eta tratu txarren salaketak aztertzeko.<sup>112</sup>

Orain arte Israelgo Torturaren aurkako Batzorde Publikoak galdeketetan izandako 1.200 tortura-salaketa baino gehiago aurkeztu ditu. Hala ere, salaketa horietako gehienak, guztiak ez badira, artxibatu egin ziren ekintza penalik edo prozedura judizial errealik gabe, "defentsa beharren" edo "behar adinako frogarik ez izatearen" aitzakiarekin.<sup>113</sup>

Horrek agerian uzten du mota horretako kasuei aurre egiten dieten estatu guztiek hiru taktika klasikoetako batera jotzen duela tortura-kasuei aurre egiteko. Lehenengo taktika tortura erabat ukatzea da, estatuak tortura zantzuak adierazten dituen edozein froga edo informazio ukatzen baitu. Bigarren taktikak justifikazio alternatiboak eskaintzen ditu; izan ere, adierazten dutenez, ekintza horiek ez dira "diruditen bezalakoak", hau da, tortura kasuak "presio fisiko ertaina" erabiliz eginiko galdeketatzat deskribatzea. Hala ere, ekintza baten etiketa edo izendatzea aldatze hutsak ez du aldatzen torturaren errealitatea. Hirugarren eta azken taktika ekintza horien justifikazio osoa da, defentsa beharrek arrazoituriko neurri berezi justifikatuen aitzakiapean.<sup>114</sup>

## **IV. KAPITULUA**

**Atxilotuei eragindako tortura fisiko eta psikologikoa (espetxe israeldarretako galdeketa metodoak)**

Gizakiarentzat ez dago deskriba ezin dezakeen eta bere kausa edo jatorria identifika ezin ditzakeen zapalkuntza eta agonia sentitzea baino gauza zail edo ankerragorik. Ziurgabetasunak jazarpenarekin bat egiten duenean sentitzen den giza duintasunaren galera eta babesgabetasuna dira. Ez da soilik munduak bazterrean utzi izan bazintu bezala sentitzea, baita zure hizkuntzak traizio egin izan balizu bezala. Ez baitzara gai zure mina deskribatzeko, min hori identifikatzeko edo agoniako min aiene bat adierazteko ere-aske den edozein ulertu eta errekonozitzeko gai den min aienea, halaber.

Waleed Doqqa, preso palestinarra 1948az geroztik

Israelek atxilotu palestinarrak tortura fisiko eta psikologikoko galdeketa-metodoen pean jartzen ditu, hala nola, jipoiak, tortura posizionala, loaren galarazpena, irainak eta garrasiak, etengabeko mehatxuak, beste kide batzuen aurkako torturak ikustera edo entzutera behartua izatea eta beste hainbat teknika erabiliz. Addameerrek ikerketa-aldian (2019ko urtarriletik 2020ko ekainera) dokumentatutako galdeketa-metodo nagusiak aztertzen ditu kapitulu honek.

### **Jipoiak zein jipoi larriak**

Israelek atxilotu palestinarrak gehienek aurka darabiltza jipoiak. Ia ezinezkoa da kolpatu ez duten atxilotuei buruz hitz egiten entzutea, izan galdeketa, atxiloketa nahiz galdeketa edo atxiloketa zentro batera lekualdatzean. Addameerrek atxilotu palestinarrak atxiloketa, lekualdatzean edo galdeketa zentroan jipoituriko 30 kasu baino gehiago dokumentatu zituen 2019ko urtarriletik 2020ko ekainera bitartean

Dokumentatutako kasu bat W.S. atxilotuarena izan zen. Ezkerreko eskuan haustura bat eragin ziotela gogoratzen du, Israelgo armadako unitate batek etxeko atea eraitsi eta 5:30ean bere etxea eraso zuenean. Soldaduek W.S.ren anaiari ere eraso egin zioten sarekada horretan, bizkarrean haustura bat eraginez.

Atxiloaldian plastikozko hiru eskuburdinekin lotuta egon arren, soldaduek besoak minez tolestu zizkietela eta bultzaka ibili zutela oroitzen da W.S.. Honela darrai: "une jakin batean, oinez nindoala, harriak bota zizkieten israeldar indarrei eta hauek korrika hasi ziren ezkututzen zirenen bila. Nahita bultzatzen ninduten hormen kontra indar handiz, eskuak nire aurrean loturik nituela. Behin baino gehiagotan egin zuten, eta gero eta min handiagoa sentitu nuen". Soldadu israeldarrek arbuiatu egin zuten W.S.ren mina. Atxiloketaren hasieratik ezkerreko eskuan mina zuela esan esan arren, soldaduek ez zuten arindu W.S.-k esketan sufritu zuen indarkeria maila.

Geroago, W.S. Etzisioneko atxiloketa-zentrora eraman zuten, eta han bost orduz utzi zuten eguzkipean, mina zuen bitartean, eta ez zioten komunera joaten utzi. Ezkerreko eskua puztu eta urdin jarri zenean, Shaare Zedek ospitalera eraman zuten, eta han agerian geratu zen hautsita zegoela. W.S.-k honela dio: "eskaiola bat jarri zidaten eskuan, eta Al-Moscobiyehko galdeketa-zentrora eraman ninduten. Han hasi ziren ordu luzez galdekatzen". Oro har, ikusten da atxilotu palestinarren aurkako indarkeria-politikak ahalik eta min handiena eragitea helburu duela. S.A., itaunketan zehar hainbat saihests-hezur puskatuta zizkieten atxilotuak gogoan gelditu gabe saihestsetan kolpatzen ari zitzaizkion bitartean nola entzuten zen hauen hausturaren soinua.

Addameerrek "telefonoaren metodoa" dokumentatu zuen S.A.-ren galdeketa. Telefono honek belarri bat edo biak bortizki astindu eta burrunba eragiten du belarrietan. Burrunba horrek luze iraun dezake.<sup>115</sup> Metodo horrek ondorioak utz ditzake epe luzera, besteak besta, S.A.-k ezkerreko belarrian burrunba bat izaten jarraitzen baitu jasoriko kolpeen ondorioz. Txosten medikoek erakusten dute S.A.-k entzumenaren %50 galdu duela belarri horretan.

### **Estresa eragiten duten zenbait tortura posizional**

Shabakeko galdekatzaileek tortura-postura pairarazten diete galdekatzen dituzten atxilotu gehienei. Tortura posizionalaren iraupena aldakorra da; izan ere, atxilotu batzuei tentsio-jarreretan egon behar izatera derrigortzen dituzte zenbait orduz, beste batzuk, berriz, hamar orduz baino gehiagoz edukitzen dituzte. Era berean, tortura posizionalaren larritasuna aldatu egiten da; izan ere, atxilotu gehienek tentsio-jarrerak hartu behar dituzte galdeketa-aulkian, eskuak bizkarrean lotuta dituztela; beste batzuen aurka, berriz, teknika bortitza erabiltzen dituzte, hala nola, makurtuta mantentzea edo banana posizioan egotea.

Atxilotu palestinarren aurka darabiltzaten estres-posturen artean, honako hauek daude: izterreko muskuluetan min handia eragiten duen irudimenezko aulkiaren jarrera; izterondoaren jarrera, bizkarreko eta oinetako mina eragiten duena; eskuak bizkarrean lotuta mantentzen duten



kokoriko jarrera, sorbaldak, besoak, belaunak eta oinak mintzen dituen; bola kateen jarrera, bizkar, beso nahiz lepoko mina eragiten duena; eta zenbatezin diren beste hainbat postura.<sup>117</sup>

S.T.-k osasun-arazoak izan zituen galdeketa egiteko aulkian mugitzeko espaziorik gabe luzaroan torturatu zelako. S.T.-k honokoa gogoratu hau: "galdeketa egiteko txandakatzen ziren itauntzaileek bazekiten hemorroideak nituela. Batzuek ikusi zuten odola borborka ateratzen zitzaidala, baina ez zien axola". J.D. presoak hernia diskalak ditu L3-L4 eta L4-L5 orno-segmentuetan, lerro berean. Hala ere, itaungileek lurrera bota zuten, eskuak bizkarrean segmentu horien parean bertikalki lotuak zituela torturatzaileetako bat bere sabelaren gainean esertzen zen bitartean, bizkarrean presio handiagoa eragiteko helburuz. Praktika horrek J.D.-rengan min izugarria eragin zion une hartan, eta are okerragoa dena, min iraunkorra utzi dio bizkarrean eta lepoan azterketa hau argitaratu den unera arte.

Shabak israeldarraren tortura eta tratu-txar metodo horiek ez dira Addameerrek dokumentatzen dituen bakarrak, baina galdeketa gehien errepikatzen diren praktikak jasotzea izan da xedea. Beste teknika batzuk ilea burutik eta bizarretik erauztea, atxilotuen gorputzean zigarroak jartzea eta elektrokuzioa dira.

## LOA GALARAZTEA

Loa galaraztea tortura metodo bat da, atxilotua fisikoki eta mentalki higatzea helburu duena, eta erabateko menpekotasuneraino agortzea informazioa eman edo aitortpenak egin ditzan.<sup>118</sup> Azterlan askok adierazten dute loa galarazteak garunari eragiten diola, eta horrek narriadura kognitiboa eragiten duela, informazioa eta oroitzapen okerrak sorrarazten dituela eta arreta falta, oroimena, arrazoitze logikoa eta erabakiak hartzeko eta aztertzeko gaitasuna galarazten dituela. Nahiz eta ez dagoen definizio unibertsalik lo galaraztearen inguruan, nazioartean adostasuna dago, oro har, loaren patroia osasuntsu eta erregularrak zazpi orduz jarraian eginiko loa dela.<sup>119</sup> Adibidez, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak (TEDH) adierazi zuen ezin zela tortura argudiatu atxilotuei sei orduz jarraian lo egitea onartzen zaien kasuetan.

Loaren gabeziari aurre egiteko orduan, funtsezkoa da loaren etena edo zatikatzea ere aztertzea; izan ere, atxilotu asko beren lo-zikloak eteteaz kezkatzen dira itaunketa-zentroetan. Hori hainbat faktoreren ondorio izaten da, hala nola, atxilotuak tenperatura altuegi edo baxuegitan jartzea, zaratekin esnaraztea, gainezka egin duten espazioetan edo isolamenduan kokatzea, eta lo egiteko gaitasuna eragozten duten beste faktore asko nahita sorraraztea.<sup>120</sup>

Ikerlanak iraun zuen bitartean, Addameerrek dozenaka kasu dokumentatu zituen. Kasu horietan, atxilotuei ordu luzez iraun zuten galdeketa egin zizkieten, eta, denbora horretan, loa galarazia zuten, noski. Loan etenaldiak izateko baldintza bereziak sorraraztea zen beste tekniketako bat. Hori, normalean, atsedendietan atxilotuak galdeketa-saioen artean biltzen ziren gelaxketan hasten zen. Gelaxka horiek argi distiratsuak edo erabateko iluntasuna izaten zituzten, atxilotuei lo egitea eragozten ziena. Prozesuaren beste pausuak atxilotuak mantentzen zituzten geletako paretak testura latza izatea zen, honela beraien kontra jarriz atsedendietan hartzea zailduz. Dozenaka atxilotuak salatu dute horrelako geletan giltzapetu zituztela eta, ezinezkoa ez bazen ere, hormen aurka jarrita lo egitea zailtzen zuela, batez ere lo egiteko oherik ez zegoelako. Kontuan hartu behar dugu Giza Eskubideen Europako Auzitegiak Greziaren aurkako Dougoz kasuan emandako epaia, non epaimahaiak erabaki baitzuen atxilotu bat superpopulatuak gelaxka batean edo koltxoi egokirik ez duen gelaxka batean jartzea loaren galarazteko teknikatzat har litekeen.<sup>121</sup>

"Loa falta nuen", gogoratu du S.J. emakume presoak. "Gelan nengoela ia 15 minutuz behin kolpatzen zuten atea, zerbait behar ote zuen jakiteko aitzakiarekin, gaez batez ere". Baldintza horiek berez nahikoak dira loa zailtzeko, baina Shabakeko galdetzaileek nahita egiten diete galdeketa atxilotuei ordu luzez, loa galarazi eta erloju biologikoak desdoitzeko.

Addameerrek dokumentatutako kasuen arabera, loaren gabezia gero eta politika erabiliagoa bihurtu da atxilotu palestinarren aurka. Teknika honen helburua da aitortpenak lortze aldera atxilotuak

fisikoki eta mentalki agortzea, dela tortura fisikoaren ondorioz, dela loaren gabeziak eragindako haluzinazioen eta delirioen ondorioz. Loaren gabeziak bigarren mailako ondorio komunak ditu, besteak beste, neke orokorra, kontzentratzeko eta argi hitz egiteko zailtasunak, delirioa, letargia bizia, urruntze soziala eta gorputzeko tenperaturaren murrizketa.<sup>122</sup>

## **GIZA BEHARREN UKAZIOA**

Galdeketetan, atxilotu palestinar askori beren giza beharrak ukatzen zaizkie, baita komunaren erabilera ere, haiek presionatzeko eta beren beharrak asetzearen truke aitortpenak aterarazteko. Addameerrek Israelgo galdekatzaileek atxilotuei beren giza beharrak ukatu zizkien 10 kasu baino gehiago dokumentatu zituen, besteak beste A.A.-ren kasua. Hark gogoan du galdekatzaileek ez ziotela urik ematen, ez ziotela bainua erabiltzen uzten eta Koranaren ale bat izatea ere ukatu ziotela. A.A.-k komunera joateko eskatzen zuen bakoitzean, galdetzaileek honela erantzuten zioten: "Orain amaituko dugu, bertara joan zaitez", presioa eginez, bainua erabiltzearen truke aitortu zezan.

Kasu bereziki ankerra izan zen H.K. atxilotuarena. Atxiloketaren lehen egunean komunera joatea debekatu zioten. Berak dio: "Behin eta berriz eskatu nuen komuna erabiltzeko, batez ere atxilotu nindutenetik erabili ez nuelako. Hala ere, inoiz ez nuen erantzunik jaso". Itaungileak galdeketa-aretoa utzi ondoren, H.K.-k ezin izan zuen gehiago jasan, eta gainean egin zuen pixa. Horren ostean hauxe gehitu zuen: "Nik neuk komunera joateko hiru bider eskatu nion galdekatzailea gelara sudurra estalita sartu zen "zein lotsagarria den zu bezalako emakume heldu batek gainean pixa egitea" esanez".

### **Atxilotuak: Garrasien bidezko umiliazioa, biraoak, tu egitea**

Itauntzaileek atxilotuak degradatu eta umiliatu egiten dituzte galdeketetan, oihu eta irainak eginez, batzuetan baita tu eginez ere. Azterketa honetan zehar, Addameerrek gutxienez oihu artean izan zituzten 20 atxiloturen kasuak dokumentatu zituen, baita haien edo haien familien kontrako irainak esan zizkieten 25 atxilotu ere kasu ere. Gainera, Addameerrek hainbat kasu dokumentatu zituen, non atxilotuek galdetzaileek tu nola egiten zieten deskribatu baitzuten.

K.K. atxilotuak oroitzen du: "itauntzailea nire parera hurbiltzen zen eta bere aurpegia nirearen pare jartzen zuen modu probokatzailean garrasi egiten hasi aurretik. Galdetzaileak tu egin ohi zidan garrasi egiten zidan bitartean; ia beti jan ondoren egiten zuen, beraz, nire aurpegia listuz eta janari-partikulez estalita geratzen zen; ikaragarria eta nazkagarria zen. Galdetzaileak behin eta berriz egiten zuen, beti bere aurpegia nire aurrean mantenduz, bere sudurrak nirea ukitzen zuen distantzia laburrean. Atzera botatzen saiatu arren, ez zuen inoiz funtzionatzen".

### **Atxilotuak beste pertsona batzuen aurkako galdeketak ikusi edo entzutera behartzea**

Addameerrek elkarrizketatutako atxilotu palestinar askok adierazi dute Shabakeko galdekatzaileek beste pertsona batzuk nola torturatzen zituzten entzutera behartzen zituztela; batzuetan lagun bat edo senide bat nola torturatzen zuten ikustera ere behartzen zuten.

K.K.-k gogoratu du: "nire burutik ezin nituen erauzi Q.R. eta, geroago, M.-ren garrasiak; une horretan, presioa areagotu egin zen emakume baten ahotsa entzun bainuen. Zaila eta mingarria zen negarrak eta garrasiak etengabe entzutea. Itaunketaren beraren presioa eta garrasi eta ahotsen presioa senti nitzakeen, etengabeko estres, distrakzio eta kezka iturri baitziren. Itauntzaileek M. entzutera behartzen ninduten, hizketan eta negarrez ari zela. Egun osoa ninduten bulegoan oihuak entzuten. Behin, komunera joatean, odol eta ile putzu handi bat aurkitu nuen lurtean".

Bere esanetan, galdeketa izandako torturaren eta tratu txarren ondorioz, ezin zen mugitu, eta komunera joateko eskatzen zuen bakoitzean gurrpil-aulki bat eskatzen zuen. Halako batean, gurrpil-aulkia uzteko eskatu zion arduradunari, baina beste lau lagun omen zeuden hura erabiltzen.

K.K.-ren esperientziak Israelgo indarrek atxilotuengan eragiten saiatzen diren izua islatzen du, bai ezagutzen dituzten beste pertsona batzuei tortura edo tratu txarrak nola egiten zaizkien entzutera behartuz, baita torturaren osteko ondorioak jasaten dituzten beste atxilotu batzuk aipatuz; denak gurpil-aulkia erabiltzera behartuta daudela gehituz. Trauma horiek arrasto sakona eta mingarria uzten dute atxilotuengan denbora luzean.

Atxilotuek hainbat presio mota jasan behar izaten dituzte galdeketetan. Horien artean, honako hauek nabarmentzen dira: etxebizitzak eraisteko etengabeko mehatxuak, Jerusalemgo biztanleen bizileku iraunkorraren estatutua ezeztatzea, atxiloketa administratiboa, atxiloketa luzea, bizi osoko espetxe zigorra, senideen atxiloketa, atxilotuei edo haien senideei bidaiatzeko debekua ezartzea, galdeketa militarrek egitea eta beste hainbat.

A.H.-k Addameerren abokatuaren bisita batean esan zion itauntzaileek mehatxu egin ziotela bera eta haren familiaren aurka joko zutela etorkizunean eta galdeketa militarpean mantenduko zutela. "Niso galdetzaileak esan zidan sabeleko erraiak aterako zitzaizkidala eta baraila puskatuko zidatela", gogoratu du. Itauntzaileek S.T.-ri eginiko antzeko mehatxuak iragarri zizkioten eta galdeketa militarpean zeuden atxilotu ugari ikustera behartu zuten, haien oihuak entzutera behartuz eta galdeketa amaierrarako paralitiko geratuko zirela esanez. S.T.-ri esan zioten zorte bera izango zuela aitortzen ez bazuen.

Froga ugari daude Israelgo galdekatzaileek atxilotuen aurka mehatxuak egin dituztela agerian uzteko; izan ere, Addameerrek 30 kasu baino gehiago dokumentatu ditu, atxilotuek modu batera edo bestera mehatxatu zituztela baieztatzen dutenak. A.Q.-k dio galdekatzaileek bi egun lehenago erditu zen emaztea atxilotzeko mehatxua egin ziotela, hark sare sozialetan egindako argitalpenek aukera ematen baitzieten hura atxilotzeko. A.H.-ren kasuan, galdetzaileek jasandako torturen ondorioz ospitalera eraman zuten preso baten bideo bat ikusarazi zioten, A.H.-k aitortu eta antzeko amaiera saihestu zezan mehatxatu eta presionatuz.

Batzuetan Israelgo okupazio-indarrek familiako kideak atxilotzeko mehatxuak betetzen dituzte, atxilotuaren familiako kide bat atxilotuz edo deklaratzera deituz. Horrek mehatxuen tonua aldatu egiten du une horretan galdeketapean diren senideak pairatzen ari diren kaltea geratzean oinarritzen delarik galdeketa mehatxu nagusia. A.M.-k gogoratu du: "emaztea eta gurasoak ekarri zituztela esan zidaten eta itaundu egin zituztela. Horietako batek nazkagarriki esan zidan "banandu egingo zaituztegu"". Era berean, A.F.-k dio: "semea atxilotu zutenean, galdekatzaileak berehala erakutsi zidan bere argazkia telefonoan, eta atxilotuta zegoela esan zidan. Bi edo hiru aldiz behartu ninduten hura ikustera galdeketa militarrek iraun zuen bitartean, eta behin eta berriz esan zidaten nire erruagatik atxilotu zutela. Jerusalemgo nortasun-agiria kendu, lanetik bota eta anaia zaharrena atxilotzearekin ere mehatxatu ninduten".

Mehatxuak truke-txanpon bihurtzen dira maiz; izan ere, galdekatzaileek estortsio egiten diete atxilotuei, senideei minik edo galderarik ez egitearen edo atxilotuak izan diren kasuan haiek askatzearen truke aitortu dezaten. R.K.-ren kasua praktika horren adibide paradigmaticoa da, R.K.-ren laguna, batez ere, hari presioa egiteko atxilotu baitzuten. Addameerren abokatuari jakinarazi zion galdegileak aitorten bat negoziatzen saiatu zirela haren askatasunaren truke.<sup>125</sup>

### **Trikimailu eta engainuak**

Israelgo indarrek informazio faltsua ematen diete atxilotuei, eta senide bat atxilotu dutela sinestarazten diete. Ezagutzen dituzten pertsonen heriotzari buruzko albisteak ematen dizkiete, baita atxilotuak presionatzea helburu duten beste engainu mota batzuk ere, informazioa edo aitortenak ateratzeko.

Iaz, Addameerrek hainbat kasu dokumentatu zituen, non Israelgo galdekatzaileak atxilotuak engainatzen saiatu ziren, eta istorio faltsuak sinetsarazi zizkieten, hala nola senide baten atxiloketa. Egia esan, senide hori galdeketa-zentrora deitu zuten soilik.

Azterketa hau egitean, Q.S.-k Addameerren abokatuari azaldu zion galdetzaileek bideo bat egin zutela. Bideo horretan, Israelgo indarrekin izandako liskarren ondoren lagun bat martiri gisa aurkezten zuten. Geroago, Q.S.-ren aitoren bat lortzeko egina zela ikusi zen, bideoan agertzen zen laguna itaunketa-zentro berean atxilotuta baitzegoen aldi berean.

2019an, Shabaken estratagemek norabide berria hartu zuten, atxilotuen familien argazkiak erabiltzen hasi baitziren atxilotuei haien absentzia gogorarazi eta presio egiteko. B.R.-k zehazten du: "Egunero galdeketa gela berri batera eramaten ninduten, baina etengabe jartzen zituzten nire familiaren argazkiak horman. Argazkiak galdeketa areto berri bakoitzera eramaten zituzten. Nire gurasoen, osaba-izeben, ahizpa hilaren eta hilobiaren argazkiak jarri zituzten. Ia 50 argazki zeuden zintzilik galdera-gelaren horman".<sup>126</sup>

Israelgo estratagemak atxilotuak presionatzeko familiakoak erabiltzetik haratago doaz, atxilotuek lur jo dezaten familiarentzat eta auzokoentzat zama besterik ez direla sinestarazten saiatzen baitira uneoro. Addameerrek hainbat kasu dokumentatu ditu non galdetzaileek atxilotuak euren ingurukoan egoeraren erruduntzat jo nahi baitzituzten, sinestarazi nahi izaten diete erresistentzia-ekintzek ondorio kaltegarriak izango dituztela beraientzat eta ingurukoentzat. M.A. atxilotuak honela dio: "Nire etxea eraisteko mehatxua egin zidaten eta nire inguruan bizi diren guztien bizileku-baimenak baliogabetuko zituztela esan zidaten. Esan zidaten, ondorioz, egoiliar guztiek madarikatuko nindutela". S.J atxilotuaren kasuan, galdegileak saiatu ziren konbentzitzen familiarentzat zama bat besterik ez zela, batez ere ekonomikoki. Taktika horiek erakusten dute Israel etengabe ahalegintzen dela atxilotuek beren buruarengan duten konfiantza murrizten eta beren komunitatearekiko harremana auzitan jartzen, batez ere galdeketetako zulo beltzen barruan kanpoko mundutik erabat isolatuz.

Neurri batean uste da estratagema psikologikoak taktika eraginkorra direla, batez ere tortura-metodo fisikoekin konparatuz.<sup>127</sup> Tortura-metodo jakin baten eraginkortasunari buruzko baieztapen orokorrik egin ezin den arren, nahaste psikologikoen erabilerak emaitza positiboak ematen ditu galdetzaileentzat, bereziki tortura fisikoarekin konparatuz.

Nabarmentzekoa da Asafeer (txoriak) aretoen erabilera. Galdeketa zentro nahiz espetxeetan dauden gela indibidualak dira. Bertara beste norbanako batekin, orokorrean, baina galdekatzaileekin batera, zenbaitetan, eramaten dituzte preso palestinarrek espetxealdi luze batera zigortuak izan direla sinestarazteko eta euren etorkizunean argi pixka bat ikus dezaten ahal duten informazio guztiak ematearen garrantzia azpimarratzeko.

Atxilotu palestinar asko erortzen dira trikimailu horretan, manifestazioetan, harrien jaurtiketan eta beste jarduera batzuetan parte hartzeari buruzko informazioa partekatuz. Horrek, azken batean, inkulpatu egiten ditu, eta kalte egiten die prozedura judizialean. Atxilotu askok adierazi dute, behin Asafeer aretoetan informazioa partekatu ostean, berriro eramaten zituztela galdeketa-zentroetara, eta han aretoetan partekatutako informazioari buruz galdetzen zietela, eta presioa egiten zietela "txoriei" aitorturikoa berrets zezaten.

### **Inguruarekiko erabateko isolamendua eta torturaren eragin psikologikoa**

Israelgo indarrek nahita isolatzen dituzte atxilotuak beren ingurunetik galdeketetan, eta kanpoko mundutik erabat isolatutako geletan jartzen dituzte. Galdeketetan, atxilotuei ez zaie uzten beren familiak ikusten, eta askotan debekatuta dute abokatu batekin biltzea. Gainera, itauntzaileek atxilotuak engainatzen dituzte eguna edo ordua esateari uko eginez, galdeketa-gela gehienek ez baitute leihorik eta erlojurik. Otorduak dira atxilotuek eguneko ordua igartzeko duten modu bakarra, gosaria goizeko lehen orduekin erlazionatuz, bazkaria eguerdi edo arratsaldearekin, etab.

Metodo horien bidez, atxilotua bere ingurunetik isolatu nahi izaten da, bere psikearen gaineko erabateko kontrol-sentsazioa sortzeko, makurrarazteko eta bere independentziaz gabetzeko.

Horretarako beldurra eragiteko diseinatutako traumak jasanarazten dizkiete, baita inpotentzia sentimendua eta gorputz-autonomia galtzea helburu duten beste hainbat taktika erabili ere. Adibide paradigmatico bat da atxilotu bati bere mugimendu-gaitasuna eta loa, janaria, ura eta komunerako sarbidea ukatzeak duen eragin psikologikoa. Horrek desagerrarazi egiten du eduki dezaketen burujabetza zantzua.<sup>128</sup>

Tortura fisiko eta psikologikoak ondorioak ditu epe luzean. Azterlan ugari erakusten dute torturak presoetan epe luzean izan duen eragina ondorengo urte luzeetan. Addameerrek torturari buruz egindako elkarrizketetan, preso palestinar askok adierazi dute osasun-arazoak izaten jarraitzen dutela, batez ere galdeketa-zentroetan izandako torturengatik.

Torturaren ondorio fisikoek luzaroan irauten duten bezala, ondorio psikologikoek ere irauten dute, tortura psikologikoaren epe luzeko eraginari buruzko azterlan ugari erakusten dutenez. Torturak jasan zituzten atxilotu askok trauma-osteko asaldura, depresioa, antsietatea,<sup>129</sup> kontzentrazio-nahasmendua, harremantzeko gaitasunaren galera eta eraso sentimendu jarraitua jasaten dituzte.<sup>130</sup> Tortura psikologikoari buruzko azterlan baten arabera, Italiako kontzentrazio eremuetan tortura jasaten zuten gizabanakoen %45ek depresioa edo trauma-osteko estresaren nahastea (PTSD) jasaten dutela 50 urte geroago.

Palestinako testuinguruan gai berari buruz egiten diren azterlan ugari ondorioztatu dute palestinarrek Israelgo kartzeletan jasan duten torturak eragin psikologikoa duela oraindik ere. Azterlan baten arabera, presoek %40k zazpi tortura-sintoma edo gehiago ditu. Beste ikerketa batean, torturaturiko ehun preso palestinar torturatu ez zituzten 150 presorekin alderatu zituzten, eta ondorioztatu zuten presoek %28k, gutxienez, torturak eragindako gaixotasun mentalak dituztela, hala nola depresioa, antsietatea eta psikosia. Azterketa gehienek korrelazio positiboa aurkitu dute, alde batetik, tortura fisiko eta psikologikoa jasatearen eta, bestetik, epe luzeko ondorioak jasatearen artean, TOEA (Trauma Osteko Estresaren Asaldura-PTSD) barne.<sup>131</sup>

Nabarmenezkoa aitorten faltsuen fenomenoak, non atxilotuek sarritan auto-inkulpatzea eta kontakizun faltsuak aitortzea aukeratu baitute, soilik galdekatzaileek tortura erabiltzeari amaiera eman diezaioten. Joachim Stein psikiatra israeldarrak adierazi zuenez, "tortura fisiko eta psikologikoa kasu penaletan erabiltzen bada neurri handi batean, eta horrek preso asko egin ez duten zerbait aitortzera bultzatzen baditu, egin ez duten delitu batengatik urte luzeak kartzelan pasatuz... hori kasu penaletan normala bada, zentzuzkoa da pentsatzea egoera askoz okerragoa dela segurtasunarekin zerikusia duten kasuetan."<sup>132</sup> Atxilotu askok adierazi dute galdetzaileek beste pertsona batzuen aitortzen aipatzen zituztela, hainbatetan haiek erruduntzat joz. Hainbatetan aitortu zuten pertsonen adierazpenen bideo-grabazioak erakusten zizkietela aipatu izan dute. Atxilotu asko erori dira trikimailu horretan, eta, ondorioz, adierazpen akusatzaileak egin dituzte.

Atxilotu bat beste kide batzuk haien aurka eginiko adierazpenak ikustera edo entzutera behartzeak eragin negatiboa bere psikean, parte den komunitatea bere aurka jarri dela pentsarazten baitio, baita komunitate horrek bera kaltetzen duela ikustarazi ere. Ondorioa larriagotu egiten da atxilotuak berak aitortzen duenean, eta horrek are gehiago etsiaraztea eta bere nahia haustea dakartza, nahiz eta aitormena benetakoa ez izan. Politika horrek azterna handia uzten du atxilotuen bihotz eta buruetan.

Bistan denez, politika hori bat dator printzipio orokor honekin: torturaren helburu nagusia ez da soilik informazioa lortzea, baizik eta torturatutako pertsonaren zentzua eta nahia suntsitzea, haren eta bere komunitatearen arteko konfiantzan zalantzaren hazia ereitea eta beren buruarekiko duten konfiantza eta sinismena gutxitzea.<sup>133</sup> Hasieran, tortura informazioa lortzeko erabiltzen zen, baina gizarteak berriki garatu eta aurrera egin duenez, biolentziak helburu horiek lortzeko metodo bakarra izateari utzi dio. Hori dela eta, askok uste izan dute informazioa lortzeko indarkeriara jotzea erregimenek egindako prozesu sistematiko baten parte dela, edozein motatako oposizio- eta disidentzia-motari aurre egiteko.<sup>134</sup>


## **V. KAPITULUA**

### **ISRAELGO SISTEMA JUDIZIALA TORTURAREN EGITURAREN PARTE DA**

Atal honetan Addameerrek dokumentatutako tortura-praktiketan Israelgo lege-sistemaren konplizitatearen barruan sartzen diren politiken azterketa estatistikoa aurkezten da. 2019ko urtarrilaren 1etik 2020ko ekainaren 30era bitartean Addameerrek jarraipena egin zien 205 kasu ageri dira azterlanaren laginean. Addameerrek kasu horien baitan aztertu zituen: abokatu batekin biltzea debekatu zitzaizen atxilotuen kopurua, galdeketetan zehar onarturiko atxiloaldiaren luzapenen kopurua eta beste hainbat faktore.


Esan beharra dago palestinar guztiak izan daitezkeela atxilotuak uneren batean, israeldarrek ez baitute bereizpenik egiten gizonak, emakumeak, haurrak edo zaharrak atxilotzeko. Ikerlanak iraun zuen bitartean Addameerrek hiru emakumeren atxiloketa dokumentatu zuen, une beran atxiloturiko 202 gizonekin alderatuta, hau da, azterlanaren laginaren %98,5. Hala ere, atxilotutako emakumeen laginaren tamainak ez du islatzen urtero atxilotutako emakume palestinarren ehunekoa.

Sexu-generoaren arabera atxilotuen banaketa aztertutako laginean



Oro har, Addameerrek jarraipena egin zien atxilotu gehienak Al-Moscobiyehko galdeketa zentroan galdeketa zituzten. Hala ere, torturatzeko eta tratu txarrak emateko antzeko metodoak erabiltzen dira lau galdeketa zentro israeldar handienetan: Al-Moscobiyeh, Al-Jalameh, Askalan eta Petah Tikva. Al-Moscobiyeh da azterlanaren iraupenean zehar tortura-metodo bortitzenak biltzen dituen zentroa. Hurrengo irudian ikerketaren lagina lau zentroyen artean nola banatzen den ageri da. Lagin guztietatik, atxilotuen %41,5 Al-Moscobiyehra eraman zituzten, %17,6 Al-Jalamehra, %17,6 Askalanera eta %23,4 Petah Tikvara.

Galdeketa egin zaien atxilotuen kopurua zentro bakoitzean



Atxilotu gehienak zuzenean galdeketa zentroetara eraman bazituzten ere, ikerketaren laginak 16 kasu erakutsi zituen, lagin globalaren %7,8 inguru, non palestinarrek atxilotu eta itaunketa zentrorara denbora bat pasa ostean eraman zituzten. Kasu horiek atxilotu administratibo palestinarrenak dira, kargurik eta epairik gabe bahitu eta atxilotzean galdeketetara transferituak edo, baita, zigorra betetzen duten bitartean itaundutako presoek kasuak ere.

Horren adibide nabarmena da S.T. presoaren kasua. 2018ko abuztuaren 13an atxilotu zuten, eta atxilotuaren lehen faseetan itaundu zuten haren aurkako kargu-agiria aurkeztu baino lehen. Horren ondorioz, 16 hilabeteko kartzela-zigorra ezarri zioten. 2020ko azaroaren 20an, atxilotu eta ia urtebete geroago, S.T. Al-Moscobiyehra eraman zuten, eta 30 egunez baino gehiagoz itaundu zuten. Lege-sistemarekin zerikusia duten israeldar praktikak aldatu egiten direnez, ikerketak hiru politika aztertuko ditu: (1) abokatu batekin biltzeko debekua, (2) atxilotzearen luzapen errepikatuak eta jarraituak galdeketa egiteko, eta (3) epaitegietako transkripzio ofizialen zatiak ezabatzea.

## **ABOKATUAREKIN BILTZEKO DEBEKUA**


Israelek urte asko daramatza atxilotu palestinarrek abokatu batekin biltzea debekatzen, atxilotu-baldintzak okertzeko eta aholkularitza juridiko sendoa bilatzeko eskubidea kentzeko. Sarritan, Israelgo armada atxilotuak presionatzen saiatzen da, kanpo-mundutik erabat isolatuz, beren abokatuekiko harremana ere etenez, informazioa edo aitortpenak ateratzeko ahalik eta presio handiena eragiteko batetik eta tortura-delituak ezkutatzeko bestetik. Sarritan, Israelgo okupazio-agintariek ahalik eta gehien luzatzen dute debeku horien iraupena eta atxilotuei gezurrezko informazioa ematen diete. Itaunketak larriki eragiten du atxilotuen aurka aurkeztutako karguen izaeran eta kartzelaratzaren balizko iraupenean; azken batean, atxilotuaren faserik arriskutsuenean bihurtzen da.

Atxilotuei 60 egunez debekatzen zaie abokatu batekin biltzea, galdeketa-taldeko buruak 15 eguneko debekua eman baitezake, eta galdeketa-zentroko buruak, berriz, beste 15 egunez luza dezake debekua. Gainera, epaile militar batek agindua 30 egunera arte luzatu dezake. Debekua irauten duen bitartean, atxilotuaren abokatuak eskaera egin diezaioke Israelgo Auzitegi Gorenari agindua bertan behera uzteko. Eskaera horiek gaitzetsi egiten dira galdeketaren "larritasunaren" aitzakiarekin, Israelgo indarrek arrazoitzen baitute atxilotu bat bere abokatuarekin harremanetan jartzea onartzeak eragin kaltegarria izan dezakeela galdeketa. Horrek, maiz, 10-30 egunez uzten ditu atxilotuak erabateko isolamenduan, "segurtasun-arrazoiak" tarteko. Abokatu batekin biltzeko debekua epe laburrekoak dira, bizpahiru egunekoak, eta aldizka berritzen dira, atxilotuaren abokatuari Auzitegi Gorenari eskaera bat aurkezteko aukera ez emateko.

Ikerlanak irau bitartean, Addameerrek dokumentatu zuen abokatu batekin elkartzeko debekua ezarri zitzaizela azterlanaren lagineko 105 atxiloturi, hau da, kasu guztien %51,2ari. Laurogeita bost atxilotu debeku bat jaso zuten galdeketaren hasieran, abokatuaren laguntza izateko eskubidea ukatuz atxilotu eta lehen unetik. Debekuen iraupenari dagokionez, Addameerrek jakin zuen 50 atxiloturi debekatu egin zitzaizela abokatu batekin 15 egun baino gutxiagoan biltzea, 50 atxiloturi 15 eta 30 egun artean debekatu zitezela eta gainerako bost atxilotuei, berriz, 30 egun baino gehiagoz eduki zituztela abokatuaren bisitarik gabe. Guztira, azterlanaren laginaren %50 baino gehiagori debekatu egin zitzaizela abokatu batekin 15 egun baino gehiagoz elkartzeko. Horrek agerian uzten du Israelek atxilotu palestinarren aurkako politika hori erabiltzeko joera, nahiz eta ondorio negatiboak izan, batez ere kontuan hartzen bada atxilotu bati egun bakar batean abokatu-laguntza izatea debekatzea bere eskubideen urraketa nabaria dela.



## Abokatuarekin biltzeko debeku-aginduen kopurua



5 aldiz edo gehiagoz  
3-4 aldiz  
1-2 aldiz

(It seems as if those elements  
don't correspond to the  
above explanation...)

Addameerrek 36 eragozpen aurkeztu zizkion fiskaltzari debeku-agindu horien kontra; horietatik 34 baztertu egin zituzten eta bi onartu. Gainera, Addameerrek 26 errekurtsio aurkeztu zituen Auzitegi Gorenean; horietatik 20 baztertu egin zituzten eta sei bertan behera utzi. Kopuru horiek erakusten dute Israelen politika horren inguruan duen ikuspegi orokorra; izan ere, ez baita soilik Israelgo indarrak abokatu batekin biltzeko debeku-agindu horiek ematen dituztela, Israelgo sistema judizialak ere aktiboki lan egiten du bortxaketa horiek ezkutatzeko, fiskaltzatik hasita. Fiskaltzak ez ditu onartzen abokatu batekin biltzeko debeku-aginduen aurka aurkeztutako eragozpen gehienak eta Auzitegi Gorenak aurkeztutako eskaeren erdiak baino gehiago baztertzen ditu.

Errekurtsioen ukazio-tasa horrek argi eta garbi erakusten du Israelgo galdeketa militarren eta epaileen arteko lankidetzaren, elkarrekin lan egiten baitute atxilotu palestinarren aurkako tortura-delituak ezkutatzeko. Atxilotuak abokatuarekin eta kanpoko munduarekin inolako komunikaziorik gabe uzteak atxilotuak galdekatzaileen menpe geratzea eragiten du. Horri esker, atxilotuek abusu gehiago jasan ditzakete eta atxilotuen aurkako tortura-metodo ugari erabil ditzakete, urraketa horiek eta tortura-frogak dokumentatzeko abokatu defendatzaile batekin harremanetan jartzeko inolako biderik gabe. Tortura-marka fisikoen dokumentaziorik ezak asko zailtzen du ostean torturatzailerik legezko erantzukizunak eskatzea.

Gainera, esan behar da atxilotuak abokatu batekin elkartzeko debekatzeak audientzia judizialak galdeketa luzatzea dakarrela. Audientzia horiek abokatuaren presentzia hutsarekin garatzen dira, atxilotua bertan izan gabe, ezin baitu bere abokatuak ikusi audientzia baino lehen, ezta segundo bakar batez ere. Abokatuak aretotik aterata ondoren, atxilotua epailearen aurrera daramate, legezko ordezkariarik gabe. Prozedura horrek defentsa-prozesua oztopatzen du, abokatuak ez baitaiki bezeroaren galdeketa nondik norako berri, eta ez baitaiki bezeroak auzitegiari egindako adierazpenen berri bista amaitu arte. Horrek defentsa eraginkorra prestatzea oztopatzen du.

Abokatu batekin biltzeko debekuak eragindako bortxaketa larrien adibide paradigmatico bat A.H. atxilotuaren kasua da. 2019ko urriaren 23an Al-Moscobiyehra eraman zuten eta berehala abokatu batekin elkartzeko debekatu zioten. Galdeketa jarraitze aldera A.H.-ren atxiloaldia luzatzeko lehen audientzi judizialean fiskaltzak 15 eguneko luzapena eskatu zuten, atxilotuak Zisjordanian egin zen operazio militar batean parte hartu zuelako susmoa aitzakiatzat jarritz.

Epaimahaiak A.H.-ren atxiloaldia zortzi egunez luzatzea erabaki zuten. Ondorengo luzapen-saioetan, Addameerren abokatuak behin eta berriz galdetu zuten A.H.-ren aurka erabilitako galdeketa-metodoak buruz, bereziki 2019ko urriaren 31ko epai-saioan, Addameerren abokatuak galdeketa aldi debekaturiko galdeketa metodorik erabili ote zen galdetu zuenean. Ehab Al-Halabi Israelgo poliziaren ordezkariak erantzun zuten A.H.-ren galdeketa "legearen arabera" egin zela.

Poliziaren ordezkariaren erantzuna ez zen egia. Saio berean, A.H.-k epaileari jakinarazi zion oinetan, bizkarrean eta aurpegian min jasanezina zuela bere galdeketa ondorioz, eta mediku bat ikusteko eskatu zion. Hala ere, epaimahaiak ez zuten onartu A.H.-ren adierazpena, eta ez zion inolako galderarik egin fiskaltzari A.H.-ren kontra erabilitako galdeketa-metodoen inguruan. Adierazi zuten bakarrik galdekatzaileek atxilotuari arreta mediko egokia eman behar ziotela izan zen.

Kasu horretan, epaitegiaren erantzunak erakusten du atxilotu bat abokatu batekin biltzeko debekatzeak eragin negatiboa duela; izan ere, auzitegiak ez zuten A.H.-ren sufrimenduak buruzko

dokumentazio zehatzik bilatu, eta nahikoa iritzi zion funtzionario judizialak aktan jaso zezan A.H.-k oinetan, bizkarrean eta aurpegian mina zuela. Sistema judizial egoki batean, epaileen erantzukizuna da atxilotuari bere minaren jatorriari buruz galdetzea, gorputzean lukeen edozein marka fisiko dokumentatzea eta egoera horretan utzi duen pertsonaren identitateari buruz galdetzea, besteak beste. Beraz, atxilotu palestinarrak beren abokatuarekin biltzea debekatuak aholkularitza juridikoa ukatzeaz gain, jasaten dituzten torturak behar bezala dokumentatzeko edozein aukera kentzen die.

A.H.-ren galdeketa 30 egun baino gehiago iraun zuen, eta bi aste baino gehiagoz abokatu batekin elkartzeko debekatu zitzaion. Luzapen-saio gehienetan A.H.-k epaimahaiari adierazi zion min, zorabio eta oreka-galera ugari izaten zituela ordu luzeetako galdeketa luzeen eta itaungileek bortxa eta indarkeria erabiltzearen ondorioz.


Addameerren abokatuak behin eta berriz joan ziren auzitegira A.H.-k abokatu batekin biltzeko zuten debekuari amaiera emateko. Jasaten ari zen tortura aipatu zuten, eta metodo horiek erabilia adierazpen faltsuak edo aitortzak egin daitezkeela azpimarratu zuten, torturari amaiera emateko helburuz. Erantzuna harrigarria izan zen, izan ere, epaimahaiak galdeketa-metodoak zirela eta aitorten faltsuak lortzeko aukera onartu arren, adierazi zuten ez zuela arrazoi nahikotzat jotzen itaunketei mugak jartzeko. Gainera, epaimahaiak bilkura abokatuari A.H.-ren audizioaren transkribapenik eman gabe amaitu zuen, atxilotuak bere abokatuarekin biltzeko zuten debekuaren aitzakiapean.

Ondorioz, Addameerrek epaile horien ekintzek ez dutela sistema judizial inpartzial eta independenterik islatzen ondoriozta dezake soilik. Kontrara, jarrera horiek kategorikoki frogatzen dutela Israelgo epaileak independenteak izatetik urrun daudela; izan ere, Israelgo politikekin bat egiten dute, eta okupazioaren krimenak ezkututzen laguntzen dute modu batera edo bestera. Besteak beste, edozein abokatuarekin biltzeko debekuak onartuz eta, borondate osoz, abokatuak dokumenta ezin ditzaketan atxilotuen edozein tortura zantzu dokumentatzea errefusatu.

Israelgo indarrek A.H.-ren aurkako galdeketa metodo horien erabilera justifikatu zuten operazio militar batean parte hartu izanaren susmoak argudiatuz. Hala ere, A.H.-ren aurkako karguen pleguan ez zen alegazio horietakoren bat ere adierazten. Horrek esan nahi du A.H.-k galdeketa praktika bortitzak jasan zituela, aipaturiko ekintzetan izan zezakeen parte-hartzearen frogaz argirik gabe. Azterketa hau egin den egunera arte, A.H.-k mina pairatzen jarraitzen du, torturaren eta itaundu bitartean jasan zuten tratu gizagabearen ondorioz.

## Galdeketarekin Jarraitzea Helburua duen Atxiloaldiaren Luzapena: Tortura Krimenak estaltzeko Beste Konplizitate Judizial Mota bat

Galdeketetarako atxiloketaren luzapena da tortura-praktikak eta tratu ez-gizatiarrak estaltzeko konplizitate judizialaren modu nagusietako bat. Addameerrek atxilotuen galdeketa aldiak zenbat aldiz luzatu ziren dokumentatu zuen, eta kopuruak honela banatzen dira:




Kopuru horiek adierazten dute Israelgo epaitegiek parte hartu dutela atxilotu palestinarren aurkako tortura eta tratu txarren delituak ezkutatzeko prozesuan. Atxilotu gehienek atxiloketaren hiruzpalau luzapen jaso zituzten, eta hori ez da datu hutsala. Egunei dagokienez, azterlanaren lagineko 54 atxilotuk 21 eta 30 egun artean igaro zuten galdeketapean eta 110 atxilotu itaundu zituzten 30 egunez baino gehiagoz. Bestela esanda, azterlanaren laginaren %50 baino gehiagok 21 egun baino gehiago igaro zuten galdeketapean.

Denbora-tarte luzeak dira horiek, batez ere kontuan hartzen baditugu lehen aipatutako galdeketa-baldintzak, hala nola abokatu batekin elkartzeko debekua eta kanpoko munduarekiko isolamendu fisiko eta mentala. Galdeketa egiteko atxiloketaren luzapenak onartzeko sistema judizialaren etengabeko patroiak okupazioaren krimenak estaltzen laguntzen du. 2019an soilik, Addameerrek atxilotu-saioen luzapen baterako epaitegira gorputz osoa tortura-marka argiz estalia zuten atxilotuen kasu ugari dokumentatu zituen. Israelgo epaileek, ordea, ez zieten jaramonik egin froga fisikoei, eta galdeketarekin jarraitu ahal izateko atxiloketaren luzapena onartu zuten.

Addameerrek aurre egin die luzapen horiei errekursoak jarritz. Ikerlanak iraun bitartean, elkarrekin 95 errekurso aurkeztu zituen galdeketa jarrai zezan onarturiko atxilotze-luzapenen aurka; hauexek dira datuak:

Azterlanaren lagineko atxilotu bakoitzak aurkeztutako errekurso-kopurua:



Errekurto horietako gehienak abokatu batekin biltzeko debeku-aginduak ezeztatze eskaeren inguruko ebazpen judizialen antzera errefusatzen dira. Hirurogeita zortzi apelazio baztertu ziren eta 19 apelazio onartu. Bigarren apelazioetan, berriz, errefusatze-tasa handitu egin zen: 31 apelazio baztertu ziren eta lau apelazio bakarrik onartu ziren. Israelgo epaitegiek errekurto horietako gehien-gehienak arbuiatzea okupazio-krimenen konplizitate judizialaren beste modu bat baino ez da.

2019an, W.H. atxilotuaren kasuari jarraipena egin zion Addameerrek eta xehetasunez erakutsi zuen Israelgo estatu-erakundearen funtzioaren koordinazio zuzena. 2019ko urriaren 3an, W.H. atxilotu eta berehala, abokatu batekin biltzeko debekua ezarri zioten. Galdeketekin jarraitzeko atxilotuaren luzatzeko lehen bilkuran, fiskaltzak 15 eguneko luzapena eskatu zuen. Epaimahaiak zortzi eguneko luzapena onartu zuen, atxilotuaren eskubideen eta galdeketaren beharren arteko oreka ezartzeko aitzakiarekin. Zortzi egun nahikoa da Shabakeko galdekatzaileek atxilotuaren aurkako tortura-delituak egiteko, batez ere abokatu batekin elkartzea debekatuta dagoenean. Bestela esanda, epaimahaiak atxilotua kontrolik gabeko sistema integral batean bere baitan uzten du, galdekatzaileei itaunketa egiteko egoki deritzen metodoak baliatzeko aukera eta zigorgabetasun osoa eskainiz.

Epailearen ebazpenaren alderdirik harrigarriena da atxilotuak epaileari esan ziola eskuak lotuta zituela atxilotu zutenetik (goizeko 2:00ak aldera) 12:30ak arte, eta Israelgo armadak bere etxea suntsitu zuela atxilotu zutenean. Epaileak ez zien jaramonik egin W.H.-ren adierazpenei, eta ez zituen aintzat hartu etxearen jabetza suntsitu izana eta sei ordu baino gehiagoz jarraian eskuburdirak jarrita egon izana ezta atxilotu zutenetik abokatu batekin biltzeko debekua ezarri zitzaien ere. Israeldar indarrek W.H.-ren aurkako bortxa eta indarkeria erabiltzeko asmoa erakusten duten praktika horien argitan, epaileak atxilotuaren luzapena onartu zuen azkenean, nahiz eta W.H.-ren egoerak tortura bidera dezaketen tratu-txarrak jasateko adierazle guztiak izan.

Hurrengo luzapen-saioan, 2019ko urriaren 10ean, defentsa-abokatuak W.H.-ren egoera medikoari buruz galdetu zuen, bereziki bere abokatuarekin biltzea debekatu zitzaiolako. Poliziaren ordezkariak erantzun zuen W.H.-k hipertentsioa eta bizkarreko eta urdaileko mina zituela, eta Al-Moscobiyehn bertan behaketa medikopean zegoela. Defentsa-abokatuak aretotik alde egin ondoren, atxilotua epailearen aurrean agertu zen eta honako hau adierazi zuen: "atxilotuaren unetik, etengabe galdeketa militarrek jasan ditut... Orain hanketako eta bularreko mina dut. Pultsua, tenperatura eta tentsioa hartzeko bakarrik ikusten nau medikuak".

Ezerk ez zuen epailea konbentzitzea lortu, eta ez zuen eraman W.H-en galdeketa geratzeko erabakirik hartzera; ezta abokatu batekin biltzeko debekua ezeztatzea erabakitzea ere. Epaileak, neurri handi batean, atxilotuak bere ebazpenean egindako adierazpenak enoratu zituen, "susmo arriskutsuak", galdeketa larritasuna eta konplikazioa eta eskualdeko segurtasuna arriskuan jar dezakeen ustezko mehatxua aitzakiatzat baliatuz. Epaian, epaileak adierazi zuen beharrezkoa zela auzitegiak galdeketa gainbegiratzea, baina ez zituen W.H.-k jasandako tortura eta adierazitako minik aipatu. Azkenean, epaileak atxilotetaren beste zortzi eguneko luzapena onartu zuen.

Addameerren abokatuak errekurso bat aurkeztu zuen, non esaten baitzuen lehen auzialdiko epaileak ez zuela behar adinako arreta jarri W.H.-ren osasun-egoeran, kontuan hartuz, besteak beste, W.H.-k aditu batek azter zezan eskatu zuela. Fiskaltzak behin eta berriz defendatu zuen auzitegiak errekursoa azter zezala atxilotua bertaratu gabe; eskaera hori onartu egin zuen epaileak. Epaile berak baztertu egin zuen Addameerren abokatuak W.H. aditu batek azter zezan eginiko eskaera, fiskaltzak aurkeztutako txosten konfidentzialak W.H.-ren egoera medikoaren inguruko nahikoa informazio zuela adieraziz. Epaileak, halaber, adierazi zuen atxilotuaren inguruko susmo larriak galdeketa justifikatzeko bezainbestekoak zirela, eta gaineratu zuen galdekatzaileek debekatutako tortura edo legez kanpoko galdeketa-metodoak erabili izanaren frogarik ezak epaimahaiari errekursoa errefusatu beste aukerarik ez diola uzten.

Atxilotzea luzatzeko hurrengo saioetan, Addameerren abokatuak W.H.-ren aurka erabilitako galdeketa-metodoei buruz galdetzen jarraitu zuten, une horretan atxilotuak zuen osasun-egoera frogatzen zuen edozein txosten mediko eskatuz; batez ere une horretan 40 egun baino gehiago zeramatzalako bere abokatuarekin elkartu gabe. Fiskaltzak epaimahaiari emandako erantzunean W.H.-ren galdeketa Israelgo legeriaren eta polizia-arauen arabera egiten ari zirela zioen uneoro, eta galdeketa xehetasunak epaileari aurkeztutako isilpeko txostenean jasotzen zirela. Erantzun horiek kontraesanean zeuden hainbat saiotan atxilotuak egindako adierazpenekin, hots, bularrean, bizkarrean eta oinetan mina zuela adieraztearekin, bai eta galdeketa jasotako kolpeen ondorioz gorputzean zituen hematoma argiekin ere. Hala ere, W.H. jasaten ari zen tortura eta tratu txarrak amaitzeko neurriak hartu ordez, auzitegiek bata bestearen atzetik onartu zituzten atxilotetaren luzapen-eskaerak. Egoera kafkiarraren adierazle da, une batean, epaile batek Addameerren abokatuari jakinarazi ziola legezko bideak zituela abokatu batekin biltzeko debeku-agindua ezeztatzeko.

Epaile ohiak debeku-aginduak ezeztatzeko legezko bideei buruz emandako erantzuna fartsa hutsa da, eta Israelgo sistema judizialak atxilotuen eskubideak arbuiatzen dituela besterik ez du adierazten. Izan ere, auzitegiek "segurtasun-premia" argudiatzen dute atxilotetaren luzapenak eta abokatu batekin biltzeko debeku-aginduak onartzeko, nahiz eta galdeketa interesak eta atxilotuen eskubideak orekatu nahi dituztela argudiatzen duten aldi berean.

2019ko urriaren 17an, W.H. Shmuel Fleischmann epaile militar israeldarraren aurrera eraman zuten galdeketaekin jarraitzeko atxilotetaren luzapen-saio baten harira. Saioan W.H.-ren abokatuak W.H. jasaten ari zen torturak, galdeketa-metodo bereziak erabiltzeko baimena eman zuen pertsonaren identitatea eta atxilotuaren egoerari buruzko edozein txosten mediko ikertzen saiatu zen. Ohi bezala, fiskaltzak erantzun zuen xehetasun horiek guztiak eskura zeudela espediente konfidentzian, atxilotua zentroko klinika-eremuan laguntza mediko egokia jasotzen ari zela argudiatuz. W.H.-ren abokatuak fiskaltzari galdetu zion atxilotuak klinikara egin zituen bisiten zergatiaz, eta Al-Halabi poliziaren ordezkariak "ohiko probak" egitera eraman zutela erantzun zuen.

Fiskaltzak ere aipatu zituen "ohiko probak" bat zetozen W.H.-k epailearen aurrean eginiko adierazpenekin. Haietan bizkarreko mina izaten jarraitzen zuela aipatu zuen eta eman zioten botikak ez ziola gehiegi laguntzen; hau da, ez zirela behar bezala artatzen ari. Saio berean, W.H.-k pairatzen ari zen mina atxilotu ondoren baino ez zuela sentitu azpimarratu zuen, eta adierazi zuen zerbait gertatzen zitzaiola hanketan; baita gorputz guztia ubelduz josia zuela ere. Une horretan, epaileak atxilotuari galtzak kentzeko eskatu zion, eta marra gorri baten ostean ubeldu urdin-moreak ikusi zituen hanken goiko aldean, baita hanken atzeko aldean ubeldura urdinak ere. W.H.-k baieztatu zuen marka horiek galdetzaileek emandako kolpeen ondorio zirela, eta esan zuen uste zuela oinekin jo zutela, baina ez zekiela zehazki nola begiak estalita zituelako.

Epaileak W.H.-ren gorputzean markak ikusi ondoren, Ehab Al-Halabi poliziaren ordezkariak epaileari eskatu zion W.H.-ren adierazpenak ezkuta ziezazkiola bere abokatuari, informazioak atxilotuaren aurka erabilitako galdeketa-metodoak zehazten zituela argudiatuz. Israelgo Fleischmann epaile militarrek uko egin zion fiskaltzak informazioaren zati bat ezkutatzeko egindako eskaerari eta adierazi zuen atxilotua medikuarenera eraman behar zela, baita haren gorputzeko markei argazkiak atera eta dokumentazioa pilatu behar zela ere. Fleischmann-ek bere erabakia justifikatu zuen esanez transkripzio judiziala nagusiki galdekatzaileak atxilotuaren edo haren abokatuaren erreklamazioetatik babesteko jasotzen dela. Epaileak gehitu zuen berak ez duela erabakitzen zer den zuzena edo zer ez, baina, hala ere, uste zuela "itauntzaileek bazekitela nola orekatu galdeketa beharrak susmagarri bakoitzaren segurtasunarekin eta osasunarekin".

Kasu horretan, ebazpen judiziala fiskaltzari laguntza judiziala emateko beste modu bat da. Epaileak uste du fiskaltza gai dela galdeketa-prozedurak orekatzeko susmagarri baten segurtasun eta osasun beharrekin. Zoritxarrez oso urrun dago errealitatetik. Argi dago fiskaltzak behar diren neurri guztiak hartuko ditu informazioa errazago lortzeko, atxilotuaren ongizate fisiko eta psikologikoaren kontura, bere gorputzeko markek erakusten duten bezala.

Aurrekoa gorabehera, epaileak fiskaltzaren eskaera onartu zuen, atxilotuaren atxiloketa zortzi egunez luzatuz eta bere abokatuarekin biltzea debekatzen jarraituz. W.H.-ren galdeketa 2019ko azaroaren 28ra arte jarraitu zuen, fiskaltzak atxiloketaren beste luzapen bat eskatu baitzuen beste zortzi egunez, haren aurkako karguak aurkezteko aitzakiapean. Galdeketa iraun zuen bitartean, Israelgo epaileek W.H.-ren atxilotzea luzatzeko fiskaltzaren eskaerak onartzen jarraitu zuten, torturaren eta tratu txarren adierazle guztiei kasurik egin gabe.

W.H. ez zen izan aipatutako praktikak jasan zituen atxilotu bakarra. 2019ko azaroaren 12an, indar israeldarrek bortizki atxilotu zuten J.D., familiaren etxea arpilatuz eta haurrak izutuz. J.D.-ri, atxilotu eta berehala, abokatu batekin elkartzeko debekua ezarri zioten. Bi egun geroago, 2019ko azaroaren 14an, Merav Yitzhak israeldar epaile militarren aurrera eraman zuten. J.D.-ren abokatuak poliziaren ordezkariari atxilotua indarkeriazko galdeketa jasaten ari ote zen galdetu zionean, ordezkariak ukatu egin zuen.

Bere abokatua aretotik atera ondoren, sartu zen J.D., eta hark epaileari esan zion nekatuta zegoela eta ordu luzez itaundu zutela, bizkarreko mina zuela eta ezin zituela lepoa eta ahoa mugitu. J.D. mediku batek ere ez zuen aztertu. Hala ere, epaimahaiak ez zien kasurik egin J.D.-ren adierazpenei, horren adierazle da ez ziola bere egoerari buruzko galderarik egin. Azkenean, epaileak, galdeketaekin jarraitzeko atxiloketaren zortzi eguneko luzapena onartu zuen, nahiz eta froga aski argiak izan J.D.-ri tratu bihozgabea ematen ari zitzazkiola eta luzapenak izan zitzakeen ondorioak erabat baztertuz, J.D. Shabakeko galdetzaileen kontrolik gabeko atxiloaldira kondenatuz.

Epaimahaiak galdeketa bereziari legezko estaldura ematen jarraitu zuen J.D.-ren hiru aste baino gehiago iraun zuen itaunketa aldian eta, denbora horretan, fiskaltzak berretsi egin zuen itaunketa "defentsa beharren" mende zegoela. "Defentsa beharraren" erabilera arrazoitzen denean, normalean, galdeketa egiteko metodo berezien erabileraren berri eman behar izaten zaio epaimahaiari, eta horrek galdekatzaileen praktikak hobeto gainbegiratzea justifikatuko luke, baina ikuspegi judizialaren errealitateak kontrakoa erakutsi du behin eta berriz. Epaimahaiak J.D.-ren atxilotetaren luzapen eskaerak onartzen jarraitu zuen, saio bakoitzean sentitzen zuen minaren jakitun zen arren. Horrez gain, abokatu batekin elkartzea debekatu zitzaioela eta kanpoko mundutik erabat isolatuta zegoela jakin arren, ezikusiarrena egin zuen errealitate horren aurrean.

Q.S. 2019ko abuztuaren 26an atxilotu zuten bere etxean, eta antzeko tratu bati egin behar izan zion aurre. Atxilotzeko unean Q.S.-k lesioak izan zituen izter eta genitalatan, atxilotze-unitatearekin batera zihoan zakur polizia batek hozka egin ondoren.

Q.S.-ren atxiloteta luzatzeko lehen saioan fiskaltzak 15 eguneko luzapena eskatu zuen, ohiko "susmo larriak" argudiatuz. Epailleak fiskaltzaren bertsioa onartu zuen, Q.S.-ren lesioak, indarkeriazko atxiloteta pairatu izana eta abokatu batekin elkartzea debekatu izana kontuan hartu gabe.

2019ko irailaren 3an epaimahaiak Addameerrek Q.S.-ren atxilotetaren luzapena murrizteko aurkeztutako eskaera aztertu zuen. Bere epaian Menachem Lieberman epaile militar israeldarrak baieztatu zuen atxilotua ordu luzez itaundu zutela, ia egun osoan zehar hainbatetan. Legeak atxilotuaren aurka egindako galdeketa-metodoak onartzen zituen arren, epailleak uste zuen "aitorpen faltsuak egiteko aukera erreala zegoela" galdeketa egiteko metodoan oinarritua. Ondorioz, Lieberman-ek Q.S.-ren atxilotetaren luzapena 15 egunetik 12ra murriztu zuen, atxilotuaren eskubideak eta galdeketaaren interes gorena orekatzen ari zelako ustean.

Israelgo epailleek behin baino gehiagotan luzatu zuten Q.S.-ren atxilotzea eta, aldi berean, denbora guztian abokatu batekin elkartzeko etengabeko debekua berretsi zuten. Saio guztietan epaimahaiak ez zien jaramonik egin Q.S.-k jasandako tortura eta tratu gizagabeari, gorputz osoan jasotako jipoiei ezta gorputzeko eremu zehatzetan zituen lesioei ere.

Q.S. estres-jarrera ugari hartzera behartu zuten, banana posizioa horien artean, aurpegian kolpatu zuten, ezin izan zuen bainua ordu luzez erabili eta hainbat lagun eta senide atxilotu zituzten bitartean. 2019ko irailaren 29ko saioa, atxilotuak jasotzen zuen tratuarekiko epaimahaiak zuen axolagabekeriaren adibide garbia da. Debeku-agindua amaitu ondoren Addameerren abokatua aurrean zen lehen saioa izan zen. Abokatuak esplizituki adierazi zituen Q.S.-ren gorputzeko tortura-arrasto fisikoak, baina erabateko arbuioa izan zuen erantzuntzat, epailleak ez baitzion gaiari heldu ere egin bere ebazpenean, probei kasurik egin gabe atxilotetaren 15 eguneko luzapena onartuz.

Q.S.-k jasandako torturak argitzeko abokatuak auzitegian behin eta berriz egindako ahaleginei ezikusia egin zieten uneoro. 2019ko urriaren 7an atxilotzea luzatzeko saio judizial batean, Addameerren abokatuak biluztu zedila eskatu zion Q.S.-ri, gorputzean zituen tortura-proba fisikoen berri emateko. Gorputza estaltzen zuten marka eta ubeldu izugarriak izan arren, epailleak ez zituen nahikotzat jo saioaren transkripzioan dokumentatzeko.

Kasu horiek Israelgo praktiken izaera eta Shabaken krimenetan sistema judizialak duen konplizitateak erakusten ditu; izan ere, Israelgo epailleek atxilotutako palestinarren atxiloteta luzatzen jarraitzen dute, frogak fisiko argiak eta jasandako torturari eta tratu txarrei buruz atxilotuek

egindako adierazpenak gorabehera. Gainera, epaileek ez dituzte proba horiek beren epaietan dokumentatzen.

## **EPAITEGIETAKO TRANSKRIBAPENEN OFIZIALEN HAINBAT ATALEN EZABAKETA**

Ikerlanean zehar, Addameerrek hainbat saiakera dokumentatu zituen Israelgo fiskaltzak saio judizialeko transkripzio ofizialen zati edo epaiak marratzeko, atxilotu palestinarren atxiloketa luzatzeko eta haien kontra egindako bortxaketa larrien inguruko frogak ezkutatzeko. Fiskaltzak arrazoitzen duenez, transkripzioetan jasotako informazioak galdeketen bilakaerari eragiten dio, batez ere atxilotuek abokatu batekin biltzeko debeku-aginduak zituzten kasuetan egin zirelako eskaera horiek. Beraz, transkripzioetatik informazioa kentzeko arrazoi nagusia abokatuak bere bezeroari buruzko informazioa eskuratzea galaraztea omen zen, atxilotu bati egiten zaizkion galdeketa-metodoak barne. Praktika hauek atxilotuen eskubideen urraketa larria dira. Galdeketa pean zen M.A. emakume atxilotuaren atxiloketa luzatzeko saio judizial batean epaimahaiari esan zion ez zegoela ondo, ezin baitzuen lorik egin eta behin eta berriz kolpatzen baitzuten. Addameerren abokatuak transkripzioaren kopia bat jaso zuenean, argi geratu zen atxilotuaren adierazpenak ezabatuta zeudela eta inon ez zegoela adierazita fiskaltzaren eskariaren ondorio izan ote zen.

Saio judizial zehatz horretan, epaileak adierazi zuen transkripzio judizialen informazioa ezabatzeak arrazoi sendoak izan behar dituela oinarri, informazio hori ezagutarazteak kalte egin beharko liokeela galdeketa eta eskualdeko segurtasuna arriskuan jarri beharko lukeela. Auzitegiaren jokaera eta atxilotuaren adierazpenak berrikusi ondoren, epaileak ondorioztatu zuen epaimahaiari aurkeztutako informazioa ez zela sartzen aipatutako irizpideetan eta, ondorioz, ez zuela justifikatzen informazio hori ezkutatzea. Hala ere, fiskaltzak epailearen aipuak gaitzetsi zituen, informazioak eskualdeko segurtasuna arriskuan jar zezakeela eta isilpean egon behar zuela argudiatuz. Auzitegiaren hasierako jarrera transkripzio judizialeko informazioa ezabatzearen aurkakoa izan arren, epaileak fiskaltzaren eskaera onartu zuen azkenean.

M.A.-ren kasua Israelgo agintarien jokaeraren adibide bat besterik ez da, eta botere mota hori fiskaltzari ematea arriskutsua dela pentsatzera garamatza, batez ere, fiskaltzaren jarduna luzaroan atxilotu palestinarren eskubideak bortxatu eta haien aurkako karguak puzteko politikan oinarritu denean. Transkripzio judizial ofizialen zati batzuk kentzea ez da inola ere atxilotu bakar bati mugatutako praktika puntuala.

30 egunez baino gehiagoz basatiki itaundu zuten W.H.-ren transkripzio judizialeko informazioa ezkutatzen saiatu zen fiskaltza. Atxilotzea luzatzeko saioetan, W.H. berak nahiz bere abokatuak behin eta berriz eskatu ondoren, epaileak onartu egin zuen atxilotua mediku batek azter zezala. W.H.-k behin eta berriz adierazi zion auzitegiari gorputz osoan min jasanezinak eragiten ari zitzaizkion galdeketa intentsibo bortitza egiten ari zitzaizkiola. Gainera, W.H.-ren gorputza marka eta zauriz beteta zegoen, galdeketa-zentroan tortura eta tratu txarrak jasan izanaren adierazle.

Epailearen erabakia, W.H. mediku batek aztertu zezan onartzea izan zen, baita bere gorputzeko markak argazkietan dokumentatzeko agindua ematea ere; erabakia atxiloketatik bi astera iritsi zen. Une horretarako atxiloketaren hasieran jasan zituen hematoma batzuk desagertzen hasiak ziren dagoeneko. Hala ere, epaileak bere erabakian azpimarratu zuen galdeketa egiten dutenek informazioa ezkutatzeko baimena dutela, baldin eta uste badute eragina izan dezakeela galdeketa, eta argitu zuen transkripzio ofizialean dagoena batez ere galderak egiten dituztenak atxilotuaren edo abokatuaren edozein erreklamaziotik babesteko dela.



W.H.-ren adierazpenak bere osasun-egoeraren, jasotako tratua, pairatzen ari zen minaren inguruan eta gorputzean zituzten ubelduen ingurukoak ziren, hau da, ez zuten inolako eraginik itaunketan nondik-norakoetan. Baina, hala ere, fiskaltzak transkripzio judizialeko adierazpenak kentzeko eskatu zuen, galdeketan eragina izan zezaketela eta bere abokatuarekin biltzea debekatu ziotela argudiatuz. Argi dago W.H.-ri abokatuarekin biltzea eragozteko eskaerak galdeketa egin bitartean zuen osasun-egoera eta Al-Moscobiyehn izandako tortura eta tratua txarren delituak ezkutatzeko zuen helburu. Kasu horretan epaimahaiak fiskaltzaren eskaera ukatu bazuen ere, kasu honek eta dozenaka bestek sistema israeldarrean tortura eta tratua txarrak zein txertatuak dauden agerian uzten dute, etorkizuneko erabaki judizialean konfiantza-falta erabatekoa eraginez, ezin baita ziur izan epaileak ez dituenek itsu-itsuan onartuko fiskaltzaren eskaerak beste kasuetan.

Aipatzekoa da Ordena Militarren D artikuluko 89. klausulak (B) ezartzen duela auzitegi militar batek, garai normaletan, entzunaldiak jendaurrean egingo dituela, baina eskubidea duela kasu bat osorik edo zati batean atea itxita gerta dadin agintzeko, Israelgo armadaren edo segurtasun publikoa arriskuan daudela irizten badio.

89 (C) klausulak ezartzen du eskualdeko komandante militar batek eskualdeko segurtasunari kalterik ez eragiteko argudiopean prozedura bat atez itxita egin behar dela aipatzeko baimena duela bere izenean sinatutako eta epaileari aurkeztutako agiri batean. Hala ere, auzitegiak eskubidea du erabakitzeke ea audientzia judizial bat atea itxita egiten den, osorik edo partzialki. Israelgo fiskaltzak behin eta berriz erabiltzen ditu artikuluko horiek galdeketa nahieran egiteko edo atxilotuen egoerari buruzko edozein informazio garrantzitsu ezkutatzeko, batez ere, eskualdearen segurtasuna mantentzeko eta galdeketan eraginik ez izateko aitzakia baliatuz.

## **VI. KAPITULUA**

### **MEDIKU ISRAELDARRAK TORTURA SISTEMAREN PARTE DIRA**

Israelgo estatuko erakundeak buru-belarri ari dira lanean palestinarren aurkako tortura-krimenak ezkutatzeko. Botere judizialaren eginkizuna botere legegilearenarekin bat dator eta botere betearazlearen organo guztiek, besteak beste, armadak, poliziak eta Shabakek, gauzatzen dituzten tortura-krimenen legezko estaldura sortzea du xede. Integrazio hori batez ere Israelgo epaitegien epaietan ikusten da, uneoro, bidegabeki Israelgo estatuaren alde eta palestinarren aurka jartzen baitira. Israeldarren heriotza eragin duten ekintza militarretan parte hartzen duten palestinarren aurkako etxebizitzak eraisteko aginduak etengabe onartzen dituzte epaitegiek; trukean, etxebizitzak eraisteko aginduak ez dituzte ematen palestinarren aurkako krimen beldurgarriak egiten dituzten herritar edo kolono israeldarren aurka. Era berean, tortura kasuetan Israelgo epaitegiek emandako epaiak palestinarren giza eskubideen aurka doaz beti

Epai judizialez gain, legediak, agindu militarrek eta bestelako baldintzek etengabe mugatzen dituzte palestinarren eskubideak. Botere legegilearen zeregina bat dator epai judizialekin eta palestinarren aurkako praktika israeldar guztiak zigortzeko erabiltzen diren segurtasun-arrazoien aitzakiarekin.

Gobernu-funtzioen integrazio orokor horrekin bat, sistema medikoa da okupazio-krimenak ezkutatzeko funtsezko zeregina duen Israelgo estatu-erakundea. Tortura-praktikak ezin dira modu isolatuan egin beste sektore batzuen esku-hartzerik gabe, hala nola medikuntzarena, zeren eta tortura-praktika gehienen aurretik atxilotuen azterketa medikoak egiten baitira torturari argi berdea emateko.<sup>135</sup>

Ikerlanak iraun bitartean, Israelgo espetxeetara eta galdeketa-zentroetara egindako bisitetan, Addameerrek egindako dokumentazio-ahaleginen bidez, argi geratu da Israelgo medikuak eta sistema medikoa konplizeak direla okupazioaren krimenak ezkutatzeko. Konplizitate hori zenbait puntutan nabaritzen da. Hauek dira puntuak:

### **ATXILOTUAK GALDEKATZEKO HAUEN UNEOROKO GAITASUNAREN ZIURTAGIRIA**<sup>136</sup>

Atxilotuek galdeketaarako duten gaitasuna egiaztatzea da tortura prozesuan parte hartzeko lehen urratsa. Etopa honetan, medikuek argi berdea ematen diete galdekatzaileei atxilotuaren osasun-egoerak tortura-metodoak erabiltzea eragozten ez duela ziurtatzeko. Gainera, denbora batez itaunketa jasan duten atxilotuak kliniketara eraman dituzte, medikuek egiaztatu ahal izan dezaten galdeketa egiten jarraitzeko egoeran daudela. Atxilotuen osasunari edo baldintza mediko bereziei buruzko informazio konfidentziala galdetzaileekin partekatzeak eragin kaltegarria izan dezake haiengan, baldintza horiek betetzeko diseinatutako tortura-metodoak diseinatzeko aukera handitu baitezake.<sup>137</sup> Azken horren adibide da azterlan honetan aurrez aipatu dugun J.D. atxilotuaren kasua. Galdekatzaileek J.D. presionatu zuten zuten hernia diskala baliatuz, bertan ahalik eta min handiena eragiteko tentsio-jarrera espezifikoa hartzera behartuz. Medikuen onarpena jasotzen zuten atxilotuak galdeketa-aretoetara itzuli aurretik, tortura jasaten ari zirela jakinda, eta, horren ondorioz, nazioarteko zuzenbidearen aurrean medikuei erantzukizunak eskatu zaizkie tortura-delituen konplize gisa.<sup>138</sup>

Addameerrek aztertutako 10 kasu baino gehiagotan galdeketa-zentroetako medikuek ziurtatu zuten atxilotuek galdeketa egiten jarraitzeko gaitasuna zutela, osasun-egoera txarra bazuten ere; eskandaluzko jarrera ikuspegi mediko eta gizatiar batetik. Epaiak eta medikuek ikusten zuten nola zeramatzaten atxilotuak epaitegietara, hainbatetan gurpildun aulkietan, ezin baitzuten beren kabuz ibili jasandako torturengatik. Hala ere, galdeketa-zentroetako medikuek atxilotuak galdekatzen jarraitzeko gai zirela deklaratu jarraitu zuten.

A.F. atxilotuak oroitzen du: "Galdeketa militarrean, pultsua hartu eta tentsioa neurtzeko bakarrik eraman ninduten klinikara. Medikuek ez zituen tortura-markak ikusi nire gorputzean. Bularreko minez kexatu nintzenean, mina normala zela erantzun zidan. Urdaileko minez kexatzen nintzenean, eskuz aztertzen ninduen eta analgesikoak ematen zizkidan".

S.T. atxilotuaren hitzetan: "galdeketa zehar Al-Moscobiyeh galdeketa-zentroko klinikara eraman ninduten. Medikuek ez ninduen bertan aztertu, baina pilulak eman zizkidan urdaila lubrifikatzeko. Ez zitzaion axola hemorroideak izatea, eta nire hemorroideak odola jariatzen hasi zirenean ez ninduten dutxara azkar eraman. Ordu luzez eduki ninduten eskuburdinez aulkari lotuta, odol betean, itaunketa gela hartan". Bi kasu horiek galdeketa-zentroetan torturatu dituzten dozenaka atxilotu palestinarren kasuen adierazgarri dira. Medikuek ez zieten jaramonik egin, haiekiko zuten edozein erantzukizun etikori muzin eginez, galdeketa jarraitzeko gai zirela esan baitzieten, eta analgesikoak bakarrik eman zizkieten, beren osasun-egoeraren benetako ebaluaziorik egin gabe.

## **TORTURA ZANTZUEI EZIKUSIARENA EGIN ETA HORIEK DOKUMENTATZEA ALBORATZEA**

Konplizitate medikoaren bigarren modua hauxe da: medikuek ez dituzte kontuan hartzen atxilotuen gorputzean dauden tortura-marka, eta ez dituzte horiek dokumentatzen. Israelgo Torturaren aurkako Batzorde Publikoak eta Giza Eskubideen aldeko Medikuek txosten bateratu batean adierazi zuten espetxeetako mediku gehienek isilik mantentzen direla aurkitzen dituzten edo jakinarazten zaizkien lesioen aurrean. Askotan sendagileek ez dute atxilotuen tortura fisiko eta psikologikoa behar bezala dokumentatzen, eta, horren ondorioz, biktimek ezin dute torturazailen aurkako frogarik erabili.<sup>139</sup>

2019an 340 debeku-agindu baino gehiago eman ziren 75 atxilotu palestinarrek abokatu batekin biltzeko zuten eskubidearen aurka; kasu horiek jarraitu zituen Addameerrek. Atxilotu horietako batzuei galdeketa basatiak egin zizkieten eta gorputzean marka basatiak utzi zizkieten. Sendagileek atxilotu horietako gehienak aztertu zituzten arren, haien espedienteak ia erabat hutsik daude jasan zuten edozein motatako kolpe eta tortura fisikoko markei dagokionean. Medikuek tortura-marka argi eta berriak ez zituzten ikusi; Addameerren abokatuek, berriz, marka horietako batzuk dokumentatu ahal izan zituzten aste batzuk geroago, atxilotuak bisitatzen ari zirela; izan ere, hematoma batzuk gertatu eta astebete geroago ere ikusten ziren oraindik. Beraz, Israelgo medikuen ekintzak, atxilotuen gorputzean ikus daitezkeen tortura-markak kontuan ez hartzea alegia, haien erantzukizun etiko eta medikoen errefusa nabarmen eta larria dira.

Preso askok beren gaixotasun medikoak adierazten dituzte atxilotzean edo medikuek egindako osasun ebaluazioetan, eta gaitz horiek kontuan hartzeko eskatzen dute. Hala ere, eskaera horietako gehienak ez dira kontuan hartzen, S.T. atxilotuaren kasuan txosten honetan lehenago aztertu den bezala. S.T.-ren kasua medikuek atxilotuen osasun-baldintzei eta horietatik eratorritako minei kasurik egiten ez dietela erakusten du. N.H. atxilotuak galdeketa izandako esperientzia mingarria ekarri du gogora: "Medikuarenera joan nintzen, galdeketa egin bitartean beheko hartz-zubia askatu zitzaidalako. Medikuek uko egin zion artatzeari, eta gero neuk atera behar izan nuen; min jasanezina eragin zidan".<sup>140</sup>

Esan beharra dago, medikuek ez ezik, Israelgo indarrek ere ez dietela atxilotuei arreta mediko egokia eman nahi izaten. Adibide paradigmatico bat H.H. atxilotuaren kasua da. Gogoratu zuten itauntzaile batek bizkarra presionatu ziola galdeketa-aulkian estres-jarrera hartzera behartzen zuten bitartean, bizkarraren behealdean berriki eginiko kirurgia bateko zauria berriro ireki zioten arte. Osteon, zauritik odol-isuria bazerion ere, galdekatzaileek ez zuten eraman nahi izan klinikara.

## **SISTEMA JUDIZIAL ETA MEDIKUAREN ARTEKO BATERATZEA IRUDIKATZEN DUEN S.A.-REN KASUA**

2019ko irailaren 25eko goizeko zortzietan, Israelgo indar bereziek S.A. atxilotu zuten lantokitik kanpo eta bortizki eraso zuten bere emaztearen aurrean. Handik bi ordutara, S.A.-k bost egunez abokatu batekin biltzeko debeku-agindua jaso zuen. 2019ko irailaren 26an, Israelgo Uriel Dreyfus epaile militarren aurrean agertu zen S.A. eta fiskaltzak, galdeketarekin jarraitu ahal izateko, atxilotzea 15 egunez luzatzeko eskatu zuen. Fiskaltzak azpimarratu zuen atxilotua mediku batek aztertu zuela saio judizialaren aurretik eta baita bezperan ere.

S.A.-k epaimahaiari jakinarazi zion ez zegoela ondo, galdetzaileek kolpatu egin zutela, irensteko zailtasunak zituela eta jaten saiatzen zen bakoitzean gonbitoa eragiten ziola, eta, beraz, aurreko egunetik ez zuela deus jan. S.A.-k esan zuen nekatuta eta zutik egoteko gai ez zela sentitzen zela. Epaileak akta judizialari erantsi zion atxilotuak marka gorri bat zuela lepoan.

S.A.-k hala adierazi arren, epaileak ez zion galdetu lepoan zuen marka gorriari buruz, zuen kokapenagatik itotzeko saiakera baten erakusle izan arren. Ez zion galdetu ere zergatik ez zen tragatzeko edo altxatzeko gai. Horren ordez, epaileak atxiloketaren zortzi eguneko luzapena onartu zuen, hari galdeketa egiten jarrai zezaten. Erabaki horrek, bere osasun egoera kontuan hartuta, ia bizitza bertan uztera eraman zuen S.A. 2019ko irailaren 27an, S.A. egoera kritikoa zegoen Hadasham ospitalera eraman zutenerako, konorterik gabe baitzegoen eta giltzurruneko gutxiegitasuna baitzuen, 11 saihs hautsi eta gorputz-adarrak handituta.<sup>141</sup>

Fiskaltzak ez zuen deus esan eta, ostean, ez zion ezer jakinarazi S.A.-ren abokatuari irailaren 28ko gauera arte, Israelgo Segurtasun Agentziak gaiari buruzko adierazpen publiko bat egin ondoren. Gau horretako goizaldeko 1:30ean, Addameerren abokatu eta S.A.-ren emaztea ospitalera joan zirenean S.A. konorterik gabe eta arnasgailu batekin konektatuta zuten. Atxilotua bi astez egon zen lasaigarriekin, bere osasun egoera kontrolatu eta gehiago honda ez zedin.

2019ko irailaren 28an, S.A.-k beste debeku bat jaso zuen abokatu batekin elkar ez zedin eta 2019ko urriaren 3an epaimahaiak bilkura bat egin zuen galdeketekin jarraitu ahal izateko atxiloaldia luzatzeko asmoz, nahiz eta une horretan ospitalean konorterik gabe eta egoera kritikoa egon. S.A.-ren osasun-egoerak ez zuen eragotzi auzitegiak atxiloaldia luzatu eta abokatuarekin elkartzea debekatu ziezazkion. Horrek argi erakusten du Israelgo sistema judizialak okupazio-erregimenarekin erabateko konplizitatean aurkitzen dela. Fiskaltzak galdeketa eragin ezkorrik izan ez zezan atxilotuari abokatuarekin biltzeko debekua ezartzeak zein zentzu izan dezake atxilotua konorterik gabe dagoenean? Gainera, zein da konorterik gabe dagoen atxilotu bati galdeketa egiten jarraitzeko atxiloaldia luzatzeko erabakiaren legezatasuna?

S.A.-ren osasun-egoera hobetzen hasi zenean, atxiloaldia luzatzeko saio judizial ugari egin ziren Hadasacheko ospitalean. Bertaratzen zen epaile horri atxilotuaren osasun-egoeraren berri ematen zitzaion luzapen-eskaerak onartu aurretik. S.A.-ren kasuak erakusten du Israelgo estatu-erakundeek erabateko txertatuak daudela elkarri; izan ere, sistema judizialak zeregin bat izan zuen galdeketa aldian pairatutakoaren legezko estaldura emateko orduan<sup>142</sup> eta, sistema medikoak, berriz, erabat osagarria izan zen bestelako zeregin guztiz desberdin bat.

Addameerrek S.A.ren historia medikorako sarbidea izan zuen eta konturatu zen medikuen ekintzak egokiak izan ziren arren, bere egoerari buruzko dokumentazioa profesionalki desegokia izan zela, Istanbulgo Protokoloak torturari buruz ezarritako ikerketa-irizpideen eta dokumentazio eraginkorraren irizpideei jarraitzen badiogu. Adibidez, S.A.-ren txosten medikoek ez zuten

atxilotuaren gorputzean ziren marken tamaina, kolorea eta kokalekua zehazki deskribatzen, hematoma zituela adierazten zuen soilik. Txostenetan saihestetako hausturak eta giltzurrunen, bihotzaren eta biriken egoera ere dokumentatzen ziren, lesio horien arrazoiei buruzko informaziorik eman gabe. Ez zen proba medikorik egin giltzurrun gutxiegitasunaren arrazoa edo beste sintoma batzuk aurkitzeko. Era berean, txostenek ez zuten adierazten ospitalera sartu ziren pertsonei galderarik egin zietenik beren lesioen arrazoen inguruan.

Praktika horiek sendagileen lan profesional eta etikoen arbuio nabarmena dira. 1982an Nazio Batuen Batzar Nagusiak adosturiko Atxilotu eta Presoen Tortura eta beste Tratu Krudel, Gizagabe edo Iraingarri eta Zigorren Babeserako Osasun Langileen, medikuen kasuan bereziki, Jardunbideari dagozkion Etika Medikoaren Printzipioek hartu beharreko neurriei dagokionez honela dio: tortura edo bestelako trataera krudel, gizagabe edo iraingarriren aurreko medikuen parte hartze aktibo edo pasiboa mediku etikaren erabat aurkakoa da eta nazioarteko tresnen bidez aztertua izan liteke.”<sup>143</sup> Aldi berean arauak ere honokoa dio: “inongo baldintzetan, ezta segurtasun publikoa arriskuan denetan ere” ezingo dela arau hau bazterrean utzi.<sup>144</sup> Israelgo medikuek atxilotuen gorputzean markak eta hematoma dokumentatzeko betebeharra ez betetzea tortura-delituaren konplizitate-modu bat da, axioma medikoek eskatzen baitute medikuek pazienteari galdetzea atxilotuaren gorputzean egindako edozein hematomaren arrazoiak.<sup>145</sup>

Abokatu batekin biltzeko debekuak bere horretan iraun zuen S.A.-ren osasun-egoera egonkortu eta denbora bat igaro zen arte. Israelgo epaileek segurtasun arrazoiak eman zituzten debekuari eusteko. Horrez gain, torturari buruzko dokumentaziorik ezak, azalduko kezka funtsik gabekotzat jotzeko aitzakiatzat baliatu zituen, Israelgo indarrek esan baitzuten atxilotua Gurutze Gorriko mediku batek bisitatu zuela eta Hadasham ospitaleko medikuek ere aztertu zutela.

Hala ere, gertaera horiek ez dituzte medikuak salbuesten atxilotuaren gorputzean ikusi zituzten tortura-markak dokumentatzeko betebeharetik, eta ez dituzte salbuesten S.A.-ren egoera medikoa zehaztasunez dokumentatzeko erantzukizunetik. Izan ere ospitalean sartu zen unetik zituen markak, giltzurrun-gutxiegitasunaren izaera eta arrazoiari buruzko xehetasunak, haren osasun-egoeraren xehetasunak eta haren osasun-egoera latza eragin zuten faktoreak dokumentatzea ezinbestean betebeharreko lana zuten. Faktore horiei buruzko dokumentazio zehatzik ez egoteak Israelgo krimenak ezkututzen laguntzen du, bai eta giza eskubideen erakundeek tortura-krimenen frogaz eztabaida ezin aurkezteko ezintasuna ere.

## **MEDIKU-IKERKETA: TORTURA-KRIMENEN ARDATZA**

Israelgo galdeketa-zentroak beste era bateko konplizitate medikoaren lekuko dira tortura-delituetan. Delitu horiek medikuen parte-hartze soiletik haratago doaz eta sistema mediko osoari eragiten diote. Atxilotu palestinarrek adierazi dutenez, Shabakeko itaungile guztiak jipoi fisikoetan entrenatuta daude, eta ikusi dute itauntzaileek gorputzeko gune zehatzetara doazela eta ohiko jipoiaren antziz ez duten moduan jotzen dutela. Adibidez, itauntzaile batek badaki barailako muskuluak eta atxilotu baten masailak hatz-puntekin kolpatzeak min jasanezina sorrarazten dituela eta aurpegiaren hantura eragiten dituela. Era berean, itaungileek, hantetako, bularreko eta bizkarreko artikulazioak eta muskuluak kolpatzen dituzte. Alde horretatik, galdera-egileen ezagutzak ez dira orokorrak, baizik eta Israelgo erakunde militarri aurkeztutako mediku- eta ikerketa-ahaleginak adierazten dituzte, min-kantitate maximoa eta proba fisiko ahalik eta txikiena eragiteko teknika espezifikoak erabiliz itaungileak armatzeko. Azterlan honetan aipatu den bezala, Amerikako Estatu Batuetako auzitegiek

ebatzi dute galdeketa indartuko programak diseinatzen eta aplikatzen laguntzen duten profesionalak ez dutela eskubiderik ondoriozko immunitate subiranoa izateko.

## **MEDIKU-KONPLIZITATEA POLITIKA ZAHAR BAT DA**

Oro har, konplizitate medikoa ez da Israelgo Estatuan berriki sortutako politika. 300 autobusaren gorabeherak eta W.R. preso ohiaren kontakizunak (ikus Tortura Israelen kapitulua) adierazten dute sistema medikoak okupazio-krimenak ezkutatzea hasiera-hasieratik errotutako politika zaharra dela. Israeldar zahar eta berrien arteko antzekotasunak agerikoak dira guztiontzat. Shabakek 1993an Hussain Al-Zubaidiren tortura bortitza ukatu zuen bezala, gaur egun palestinarren aurkako tortura-praktikei buruzko kontakizun guztiak ukatzen ditu, eta segurtasun-beharren aitzakiarekin, jokabide-ereduak edo "bitarteko bereziak" justifikatzen ditu.

Politika hori ondo ezarrita dago Israelen historian. 1993an, Michal Sela kazetari israeldarrak Shabakeko dokumentu mediko bat aurkitu zuen, bertan Shabakeko medikuek bete beharreko galdetegi bat ageri zen. Formularioan atxilotu baten osasun-egoerari buruzko galderak zeuden, baita isolatuta mantentzea, aurpegia estaltzea, denbora luzez zutik egotera behartzea eta bestelako trataera batzuetarako eragozpen medikurik ba ote zegoen itauntzen zuten galderak ere. Garai hartan, Shabakek ukatu egin zuen dokumentu hori existitzen zenik; lau urte geroago, ordea, beste formulario ezkutu bat argitaratu zen. Bigarren dokumentuak medikuek, zenbait klausula tarteko, torturari oniritzia eman ziezaion atal bat zuen.<sup>146</sup>

Hala, bada, medikuek zeregin argia dute torturan eta okupazio-erregimenaren mantentze-lan zabalenean. Atxilotu batek bakartze edo tortura posizional luzea barne hartzen duen galdeketa baterako gaitasuna duela ziurtatzen duen edozein baimen mediko ekintza bera osatzeko beste modu bat da.

Erantzukizun medikoari eta medikuek okupazioko krimenak estaltzeko duten zereginari buruzko elkarrizketan, N.Q. atxilotuaren kasua aztertu behar dugu. N.Q.-k 25 urte zituen, 1993ko maiatzaren 4an Beit Sahour-en etxean atxilotu zutenean, eta ad-Dhahiriyan atxilotze-zentro batera eraman zuten. 1993ko maiatzaren 12an, N.Q. Altbaur epailearen aurrean agertu zen atxiloaldia luzatzeko entzunaldirako. Saioaren transkripzioaren arabera, N.Q.-k haren aurkako salaketa guztiak ukatu zituen, eta epaileari jakinarazi zion bertaratu aurreko bi egunetan torturatu egin zutela, barrabiletan jo zutela eta gero ospitalera eraman zutela.<sup>147</sup>

Entzunaldian, epaileak adierazi zuen Soroka Zentro Medikoaren txosten bat berrikusi zuela, eta txosten horretan adierazi zuen atxilotuak lesio masiboak izan zituela bi barrabiletan (barrabilen haustura), kolpeen ondorioz. Fiskaltzak epaileari jakinarazi zion lesioaren arrazoiari buruzko ikerketa hasia zela. 1993ko maiatzaren 15ean, N.Q. Israelgo Livni epaile militarren aurrean agertu zen, eta atxiloketa ez luzatzea erabaki zuen, frogarik ez zela argudiatuz. Horren ordez, epaileak atxilotua administrazio-atxiloketaren pean jartzea erabaki zuen.

N.Q.-ren familiak Giza Eskubideen aldeko Medikuei parte hartzeko eta kasua ikertzeko eskatu zion, eta erakundeak ikusi zuen 1993ko maiatzaren 21ean epaileak aipatu zuen txosten medikoa desagertu egin zela Soroka Zentro Medikoko erregistroetatik. Familiari emandako dokumentu bakarra 1993ko maiatzaren 19an dataturiko medikuaren iritzi-txosten bat izan zen. Hori N.Q.-k larrialdi zentrotik alta jaso eta zortzi egunetara izan zen.<sup>148</sup>

Urologo batek idatzitako txosten medikoak dioenez, atxilotua Soroka zentro medikoko larrialdietara eramán zuten, eskrotoan urraketa bat eginda. Medikuen oharren arabera, atxilotuak adierazi zuen eskaileretatik behera erori zela azterketa burutu baino bi edo bost egun lehenago. Kasuaren azterketa xeheago batek erakutsi zuen txostenaren irizpen medikoa atzeraeraginez idatzi zela, atxilotuaren azterketa mediko berririk egin gabe, benetan gertatutakoa ezkutatzeko eta atxilotuari bere lesioaren erantzule bilakatzeko, ardura galdekatzaileei egotzi beharrean. Medikuen irizpenaren arabera, barrabil-zorroaren urradura ez da itaunketen kolpeek eragindakoa, baizik eta atxilotua eskaileretatik behera izaniko erorikoaren ondorio. Baina, N.Q.-k baieztatu zuen ez zela erori, ez zuela inoiz horrelakorik baieztatu, eta sendagilearen baieztapenak faltsuak zirela.<sup>149</sup>

N.Q.-ren kasua antzeko tratua jaso duten dozenaka atxilotu palestinarren adierazgarri da; izan ere, medikuek zeregin negatiboa izan zuten beren kasuetan, bai Israelgo gobernuaren ekintzak babestuz, bai tortura-marka garbiak dokumentatzeari uko eginez. Israelgo Torturaren Aurkako Batzorde Publikoaren eta Giza Eskubideen aldeko Medikuen txosten bateratuak presoekin eta atxilotuekin lan egiten duten medikuen betebeharrak eta erantzukizunak argitzen ditu. Betebeharrak horien barruan sartzen da medikuek atxilotuak tortura jasaten duten lekuetara itzultzea eragozteko, presoaren informazio medikoaren konfidentzialtasuna gordetzea, tortura-markak edo atxilotuen keak dokumentatzea, eta medikuek ikusi, entzun edo diagnostikatutako tortura-ekintzen berri ematea. Eginbeharrak horiek sinpleak eta zuzenak izan arren, eta etika medikoaren oinarriko betebeharrak gainditzen ez badituzte ere, presoak eta atxilotuak aztertzen dituzten Israelgo Espetxeen Zerbitzuko medikuek ez dute aipaturiko irizpideen gehiengoa errespetatzen, baten bat errespetatzen badute. Harritzekoa da txosten mediko israeldar batek atxilotuen gorputzeko hematoma adieraztea, are gehiago hematoma horien forma, tamaina eta xehetasunak azaltzea. Gainera, medikuek ez dute ikusten dituzten torturen berri ematen, eta ez dituzte beste printzipio asko errespetatzen.<sup>150</sup>

Bortxaketa horietako batzuk medikuei estatu mailan eskainitako babesaren ondorio zuzena dira. IPSko medikuak ez daude ofizialki Israelgo Osasun Ministerioan afiliatuta. Hori dela eta, Israelgo epaitegien aurrean egindako bortxaketengatik prozesatzea oso zaila da. Bereziki, Israelgo medikuen praktikek Tokioko Deklarazioa urratzen dute, zeinak medikuentzako atxilotu eta espetxeratuen aurkako tortura eta bestelako tratu edo zigor krudel, gizagabe edo iraingarrien inguruko nazioarteko jarraibideen multzo bat biltzen duen. Deklarazioaren arabera, medikuek ez dute "tortura onartu, barkatu edo horretan parte hartu" behar, ez eta "tortura errazago egiteko mediku-ezagutzaririk eman" ere.<sup>151</sup> Gainera, IPSko medikuek 1982ko Nazio Batuen Erakundearen Osasun Langileek Espetxeratuen Babeserako Etika Medikorako Printzipioak aipatzen dituen eginkizunei muzin egiten diete.<sup>152</sup>



## **VII. KAPITULUA**

### **ZIGOR KOLEKTIBOAK**

Zigor kolektiboak debekaturik daude nazioarteko hitzarmen batzuetan, delituagatiko erantzukizun indibidualaren printzipioan eta delituak egin ez dituzten pertsonen zigorrek ezartzeko debekuan oinarriturik daude horiek.<sup>153</sup> Zigor kolektiboak ezingo dira ezarri delitua egin duenarekin edozein izanik ere zigortu nahi den pertsonaren harremana (lagun, familia...) baldin eta honek ez baduen parte hartzerik izan egitateetan.

Nahiz eta zigor kolektiboen debekua ez den garapen bereziki berria, esan daiteke Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren printzipioek horren debekuaren oinarriak ezarri zituztela Lurreko Gerraren Lege eta Ohituren Errespeturako Konbentzioaren (II) bidez. Konbentzioaren 50. artikulua honela dio: "Herritarrei ez zaie inolako zigor orokor, diruzko edo bestelako zigorrak ezarriko, elkertasunez erantzulezat jo ezin diren gizabanakoen ekintzengatik".<sup>154</sup> Ostean, Genevako Laugarren Konbentzioak printzipio berberak berretsi zituen. Honela dio Genevako Laugarren Konbentzioaren 33. artikulua: "Babestua den ezin pertsona ezin izango da zigortu pertsonalki egin ez duen arau-hauste batengatik".<sup>155</sup> Hori bat dator Sierra Leonarako Auzitegi Bereziak Fiskaltza vs Alex Tamba Brima, Brima Bazzy Kamara eta Santigie Borbor Kanu kasuan emandako epaiarekin. Epai horretan, epaimahaiak argi eta garbi ezarri zuen debekatua zela zigor kolektiboak ezartzea, bereziki zigorraren xede diren egintzen erantzule ez diren pertsona babestuei. Epaimahaiak debekualdi hori aipaturiko Estatutuaren 4(2)(b) artikuluan oinarritu zuen.<sup>156</sup>

Zigor kolektiboen debekua, Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioan ez ezik, zigor kolektiboak ere debekatzen dituzten tokiko eta eskualdeko ordenamendu juridiko askotan ere ezarrita dago. Australia, Bangladesh, Norvegia, Kroazia, Etiopia, Italia, Errumania eta beste estatu askoren ordenamendu juridikoek debekatzen dituzte.<sup>157</sup> Gainera, sistema militar askok debekatu egiten dute zigor kolektiboak erabiltzea, hala nola Argentina, Ekuador, Zeelanda Berria, Mali, Frantzia, Errumania, Amerikako Estatu Batuak, Erresuma Batua, Jugoslavia, Maroko, Alemania, Kanada eta Kamerun.

Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbideak (IHL) zigor kolektiboak esplizituki debekatzen ez dituen arren, haien debeku inplizitua bizitzarako, askatasunerako eta bidezko epaiketarako eskubideak sustatuz eta babestuz ezartzen ditu, besteak beste. Era berean, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituneko salbuespen-egoerei buruzko 4. artikuluari buruzko Ohar Orokorrek ezartzen duenez, Estatu Kideek ezin izango dute, inola ere, ituneko 4. artikulua argudiatu zigor kolektiboak ezarri IHL urratzeko edo nazioarteko zuzenbidearen arau inperatiboak hausteko.<sup>158</sup>

Palestinaren okupazio israeldarra hasi zenetik, zigor kolektiboa funtsezko baliabide israeldarra izan da palestinarren irmotasunari eta iraunkortasunari aurre egiteko. Israelek presoek familiak truke-txanpon gisa erabiltzen ditu atxilotetetan eta galdeketetan, Palestinako herriak eta hiriak behin eta berriz erasotzen eta ixten ditu, egoiliarrek kolektiboki zigortzeko, bai eta Israelen arabera operazio militarrek egin edo haieten parte hartu duten palestinarren etxeak eraisteko ere.

Gainera, Israelek hildako dozenaka palestinarren gorpuak gordetzen ditu, Palestinako ondasunak eta funtsak konfiskatzen ditu, bere bizilekuko familia asko kanporatzen ditu indarrez, eta atxiloteta masiboen kanpainak zuzentzen ditu eremu jakin batzuetako bizilagunen edo alderdi politiko jakin batzuetako kideen aurka.

## **SAREKADA UGARI ATXILOTUEN HERRIETAN**

Israelek sarritan ezartzen dizkie zigor kolektiboak eremu jakin bateko palestinarrak guztiei. Demagun herrikide batek operazio militar batean parte hartzen duela. Kasu horretan, israeldarrek beren herria edo hiria ixten du, batzuetan egun luzez, pertsona hori bizirik edo hilda egon ala ez. Itxiera horien

helburua ekintzailearen familia eta eremu zabaleko bizilagunak zigortzea da, baita ekintzan beste pertsonaren batek parte hartu ote duen jakiteko informazio gehigarria lortzea eta egoiliarrek presionatzea ere ekintzaileak ihes egitea lortu badu hau entregatzera bultzatzea. Politika horiek, beraz, palestinarren aurkako zigor kolektiboak ezartzen dituzte egin ez dituzten delituengatik.

Palestinako herri eta hiri asko egon ziren itxita, egoiliarrek zigortzeko asmoz, egun nahiz aste batzuetan zehar: Deir Abu Mash'al, Klehoi Qaddum, Aboud, Nabi Saleh, Deir Nidham, Qusra, Jurish eta beste asko. Herrien itxiera-politikak urratu egiten du Israelgo Auzitegi Nagusiko 7577/06 erabakia, herriak, palestinarrek bertan direla, erabat ixtea edo isolatzea debekatzen duena, eta argitzen du itxiera baimentzeak ez duela esan nahi eremu jakin batzuetan sartzeko eta irteteko debeku orokorra ezarri behar denik, sarrera-irteeretako bidaiak segurtasun-kontrolpean jarri behar direla baizik.<sup>159</sup>

Addameerrek Israelgo eraso ugari dokumentatu zituen Silwad herrixkan 2019an. Urtearen lehen erdian, Israelgo indarrek herrixka inguratu zuten etxe askorekin batera, bizilagunak atxilotzeko edo etxeak husteko eta ondasunak kaltetzeko. A.H.-ren familia izan zen sarekada horien helburuetako bat. A.H.-k Addameerri egindako zinpeko aitopenean esan du Israelgo indarrek beren familiaren etxean erasan zutela 2019ko urtarrilaren 21ean, goizeko 1:30ean. Familiak batez ere etxebizitza espazio bat okupatzen du eta beste asko hutsik eta itxita daude. Bi pisuko eraikina berehala indar armatuz josi aurretik, soldaduek ate nagusia hautsi zuten. A.H.-k gaineratu du, nahiz eta familiak beste espazioetako giltzak eman zizkien soldadu israeldarrei, haiek ate guztiak suntsitzen saiatu zirela.

"Teilatura igo eta ur-biltegiak zulatu zituzten labanekin. Sofatoko kuxinak ikuskatu zituzten, eta buelta eman zieten labanekin urratu aurretik. Geletako armairuen barrualdea erregistratu zuten irauli eta hautsi aurretik. Are gehiago, ohea hautsi zuten", dio A.H.-k. Soldadu israeldarrek suntsiketaren arrastoa utzi zuten, familiako inor atxilotu edo deklaratzera deitu gabe. Horrek erakusten du etxe bat gauez erasotzea bertan bizi direnak izutzeko asmoz, Israelek familia askoren aurka duen ohiko praktika bortitza dela hiri eta herrietan behin eta berriz egiten diren erasoetan.

Israelgo indarrek palestinarren aurkako atxiloketa masiboen kanpainak egiten dituzte, herritarrek altxatzen direnean edo Israelgo segurtasuna arriskuan jartzen dutela irizten diotenean. Israelgo indarrek palestinarrek atxilotzen dituzte atxilotzeko arrazoirik badute, eta atxilotzeko arrazoirik ez dutenei ohartarazpena egiten diete. 2015. urtean egindako elkarrizketa batean, Israelgo ofizial militar batek adierazi zuen armadak 100 palestinar baino gehiago biltzen dituen zerrendak osatzen dituela operazio militar batean edo Israelgo helburuen aurkako eraso batean nahasirik egon daitezkeelakoan. Era berean, ofizialak adierazi zuen sarekada hauetan beste hainbat palestinar mehatxatu eta ikaratu egiten dituztela pertsona horien etxeak non dauden esan diezaieten.<sup>160</sup>

Torturatzeko unean psikologo adituen erabilera israeldar praktika berri bat da, 2019 eta 2020 artean sartua. Addameerrek dozenaka kasu dokumentatu zituen non Israelgo indarrek palestinarren etxeak eraso baitzituzten gaueko ordu txikietan; atxiki hartutako kideak atxilotuta zeudela sinetsarazten zieten, argi geratu baino lehen Israelgo kontrol-postu batera eraman zituztela psikologian aditua zela zioen pertsona batek itaundu zitzan. Azken hau "atxilotuei" galdera zehatzak egiteaz arduratzen zen.

Taktika hori Israelen beldurrarazte psikologikoko politika zabalago baten parte da; izan ere, palestinarrek etxez etxe atxikitzen dituzte gaueko ordu txikietan, psikologian aditu batek itauntzen ditu, eta etengabe mehatxatzen ditu, hari erantzun ezean atxilotu eta itaunketa-zentro batera eramango dituztela esanaz.<sup>161</sup>

Addameerrek dozenaka sarekada dokumentatu zituen Kobar herrixkan 2019an eta 2020an. 2019ko abuztuan eta irailean, Israelgo indarrek ia egunero erasan zuten herrixka, dozenaka egoiliar atxilotuz eta deklaratzera zituzten. Ya'badeko herrixkak sarekada basatien antzeko istorioak bizi izan ditu; izan ere, Addameerrek 2020ko maiatzean herrixkaren aurkako eraso bihozgabe bat dokumentatu zuen. Bertan Israelgo indarrek 50 palestinar atxilotu zituzten. Eskala handiko atxiloketen kanpainaren helburua gizon, emakume, haur eta zahar palestinarrak izan ziren. Atxiloketekin batera, etxe askotan sartu ziren miaketak aitzakiatzat hartuta. Egoiliarrak bereizi gabe atxilotu, zitatu, jazarri, erasan eta itaundu zituzten lekuan bertan.

### **N.A.-ren sendia: Zigor kolektiboaren politikaren eredu argia**

N.A.-ren familiak jasan zuen 2020ko maiatzean Ya'bad herrixkaren aurkako erasoaren zatirik okerrera. Addameerren landa-ikertzaileek ia 30 eguneko familiaren aurkako erasoak dokumentatu zituzten. Egun horietan, Israelgo indarrek familiako kideak atxilotu eta beren etxeak miatu eta suntsitu eman zituzten egunero. N.A., emaztea, alaba eta anai-arreba eta iloba guztiak atxilotu zituen Israelek N.A.-k Israelgo soldadu baten hilketan batean zuen parte-hartzea aitzakiatzat hartu ondoren. 30 egun horietan zehar, N.A.-ren emaztea eta alaba behin baino gehiagotan atxilotu eta deitu zituzten deklaratzera. Biek ala biek adierazi dute galderetan iraindu eta garrasi egin zirela ekintzaren egilearen identitateari buruzko aitorpenak lortzeko.

Praktika horiek agerian uzten dute palestinarren aurkako zigor kolektiboaren politika israeldarra. Ya'badeko bizilagunek jasandako jazarpena, zapalkuntza eta sarekadak ez ziren atxilotuari berari begirakoak bakarrik, baizik eta haren familia osoari eta bizilagunei eragin zieten. Gainera, Israelgo indarrek N.A.-ren etxeko gela bat ixteko agindu zuten haren aurka ezarritako zigor gisa.<sup>162</sup>

### **SENDIA, ATXILOTUEZ BALIATZEKO FITXAK BAILIRAN, TRUKERAKO TXANPON GISA ERABILIA**

Israelgo indarrek maiz erabiltzen dituzte familia palestinarrak atxilotuak presionatzeko, batez ere galdeketetan. Addameerrek 1960, 1970 eta 1980ko hamarkadetan atxilotutako preso askoren testigantzak dokumentatu ditu. Beren adierazpenetan, presoek behin eta berriz mehatxatu zituztela adierazi zuten, batez ere familia-kideak atxilotzearekin, askotan senideak atxilotu eta presoan aurrera eramaten zituztelarik itaunketak aurrera zerraien bitartean.

Israelgo politika horrek indarrean jarraitzen du gaur egun ere. 2019an eta 2020ko lehen seihilekoan, Addameerrek 50 kasu baino gehiago dokumentatu zituen. Kasu horietan, palestinarrak atxilotu edo behin baino gehiagotan deitu zituzten deklaratzera, atxilotuen presionatu eta aitorpenak egin zituzten.<sup>164</sup> Israeldarrek atxilotuen eta presoan senideak atxilotu zituzten eta atxilotuen galdeketa-zentro berera eramaten zituzten, atxilotuak beren senideak galdeketapean zirela sinestarazteko. Gainera, presoek mehatxu egin zituzten senideak denbora luzez atxiloketa administratiboan jarriko zituztela esanaz. Politika horren adibide nagusien artean daude Q.S. presoaren ama eta anaia, aske geraturiko M.A. emakume presoaren anaia, M.A. presoaren ama eta W.H. presoaren alaba. Gainera, atxilotuen senide asko behin eta berriz deitu zituzten itaunketa zentrori, beren familiak galdekatzen ari zirela sinetsarazteko edo senideei galdeketa egiteko mehatxua egiteko, hala nola S.J. presoaren aita eta anaia, M.A. presoaren gurasoak, A.H. presoaren aita, M.H. presoaren emaztea eta baita A.M. presoaren emaztea eta ama.

Atxilotuen familien aurkako bortxaketak ez dira hemen amaitzen. Atxiloketa guztiek atxilotuen familiak bortxatzea dakarte, atxiloketen %80 gaez edo goizaldean egiten baitituzte etxean direnak atxilotzeko xedez. Etxean eginiko eraso bortitzek esnatu egiten dituzte familiako kideak, eta haurrengan eta adinekoengan eragin psikologikoa areagotzen dute.

13 kasu baino gehiagotan familiak salatu zuten Israelgo indarrek beren etxeetara sarrerako ateak puskatuz edo leherraraziz sartu zirela, eta poliziak, berriz, soldaduei lagundu zietela sarekadetan gutxienez zazpi kasutan. Israelgo soldaduek hainbat presoren 10 senide jo edo erasotu zituzten gutxienez atxiloketetan eta presoen familiakoen edo bizilagunen etxeak erregistratu zituzten gutxienez zazpi kasutan.

Oro har, familiak atxilotuak presionatzeko truke-txanpon gisa erabiltzeak, emaitza onak eman ditu gehienetan. Azken urteotan, Addameerrek dozenaka kasu dokumentatu ditu non atxilotuek baieztatu baitute beren aitortzak senideak atxilotzearekin mehatxatu zituztelako egin zituztela. Kanpoko mundutik erabat isolatuta dauden atxilotuekin eta Israelgo basakeriaren izaeraz oso kontziente direnekin, oso zaila da mehatxu horiek ez sinestea.

2019an, Addameerrek 10 kasu baino gehiago dokumentatu zituen non atxilotuek antzeko presioak jasan izana salatu zuten. Tartean zen Q.S. presoaren kasua ere, zeinaren ama atxilotu eta Al-Moscobiyehra eraman zuten 15 egun baino gehiagoz. Galdeketa, Q.S. bere hainbat lagun atxilotu eta galdeketa militarra egitearekin mehatxatu zuten. Handik gutxira, mehatxua gauzatu egin zen, hurrengo bi asteetan Q.S.-ren lagun eta senide asko atxilotu baitzituzten, eta horietako batzuei galdeketa militarra egin zizkieten. Une jakin batean, Israelgo galdekatzaileek Q.S.-ren ama galdeketa militarreko teknikak baliatuz galdekatzearekin mehatxatu zuten; huraxe izan zen Q.S. aitortpena egitera bultzatu zuen azken mehatxua.

Q.S. atxilotuaren kasua familiako kideak atxilotuei presioa egiteko modu gisa erabiltzearen krudeltasuna erakusten duen Addameerrek dokumentatutako kasu ugarietako bat da. Politika horren ondorioz, familiaren papera ez da jada atxilotuaren laguntza-sistemaren funtsezko zutabe eta galdeketa bortitzak pairatzen ari den unean bere indar iturri izatea, kontrara, atxilotua galdeketa baitan aitortzera eraman dezakeen mehatxu tresna gisa bilakatzen dute Israelgo indar armatuek.

Addameerrek dokumentatutako beste kasu bat W.H. presoarena izan zen. Haren familia ezohiko den moduan erabili zuten galdeketa. Itauntzaileek atxilotua presionatu zuten bere familiaren bizitzan utziko zuen betiereko absentziaren ideia bitxia errepikatuz. W.H. Addameer aipatu zion: "musika batez lagundurik argazki familiarren aurkezpena erakutsi zidaten PowerPoint batean. Nire aurpegia argazki guztietatik desagertzen zen, arik eta 'martiri bizia' azpian idatzia zuela zaharkitua nengoen argazki bat agertu zen arte." Gogoratu du galdetzaileek alabaren ezkontzaren bideo asmatu bat erakutsi ziotela, bera bertara joango ez zela erakusteko. Gainera, israeldarrek bere alaba, M.H., galdekatzera deitu zuten eta itaunketa-zentrora iristean atxilotua zegoela jakinarazi zioten.

## **ESTATUA HAURREN AURKA: ISRAELEK PALESTINAR BAT ATXILOTZEN DU HAUR BAT ENTREGA DADIN PRESIONATZEKO**

2019ko martxoaren 10ean, indar armatu israeldarrek M.A.A.-ren etxean sartu ziren bortxaz, Al-Bireh herriko bederatzi urteko mutikoa zen M.A.A.. Aldi berean, soldaduak bere osabaren etxera ere indarrez sartu ziren hiri berean, eta 19 urteko M.A. lehengusua atxilotu zuten. M.A.A.-ren aita herritik gertu dagon Psagoteko asentamendura joan zenean ilobaren atxiloketaz galdetzeraz, soldadu

batek esan zion M.A. M.A.A. entrega zedin presionatzeko soilik atxilotu zutela. Hauraren aitari esan zioten M.A. ez zutela askatuko semea entregatu arte.

Israelen mehatxuen aurrean, M.A.A.-ren aitak semea Israelgo soldaduei entregatu behar izan zien. Haurrak egun hartako xehetasunak kontatu dizkio Addameerri: "Hormigoizko blokeen gainean eserita eduki ninduten ordubetez ibilgailu militar batean sartu ninduten arte. Lehengusua nirekin zengoen han, eta hasieran eskuak plastikozko eskuburdinez lotu zizkidaten. Begiak estali zizkidaten eta asentamentura eraman ninduten... Ibilgailutik atera eta karabana batean sartu ninduten; bertan lurrean eserarazi ninduten, begiak estalirik eta eskuak lotuta. Lehengusua eta biok horrela egon ginen han hiru orduz. Gurekin hiru soldadu zeuden denbora guztian. Lehengusua nire begien aurrean jipoitu zuten". Handik hiru ordura, bi atxilotuak Beit El kokalekura eraman eta bertan banandu zituzten. M.A.A. haurra Koordinazio eta Loturako bulego batera eraman zuten, eta han ia ordu-erdiz egon behar izan zuen zutik, askatu zuten arte. Lehengusua leku ezezagun batera eraman zuten.

Gertakari tragiko horrek erakusten du zer-nolako trauma jasan behar izan duten palestinarrek Israelgo indarren eskutik, eta, sarritan, familiak seme-alabak entregatu behar izaten dituzte familiaren aurkako bortxaketei amaiera emateko. Beste batzuetan familiako kideek kartzelarien papera hartu behar izaten dute, etxe-atxiloketekin kasuan, adibidez. M.A.-ren familiaren kasuan azpimarragarria soldadu israeldarrek M.A. atxilotzeko zuten motibazioa hain argi jakinarazi izana da. Hau da, M.A.A. haurra entrega zedin presionatzeko atxilotu zutela, nahiz eta hau entregatu ostean, lehengusua askatu beharrean atxilo mantendu eta jipoitu egin zuten.

Addameerrek atxilotuak presionatzeko truke-txanpon gisa erabilitako familiak dokumentatzea lortu zuen kasuek garbi erakusten dute praktika-eredu bat dela berau, eta atxilotuak eta presoak presionatzeko familiak atxilotzeko, zitatze, erasotzeko edo izutzeko politika ia etengabea dela.

## **ETXEBIZITZEN ERAISTE POLITIKA ATXILOTU PALESTINARREI ZUZENDUA DAGO**

Etxebizitzak eraistea ondo ezarritako politika israeldarra da eta, politika horretan, Israelgo lege eta arauak urratu edo deliturik egin ez duten familia palestinarrek behartuta daude beren etxeak nola eraisten dituzten ikustera. Politika hori delitu bat egin duela edo Israelen segurtasunerako mehatxua dela uste den senide baten ekintzak aitzakiatzat hartuta familia osoa zigortzeko bitartekoa da. Politika horren oinarrian familia-etxeen segurtasuna arriskuan jartzeak Palestinako komunitateari beldurra sorrarazten diola da eta, beraz, horrek okupazioaren aurkako ekintzak egitea eragotz dezakeela. Hala ere, Israelgo armadaren barne-ikerketak militar batek 2005ean ondorioztatu zuen politikak ez zuela lortu nahi zen disuasio helburua betetzen; izan ere, ekintza militarrek egiten zituzten pertsonen etxeak eraistek areagotu egiten zuen ekintzen maiztasuna.<sup>165</sup> Ikerketaren gomendioei jarraiki, Israelek politika amaitzeko agindu zuen, baina horrek ez zuen asko iraun.


2014an Israelgo hiru kolono bahitu eta hil ondoren, etxebizitzak eraisteko politikari ekin zion berriro Israelek. Une hartan, Israelgo Auzitegi Gorenak eraispen-agindu bati buruzko audientzia batean adierazi zuen ez zuela inoiz politika erabat geldiarazteko asmorik izan, eta erasoan areagotzearen inguruabar aldakorrek aipatu zituen eraispenak berriro egiteko justifikazio gisa.<sup>166</sup>

Etxe bat eraistea administrazio-prozedura bat da, ez du epaiketarik ez epairik eskatzen. 1945eko (Larrialdiko) Defentsa Erregelamenduaren 119. arauak baimena ematen dio komandante militar bati

edozein etxe edo egitura konfiskatu, itxi edo suntsitzeko, izan osotasunean nahiz eraiste partzial moduan.<sup>167</sup> Familia batek eraispen-aginduaren jakinarazpena jasotzen duenean, komandante militarri eragozpen bat aurkezteko eskubidea du 48 orduko epean. Komandanteak eragozpena errefusatzen badu, familiak errekurso bat aurkez dezake epaitegietan.

Etxebizitzan eraispenetan, Israelgo epaitegiek palestinarren eskubideen kontrako joera orokorra dute. Israelgo Auzitegi Nagusiak etxebizitzak eraisteko aginduen aurkako errekurso gehienak ezetsi ditu. Nahiz eta auzitegiak berak muga gutxi batzuk ezartzen dizkien hainbatetan komandante militarrei, eraispenaren arrazoiak zehaztera behartuz hainbatetan. Halere, armadak, kasuak Israelgo epaitegietara iritsi baino lehen, baita askotan palestinarrek euren etxeetako ondasunak jasotzeko aukera izan aurretik ere, dozenaka palestinarren etxeak eraisten jarraitu du Israellek.<sup>169</sup> Gainera, Justizia Auzitegi Nagusiak Jerusalemgo familien etxeak eraisteko aginduen aurka epaitegira eramano 11 errekurso baino gehiago artxibatu zituen 2014. urtearen amaiera eta 2019. urtearen hasiera artean.<sup>170</sup>

2019ko hasieratik 2020ko erdialdera arte Addameerrek zenbait etxe-eraijpen dokumentatu zituen Palestinako familiei ezarritako zigor kolektiboen zati gisa. Israelgo indarrek dozenaka presoaren etxeak eraitsi zituzten, besteak beste, Assem Barghouthi, Khalil Dweikat, Waleed Hanatsheh, Yazan Maghames, Qassam Barghouthi, Islam Abu Hmeid, Ahmad Assafreh, Qasem.



Nadia Daqqa abokatuak<sup>171</sup> adierazi du ez dagoela arau judizial koherenterik eraiste-aginduak emateko prozesua zuzentzeko. Antzeko inguruabarrek ez dute antzeko epairik eragiten, izan ere, Israelgo auzitegiek batzuetan uko egiten diote eraisteko agindu bat onartzeari, edo, kasu batzuetan, etxeko gela bat ixtea onartzen dute, baina beste batzuetan etxe osoaren eraijpena onartzen dute kasuen artean antzekotasunak egon arren. Horri dagokionez, Daqqak N.A. presoaren etxea eraisteko 4853/20 zk.ko ebazpen judiziala aipatzen du. Bertan N.A.-ren sendiaren etxea eraisteko baimena ukatzen zen; ezarritako errekursoaren aldeko 2 bozka eta aurkako bat jaso zituen.

Ebazpen judizialean, Menachem Mazuz epaileak dio 119. arauaren erabilerak nazioarteko zuzenbidea eta Israelgo legeria urratzen dituela, eta azpimarratzen du arau horren arabera komandante militarren ahalmenak zuzentzea handiz erabili behar direla. Epaileak funtsezko irizpide baten gainean jartzen du arreta: familiako gainerako kideen errugabetasuna edozein delituren aurrean. Mazuz-ek adierazi du familiako kide errugabeei kalteak eragitea zigor kolektibo bat dela eta erasotzailearen gela ixtea proposatu du etxebizitzak eraisteko politikaren alternatiba gisa. Era berean, George Karra epaileak adierazi zuen etxebizitzak eraisteko politika aldarrikatzeak, kasu honetan, pertsona errugabeei kalteak eragin diezazkiekeela, eta hori zigor kolektibo baten baliokidea izan zitekeela, batez ere familiako kideek ez zutelako alde aurretik ezagutzen operazio militarra.

Nahiz eta N.A. presoaren kasuaren inguruabarrak M.K. presoaren antzekoak izan, M.K.-ren kasuak jasoriko 480/20 ebazpen judiziala oso bestelakoa izan zen. Epaimahaiak M.K.-ren etxea eraisteko agindua onartu zuen, nahiz eta familiak ez aldeztu aurretik jakin zein ekintza egin zuen. Etxea eraitsi ostean, bizilekurik gabe utzi zituen emaztea eta M.K.-ren bost alabak, familia osoa kaltetuz.

Daqqak dioenez, Israelgo politikariek eta iritzi publikoak epaileak beldurtzea lortu dute azken urteotan. Israelgo komunikabideek nahita erasotzen dituzte etxebizitzak eraisteko aginduak onartzeari uko egiten dioten epaileak, baita Palestinako etxe bateko gela bat "soilik" itxi edo eraitea onartzen duten epaileak ere, kanpaina bihozgabeak eginez eta epaile horiek "terroristen laguntzaile" moduan agerraraziz. Epaimahaiak N.A. presoaren etxea erabat bota ordez etxe baten gela bat ixtea onartu ondoren, manifestariek kaleak bete zituzten epaileen erabakiaren kontra.

Adierazpen horiek, garai hartako Israelgo komunikabideen bultzadarekin batera, funtsezko zeregina izan zuten etorkizuneko kasuetan buru izan ziren epaileak etxebizitzak eraisteko aginduak onartzera bultzatzeko orduan. N.A.-ren epaiaren ostean antzeko inguruabarrak zituzten bi kasu aurkeztu ziren epaitegietan. Hala ere, antzekotasun horiek ez zuten balio izan aurreko epaiak urraturiko bidari jarraipena emateko. K.D. eta M.K. presoen senideek inolako ekintza militarretan esku-hartzerik izan ez bazuten ere, euren etxeen eraispena onartu zuten epaileek, familiaren aurkako zigor kolektibo argia ezarri. <sup>172</sup>

Etxebizitzen eraispenek etxerik gabe uzten dituzte dozenaka familia palestinar, nahiz eta Israelgo araudiaren aurkako delituren bat egin ez izan. Israelek familiak zigortzen dituzten operazio militar baten egilearekin aurretik izandako familia-harremanarengatik, zuzenbidearen eta IHLren oinarriko printzipioak nabarmen urratuz, bereziki Genevako Laugarren Hitzarmenaren 53. artikulua. Erromako Estatutuaren 8. artikulua arabera, praktika horiek gerra-krimena dira. Aldi berean, etxebizitzen eraispenak Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren 11. artikulua urratze zuzena dira, pertsona orok etxebizitza egokia izateko duen eskubidea aitortzen baitu horrek. <sup>173</sup>

Etxebizitzen eraispenek gogor presionatzen dituzte atxilotu palestinar. Galdeketetan, Israelgo indarrek etengabe mehatxatzen dituzte atxilotuak beren etxeak eraitsi eta presio handiagoa egiteko, eta behin eta berriz esaten diete haiek direla beren familiak banatzearen errudun bakarrak. Atxilotuei behin eta berriz esaten zaie israeldarren okupazioaren aurkako erresistentzia-ekintzak direla etxeak suntsitzeko arrazoi bakarra, bai eta bizitza osoko lan gogorra eta urte askotako familia-oroitzapenak galtzeko arrazoi bakarra ere. Azken batean, Israelek etxebizitzen eraispenak atxilotuak presionatzeko baliabide gisa erabiltzen ditu, ezin baita gutxietsi hain zentsuragarria den zigor kolektiboak atxilotuengan duen eragin psikologiko larria, batez ere galdeketan zehar ezartzen zaien kanpoko munduarekiko erabateko isolamendu egoeran daudenean.

Esan beharra dago Israelgo indarrek ez zutela etxeen eraispen-politika geldiarazi Covid-19ko pandemiaren erdian. Adibidez, Q.S. presoaren etxea Covid-19-aren agerraldiaren puntu gorenean eraitsi zuten, eta ez ziren aintzat hartu, pandemia ez barreiatze aldera, biztanleei euren etxeetan geratzeko egiten ari ziren nazioarteko eskaera guztiak. Zigor kolektiboko ekintza batean, Israelek etxerik gabe utzi zuen familia oso bat mundu mailako pandemia baten erdian.

